

Italo Svevo

**Bidaia sentimental
laburra**

euskaratzailea: Maite Lopetegi

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Maite Lopetegi.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1998

Jatorrizkoaren data: 1930

Italo Svevo euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=205>

HITZAURREA

«Nire argitaratzaileak Zenoren kontzientziaren ale guztiak bidali dizkit. Nik — megalomano honek— gehiegi eginarazi nituen. Ganbaran daude pilatuta eta hala-ko pisua dutenez nire ohe gainean amil daitezke... liburu horiek hegalkak izan zitzaketela pentsatzen dut eta han goitik hegaldatu ahal izango liratekeela, besterik ez bada ere, nire ondoren alde egiteko.»

Italo Svevo (gutun batetik)

LITERATURAREN HEGALETAN EDO SVEVOREN KONTZIENTZIA

«Bidaia sentimental laburra», hirugarrena eta famatuena den nobelaren garaian, edo hobeto esanda, haren arrakastaren gerizpean idatzitako ipuin luzea da eta ondo baino hobeto biltzen ditu Sbevoren idazkeraren ezaugarriak.«Corto viaggio sentimentale e altri racconti inediti» izenburuko liburuaren baitan argitaratu

zen. Estreinako argitalpena 1957koa da, alegia, hil eta hogeita bederatzi urte beranduagokoa. Bere bizitzan zehar idatzi zituen ipuin gehienak argitaratu ziren horrekin batera eta lehenengoe-tatik hasi eta heriotza iritsi zitzaion garaian idaz-ten ari zen zirriborroarekin amaitzen da. Tar-tean, solte argitaratu zituen ipuinak, sekula argi-taratu ez ziren ipuin amaituak, amaitu gabe edota zirriborro hutsean baino geratu ez ziren ipuin nobelak aurkitzen dira, asko data jakinik gabekoak.

Bidaia izateko laburra eta ipuin izateko luzea. Bidaia, askotan bezala, metafora da. Baina baita bidaia fisikoa ere. Introspekziorako aitzakia baina baita askatasun espazio propio bat eskura-tzeko une bat ere, benetako bizikizuna. Dena den, eta berehala, Aghios jaun bidaztiak askata-sun hori bere hurkoarekin usatzearen ondorioz, askatasun hori nola mugatzen zaion ikusten du. Beraz, bidaia pertsonaia tipo andana bat aurkez-teko aukera ere bada, zeren, eta bere hitzak parafraseatuz, «bere askatasunaz nori mintzatu, (...) hartaz harrotzeko aukera» behar du. Eta amaitzeko, istorioak entzuteko bidaia ere bada,

egiazkoak zein gezurrezkoak, idazketaren benetako bidaia. Aghios «arruntak» egiak gezurak bailiran kontatzen ditu eta horrek «poeta», «filosofo» bihurtzen du. Eta gezurak egiak bailiran sinetsi nahi ditu, bidaia ederragoa baita horrela. Istorio horiek entzuteko eta horien aurrean erantzun eta jokatzeko erak Aghiosen izateko moduaz askoz ere gehiago adierazten du inongo deskripzio luzeek baino.

Aghiosek badu Zeno bere anaia izpiritualaren antzik: jarrera ulerkorra, bihozberatasuna eta umorea, bai bere burua eta bai inguratzen dutenak aztertzekeo garaian. Horrela, bi kontakizunek: behin eta berriz disgresioek eten egiten duten ildo narratibo fin bat dute, baina inoiz ez dira bidaia/trenaren erritmoa hausteko bestekoak.

Dena dela, ez da harritzekoa bi narrazio horien arteko antzekotasuna. Bere bizitzan zehar idatzitako guztian, han eta hemen, elementu eta gai, tonu eta estilo beretsuak aurkitzen dira. «Benetan idaztera iristeko, egunero zer edo zer zirriborratzea baino modu hobeagorik ez dago». Batek daki, orain esku artean dau-

kagun idazki hau beretzat ez ote ziren zirriborroak besterik izango, esan ahala zer esan eta nola esan bilatzen ari denaren zundaketa. Baina, hain zuzen, horretan datza bere indarra.

BIOGRAFIAZ ZERTXOBAIT

Italo Svevo egiatan Ettore Schmitz-en ezizena dugu. 1861ean, artean Austriaren menpe zegoen Triesten jaio zen familia ugari batean. Aita Triesten bizitzen jarri zen aleman jatorriko judu bat zen, baina etxean zegoen giroa Italiari oso atxikita zegoen. Hala ere, bigarren mailako ikasketak, ikasketa komertzialak, Bavieran egin zituen, aitaren beiraki negozioan lan egiteko. Horrek, Alemaniako erromantikoen lanak irakurtzeko aukera eman zion. 1878an Italiara itzultzean, Florentziara joan nahi izan zuen italiera hobeto ikasteko, nahikoa ondo ez zuela menperatzen iruditzen baitzitzaion eta ordurako argi baitzuen idazle izan nahi zuela. Baina aitak ez zion utzi. Bi urte geroago, aitaren negozioak porrot egin zuenean, lana bilatu behar izan zuen. Vienako banku baten korrespontsal gisa hasi zen lanean eta hemeretzi urtez egon zen bertan. Aldi

berean, eta lan orduz kanpo, orduak ematen zituen Bibliotekan bere heziketa literarioa osatzeko. Musika ere landu zuen eta biolina ikastea-ri ekin zion.

1880an argitaratu zuen bere lehen artikulua «Independente» egunkarian eta beste hamar urtez parte hartu zuen Trieste Italiara itzultzearen aldekoa zen egunkari horretan. 1886an Umberto Veruda eskultorea ezagutu zuen eta adiskide minak izan ziren hain desberdinak ziren bi artista hauek Veruda hil zen arte (1904). Ordu-rako ezaguna zen Svevok bizitzaren aurrean zuen ezkortasuna eta jarrera horrekin hasi zen bere lehen nobela idazten. Zalantzaz eta damuz beteta, bost urte luze eman zituen «*Una Vita*» nobela idazten. 1887an idazten hasi zen nobela hura 1890ean argitaratu zuen Triesteko argital-dari txiki batean eta kostua bere poltsikotik ordainduta. Orduan erabili zuen estreinakoz Italo Svevo ezizena. 1896an Livia Venezianirekin ezkondu zen. Agi danean, horrek bere ezkortasu-na deuseztu ez bazuen ere, halako baretasun bat ekarri zion eta familiarekin (baita anai arre-bekin ere, ordurako gurasoak galduak baitzi-

tuen) oso konprometitutako gizona izan zen bizitza guztian zehar. 1898an, zatika argitaratu zen arestian aipatutako egunkarian «*Senilitá*» bere bigarren nobela eta geroxeago aurrekoa bezala liburu gisa kaleratu zuen.

Esan beharra dago, nobela bi hauek ez zutela inongo arrakastarik izan. Kritika on solteren bat salbu, garaiko kritikak eta irakurleek alde batera utzi zuten. Bigarren porrotaren ondoren, Svevok idazten jarraitzeari uko egin zion eta irakurketan babestu zen.

1899an aitaginarrebaren negozioan sartu zen, urpeko bernizen fabrikari. Horrek, lasaitasun ekonomiko handia ekarri zion eta ordura arte egitera behartuta zegoen iharduera ugariak utzi ahal izan zituen. Aldi berean, lan berri horrek kanpora bidaiak egiteko aukera eman zion, eta bere hainbat idazkitan ikusi denez, oso garrantzitsuak izan ziren beretzat. 1905ean Triesteko Berlitz School-en ingelesa hobetzeko eskolak hartzea erabaki zuen eta bertan irakasle gazte bat ezagutu: orduan hogeitahiru urte zituen eta artean ezagunegia ez zen James Joyce idazlea. Harremana berehala bihurtu zen estua eta elkar

trukatu zituzten beren idazkiak. Joyce-k, *Chambers music* poemak eta *Dubliners*, eskuizkribua irakurrarazi zizkion eta Svevok, aldiz, *Una vita* eta *Senilità*. Joyce liluratuta gelditu zen eta aitortu zion nobelagile bizien arteko orijinalenetakoa zela eta interesa piztu zion idazle italiar bakarra. Harreman horrek biziberritu egin zuen, eta berriro idazteari ekiteko asmoa erakutsi zuen.

1914ko gerrak egoera berezia sortu zuen Triesten. Aitagarreba, italiarra izanik, alde egitera behartu zuten. Alabak ere alde egin zuen eta Svevotarrak bakarrik gelditu Triesten. Svevo, nazionalitate austriarra zuenez, fabrikaren arduradun gelditu zen. Baina Svevok egin zien bihurrikeria baten ondorioz, eta jakina, hainbat elkarre abertzaletako partaide zelako, fabrika itxi eta etxea errekisatu zieten agintari austriarrek.

Laneza egoera honek asko irakurtzeko beta eman zion. Garai hartan idazle ingelesak irakurri eta Freud lanak italierara itzultzen hasi zen.

1921ean gerra amaitua zen eta familia itzulia. Suhia fabrian sartu zenean hirugarren nobela idazteari ekin zion «La coscienza di Zeno». 1923an argitaratu zen, oraingoan Boloniako

argitaletxe baten eskutik. Baina oraingoan ere kritika italiarrak jaramon gutxi egin zion.

Svevok, nahikoa jota, ez zuen etsi eta Joyce-ri bidali zion. Horri, aurretik liluratuta bazegoen ere, hori irudituz zitzaion hiruetan onena. Zenbait kritiko ingeles eta frantses garrantzitsurekin hitz egingo zuela agindu zion. Harreman horien ondorengo arrakasta izugarria izan zen Frantzian.

Ordukoa da, 1925ekoa «Bidaia sentimental laburra». Urte horretan bertan jaso zuen lehenengoz Italian bere obraren goraipamena, Eugenio Montale kritiko italiarraren eskutik.

1926an Italian «Svevo kasuaz» hitz egiten zen: alegia, hirurogeitalau urteko idazle bat, hogeitamalau urtetan zehar ezezaguna izan, eta orduan, batez ere atzerrian, «jeinu bat» eta «Italiak duen analisiaren lehen nobelagilea» zela ohartu.

Ipuinak idazten jarraitu zuen eta Italian polemika handia zegoen Svevoren aldeko eta aurkakoen artean. Frantzian, aldiz, eta Alemanian ere dagoeneko ezagutzera eman baitzen, arrakasta eta onarpena gero eta handiagoak ziren.

1928an, laugarren nobela hasi berria zuela, automobil istripu baten ondorioz hil zen, hirurogeitasei urte zituenean.

1. MILANGO GELTOKIA

Samurki baina indarrez Aghios jauna emaztearengandik urrundu eta ibilera azkarrez geltokiko sarreran pilatzen zen jendartean galtzen saiatu zen.

Agur hura laburtu beharra zegoen, senar-emazte zahar biren artean barregarri gertatzen baitzen. Egia esan, toki horietan mundu guztia presaka eta korrika eta, barre egiteko ere, auzokoari begiratzeko astirik gabe ibiltzen zen baina, hala ere, Aghios jaunak auzotar isekaria barruan nola gorpuzten zitzaion sentitu zuen. Areago, oso-osorik auzotar horixe bera bihurtzen zen. Zein arraroa! Sentitzen ez zuen tristura baten itxura egin behar zuen eta, oster, alaitasunez eta itxaropenez gainezka egiten zuen. Ez zuen sentimendu horretaz lasai goatzeko unea ikusten. Horregatik zebilen lasterka, ahalik eta azkarren itxurei ihes egiteko. Zer dela eta hainbeste berriketa? Egia zen urteetan ez zela emaztearengandik urrundu, baina etxera, Triestera, bi

aste geroago elkartuko ziren lekura bidaia bat egiteak ez zuen hartaz hitz egiterik merezi.

Eta, aitzitik, hitz egin zuten, luze eta etengabe. Erabakia hartzea zaila izan zen, hain zuzen, biek nahi zutelako eta biek uste zutelako lortu ahal izateko beharrezkoa zela nahi hori ezkutuan gordeta izatea.

Bizitza osorako edo gutxienez ia osorako urruntze bat izan balitz, tira, negar egin ahal izango zuen. Baina, horrela ez izanik, bere buruari aitor ziezaiokeen pozik urruntzen zela. Areago, jakin baitzekien emaztea ere pozik gelditzen zela.

Azken urteetan Aghios andrea semearekiko maitasun sutsu eta eksklusibo batez lotuta zegoen. Hura urrun zenean andrea bakarrik sentitzen zen, baita senarraren ondoan ere eta, are bakar-tiago oraindik, Aghios jaunak barre egingo zuelakoan ez zuelako oinaze hari buruz hitz egiten. Baina Aghios jaunak bazuen oinaze haren berri, samindu egiten zen hura ezin leuntzeagatik eta, ez gogaitzeko, ezikusia egiten zuen. «Errepresio bikoitza» pentsatu zuen Aghios jaunak, filoso-

fiazko zenbait lan irakurriak baitzituen. «Bikoi-tza, harena eta nirea baita».

Oraingoan, Aghios andreak Milanen geratu nahi izan zuen, semeak azterketa garrantzitsu bat egin behar zuela eta bakarrik ez uztearren. Aghios jaunak ez zien garrantzi gehiegirik ematen berriro egin daitezkeen azterketei eta jakin bazekien semeak ere gustura egingo lukeela berriz ere hura, Milanen gelditzea horren gogoko izango ez balu behintzat. Baina orain, bakarrik alde egin nahi bazuen bederen, Aghiosek berak ere ahalegindu beharko zuen ataka txar haren erdian ama semearen peskizan geldi zedin. Ondorioz, andrea, senarraren gustua egitearren, Milanen gelditzen zen, baina Aghios jauna, emaztearen izpirituak zorrozki zelatatua, irainduta balego bezala abiatzen zen, nahiz eta ez adierazi, zeren bestela kolokan jarriko baitzuen bakarrik bidaiatzeko askatasuna.

Benetan laburtu beharreko agurra zen hura, zeren gauzak nola zeuden igarri izan balu Aghios andrea kapaz zen azken unean antolaketa guztiak aldatzeko. Dagozkion eginkizunak behar bezala ez egitea onartzen ez duten andre horie-

tako bat zen. Eta Aghios jaunak pentsatu zuen emaztearengana sentitzen zuen erresumin txiki hura, erabat desatsegina bestalde, desagertu egingo zela bakarrik egon bezain laster. Korrika hasi zenean zuzenagoa izan zen. Agur haiek luzatuz senarra bakarrik joaten uzteak sortzen zion damua erakusten zuen eta Aghios jaunak pentsatu zuen: «Zein zintzoa den! Ez nau inolaz ere maite baina aldarean eman zuen hitzari eutsi nahi dio azkeneraino. Samindu egiten da egin beharko lukeena egiteko gauza ez delako. Nahigabe handia harentzat eta benetan gogaikarria niretzat!».

Baina zergatik sentitzen zen Aghios jauna hain pozik eta esperantzaz beteta azkenik bere legezko emaztea uzteko unean? Parranda egin eta bere ile urdinxeak desohoratuz andreen atzetik korrika ibiltzeko asmoa zuen akaso?

Ezin zen halakorik esan. Agure batek ez daki korrika egiten eta, gainera, Aghios jauna ez zen andreen atzetik korrika ibili gaztetan ere. Egia da bere poz eta esperantzetatik ez zegoela andrea erabat baztertzerik. Hain ziren beteak poz eta esperantza horiek ezen, andrea —andre

ideala, agian zango eta ahorik gabekoa— ezin baitzen kanpo egon. Itzalean zegoen, beste mamu askorekin nahasita; mamu horien parte garrantzitsu bat zen. Baina desiretako andrea ez da beti berdina. Egia da ezer baino lehen maitasunerako balio duela, baina, bestalde, babestea eta salbatzea nahi izaten da maiz. Animalia eder bat da, baina ahula ere bai, eta ahal bada, laztandu egiten da eta, ezin bada, laztandu egiten da halaber.

Aghios jaunak bizi nahi zuen eta horregatik bidaiatzen zuen bakarrik. Zahar sentitzen zen eta are zaharrago emazte zahar eta seme gazte haien ondoan. Emaztearen besotik helduta joaten zenean, ibilera astiroagotu behar izaten zuen eta semearen ondoan ibiltzen zenean, berriz, horrek astiroagotu behar izaten zuela sentitzen zuen. Errespetu handiz tratatzen zuten. Gaixo egon zenetik, emazteak erizainarena egiteko ohiturari eutsi zion eta horrek gizonezkoak izan zezakeen zaldun-sena amatatzen zuen. Bestalde, semeak errespetu handia zion aitari, baina eztabaidatu eta zuzendu egiten zion berak, bere fantasiasukartsuaren eraginez, inongo zientzia-

tan oinarritzen ez zen etimologiaren bat asmatu edo hainbat gertakizun historiko nahastu edo itxuragabetzen zituenean. Mutilak, aldiz, nahiz eta batxilergo-ikasketak kostata bukatu, latina eta grekoa gogoratzen zituen, Aghios jaunak sekula ikasi ez zituen hizkuntza haiek eta, berak emazteak bezala, ondotxo zekien zer zekien. Eta ez da inondik ere erosoak oker dabilen aita izatea.

Baina ez zen hori bakarrik, ez, nahiz eta Aghios jaunarentzat nahikoa garrantzitsua izan bere zahartzaroko urteetan erabat bakean utz zezaten; erabat bakean, hots, bere ezjakintasuna ere barne, zeren hain antzinakoa zenez, bere bizitzaren oinarria izatera iritsi baitzen.

Aghios jaunak zahartzaroari egozten zion izan zezakeen edozein ondoez baina, aldi berean, haren parte baten errua familiarena zela pentsatzen zuen. Egia zen ez zuela bere burua sekula orain bezain zahar ikusi, baina sekula ez zen sentitu, zahar izateaz gainera, herdoilduta. Eta herdoila, zalantzarik gabe, familatik zetorren, giro hertsitik, hor sortzen baitira lizuna eta herdoila. Nola ez herdoildu hainbeste ohikeriaren erdian? Egunero ikusten zituen aurpegi

berak, hitz berak entzuten zituen, ardura berak izatera behartuta zegoen eta, orobat, itxura berak egin behar zituen; izan ere, berak egunerok laztantzen zuen emaztea, egiazki ez baitzuen gutxiagorik merezi. Familian izaten den ziurtasunak ere loarazi, sorgortu eta paralisira bultzatzen du.

Indartsuago sentituko ote zen kanpoan, familiararen babesetik urrun? Bidaia labur hura esperimentua izango zen, zeren negozioek beste bidaia batzuetarako aitzakiak eskainiko baitzizkioten. Jakina, ez zuen espero hogeitaz urte lehenago, Londresen, orduan ama gaztea zen emaztea gabe, hilabete batzuk igaro zitueneko azken bidaian bezain bizirik sentitzerik.

Orduan, bakardadea zela eta, izugarri sufritu zuen. Inguruan sentitzen zituen mesfidantza eta axolagabetasunak ezinegon haserrekorra sortu zioten. Inbidiaz eta desiraz begiratzen zion bera baztertu eta inguratzen zuen bizitza hari. Behin batean, hoteleko salan, bakardadean irakurtzeari ekin zion hamar bat urteko mutiko potxolo bat inguratu eta hitz egiten hasi zitzaionean, baina jakina, ez zion ezer ulertzen zeren haurren inge-

lesa oso zaila baita. Azkenean lagun bat aurkitu izanak Aghios jauna hunkitu egin zuen. Hari hitz egin eta bazirudien ulertu egiten ziola, zeren askoz ere hitz gehiagorekin erantzun baitzion. Tamalez, denak ingelesez! Eta harengana inguratzearren, hitzak ezertarako ez zutela balio ikusita, Aghios jaunak ile horia ferekatu zion. Baina orduan salako atean semea arrotz batekin tratutan ikusteaz haserre zirudien gizon bat agertu zen: «*Philip! Come along!*» esan, eta mutikoa berehala urrundu zen, fidagarria iruditu zitzaion eta, harengandik nolako premia urruntzen zuten ikusita, arriskugarria gerta zitekeen pertsonari begirada ikarati bat bota ondoren.

Eta bakardadeak sortutako atsekabeak negozioei ere kalte egin zien, zeren Aghios jaunak etsaitzat hartzen baitzituen bere bezero guztiak. Baina zerbait okerragoa gertatu zen, zeren Aghios jaun gartxu eta bertutetsuak, adorea hartzeko, absentaz baliatu baitzen, adiskidetasuna eta solasaldiak ondo baino hobeto ordezkatzeko dituen edari bat. Ez zuen gehiegi edaten, baina bai zenbait nerbio-arazo sortzeko beste; herriratzear, beste edozein estimulu azaleko bihurtu

zuen famili girora zoriontsu itzuli zenean, amaitu egin ziren arazoak.

Baina oroitzen den atsekabea gero ez da beti atsekabe. Orain bizitasun hura sentitzen zuen. Ezinegon eta atsekabe hura guztia berpiztu ahal izango balu! A zein eraberritzailea izango litzatekeen! Bizitza ahalegina, erresumina eta poz-itxaropena baizik ezin da izan. Lagun gehiegik inguratzen zuten eta, noizik behin nahigaberen bat sortzen bazioten ere, ez zioten benetako bihurrialdirako aukerarik uzten. Ezezagunen, edota agian etsaien, artean bizitzeko beharra zuen. Harrituta oroitzen zen Britainia Handian izan zuen bihurrialdi hartaz. Inperio handiari eraso ahal izateko arazo politiko eta ekonomikoak aztertzen aritu zen, haren antolaketa nahikoa perfektua zelako, baina ez erabat perfektua, eta ez zelako perfekziora iristeko egin behar zen ahalegin txikia egiteko gauza. Eta itxaropen garaienek suspertu zuten Italiarako itzulera-bidaia. Ekipajearen barruan, beste gauzen artean, Londresko eremu harritsu batetik hurbil jasotako lur-eskukada batzuk zekartzan fardel-txo batean bildurik. Inork ez zuen Aghios jaunak

bustita gordetzen zuen fardeltxo haren berri, Chiassoko aduanako funtzionarioak salbu, hori bidaiaria geldiarazi eta lur hura aztertzeraz eramateko zorian egon baitzen. Gobernuak ordaindutako urlia hura Italiaren patua oztopatzeko zorian egon zen! Aghios jaunak samurtasunez beteriko irribarrea egin zuen bere tolesgabetasuna gogoratzean. Tolesgabetasuna ere bizitza da; areago, bizitzaren benetako oinarri fresko eta usaintsua da. Adierazi beharra dago norbaiten esan ziola Aghios jaunari, Darwinen arabera, Britainia Handiko harkaitza zizare mikroskopiko baten eraginez bihurtu zela lur emankor. Aski izan zuen hori bere herrian ere zizareak lan geldoa egin zezakeela espero izateko. Lur-eskukada hura Italiako lur-sail karstiko batean barreiatu eta alai eta harro sentitu zen. Ez zitzaion axola bere izenik ez gogoratzea handik mende batzuetara Italiako lur-zorutik harkaitzak desagertzen zirenean. Horren sentimendu garaietara iristen zen inor bakardadean! Orain, irribarre egiten zion bere buruari. Denbora gehiegi zeraman familiartean bizitzen iraganeko bere handitasuna ulertu ahal izateko. Familia errezela zen eta

haren atzean ezkutatzen zen babesean eta inguruko guztiaz ahaztuta bizitzeko. Orain, berriz, ahitu egiten zen esperantzaz gainezka. Ziurrenik desilusioan amaituko zen froga bat zen oraingoa. Eta tira, pozik horrela balitz! Ez zen ezer galduko. Errezela haren atzean erditzalean bizitzera itzuliko zen, babestuta, seguru, baina hil zorian dagoenaren gisa etsita. Horrelaxe! Hil zorian daudenen antzera. Iristear dagoen jomugak itsutzen ditu eta ihes egiten dien bizitzari eusteko ahalegina besterik ez dakite egiten; ez dira beste ezer ikusi, sentitu edo ospatzeko gauza, kontzentratuak baitaude hain zail bihurtu diren arnas hartze eta liseritze lanetan.

Irteteko ordu laurden eskas falta zen eta Aghios jaunak ibilera astiroagotu zuen. Agian, emaztearengandik urruntzeko presa handiegia erakutsi zuen eta min ematen zion hura nahigabetu izanak, zeren hark dena merezi baitzuen, errespetua ere barne.

Fox-terrier txiki bat inguratu zitzaion balantzaka oinak usnatzera. «Hemen al zara, adiskidea?» pentsatu zuen agureak. Jakina ez zela Milanen ikusten zuen lehen zakurra, baina bai

bakarrik zegoenetik inguratzen zitzaion lehena. Eta samurtasunez begiratu zion, txakurak atzera egin —jabearen bila ziurrenik— eta, ikara sortu zion hari azken begirada luzatuz, ihes egi-
ten zuen bitartean, belarri gazte bigunak buruan
itsatsita zituela. Agureak, liluratuta, urruntzen
ikusi zuen. Lauoinka ibiltzea beti da bi oinka ibil-
tzea baino xaloagoa. Oraindik gaizki moldatuta-
ko lau zangoen mugimendu haiekin jauzika zein
miaketan zebilen txakurtxo gazte haren ibilera
xalotasuna bera zen. Eta Aghios jaunak, bihotza
estuturik, aberetxo zuria zer arrisku larrian zego-
en pentsatu zuen. «Kontuz ibili zakurtzainekin».

Zakurak, zein lagun handiak diren bidaztia-
rentzat! Ingalaterrakoek ere gureen antza dute
eta gure herriaren zati bat ekartzen digute. Ez
dira gureak baino heziagoak, gureak bezalaxe
kaleko txerrikeria guztietan kuxkuxean ibiltzen
dira, muturluzeak, zaratatsuak, obeditzaileak
makila ezagutuz gero, eta maitekorrak dira, eta
beti ere harrituta gelditzen dira maite dituenak
ez dielako uzten aurpegia miazten. Hizkuntza
berberaz mintzo dira. Eta Aghios jaunak, bere
bakardadean, maitatu eta behatu egin zituen,

eta haien ezaugarriak eta arrazoiak deskubritu zituen. Guregandik erabat desberdinak dira, guk begiratu egiten baitugu eta haiek, aldiz, usnatu; arraroa da gu eta haien artean hain harreman intimoa sortzea, eta zorionez guretzat, zeren zakurrarentzat gaizki-ulertu batean oinarritzen baita. Agian, katua gehiagotan inguratzen zaigu gure antz handiagoa duelako eta hobeto ezagutzen gaituelako. Eta zakurrak, aldiz, bere zintzotasuna nagusi duen zentzumenari zor dio, usaimenari. Bere atzemateko moduak sinestarazten dio berehala suma daitekeela mundu honetako edozein traizio, ez duelako azal iruzurtirik ikusten, gauzen arima aztertzen duelako, usaina. Litekeena da usaimenak okertaraztea edo kira-tsa darien errugabeei kosk egitea, baina hark ez daki hori eta eragozpenak jartzen bazaizkio onartu egiten du, baina beti ere marmarka. Sarritan, goi-lege batek zigortu eta kateaz lotzen du eta, bere gogoz kontra, jasan egiten du; ohi-tuta dago. Baina ezin du ulertu nahita egindako traizioa, zeren uste baitu zentzumenarekin hura deskubritzeko gauza izango litzatekeela, eta areago haren jabea, ez bailitzateke jabe izango

berarenak baino zentzumen zorrotzagoak eduki-ko ez balitu.

Egiatia, beraz, usainen mundu hori. Baina badirudi errealitatetik gehiago urruntzen dela marra eta kolorezko bestea baino. Zakur koita-dua beti dabil erratuta gaizki informatuta bizi delako. Dena den, bada pairatu behar ez duen oinaze bat. Inon ez da arrotza. Haren zentzume-na soziablea da batez ere. Ustekabeko edozein topaketa berehala gertatzen da intimo eta sudur-rari parterik ezkutuenak ere eskaintzen zaizkio hark onar ditzan. Haiek arbuizatzea sekulako erreakzio bortitza eragin dezakeen okerkeria bat da. Hori da hori bizitza naturala eta ez gurea! Londresko anabasa zalapartatsuan pertsona bat gainditu beharreko oztopo bat besterik ez da. Eta zer egingo zaio bada? Aghios jauna talde-bizimoduaren diktadore izendatu izan balute ere, ez zuen ezezagunen arteko irribarrea inposatzen asmatuko. Izan ere, horrelako zerbait, inposatuz gero, keinu itsusi bihurtuko litzateke, besterik ez, eta sekula ez litzateke anaien arteko benetako agurra izango. Maitasuna ere nekea da eta inor ez da haren menpe jartzen arauak agin-

duta; benetako atsedena axolagabetasuna da. Usainek gobernatutako zakurrak sekula ez dira axolagabeak bizitzaren aurrean. Sekula ez dira garrantzirik ez duten arrotz soilak, beti dira adiskide edo etsai.

Tren bat ez da inondik ere gauza txiki bat, baina Aghios jaunak ez zuen berea aurkitzen. Geltokian, han nonbait, egongo zen hura aurkitzen lagunduko zion seinalea baina Aghios jaunak ez zuen ikusten. Eskuarki, emazteak gidatzen zuen. Aghios jaunak ezker-eskuinera begiratu zuen, baina alferrik. Berarengana hurbilduz zetorren morroi bat ikusi zuen. Eskerrak. Batere nekerik gabe berak eraman zezakeen maleta txikia eman eta trenari buruz galdetu zion. Aitzakia bat emateko beharra sentitu zuen: «Ez du askorik pisatzen, baina... zaharra naiz».

Lagun izateagatik hitz egin zion morroiari. Jada, behin-behineko lagunaren beharra sentitzen zuen, norberaren askatasuna kinkan jartzen ez duten horietako lagunaren beharra. Morroiak, gizon oihas eta trebea, irribarre egin eta dialektoz Aghios jaunak ulertu ez zuen zerbait murduskatu zuen. Eskerrak irribarre egin zuen! Aghios

jaunak, borondate onez eta ibilera azkarrez, bere aurretik eta maleta eskuan zuela, korrika batean zihoan lagunari jarraitu zion. Hari jarraitu eta jada maite zuen. Zein asmakizun ederra ziren eskupekoak! Batez ere, txikiak, min ematen ez duten horiek. Horrexegatik zen zuhur samarra, zeren batera asko ematen bazen, plazerra laburra gertatzen zen eta, gero, luze gertatzen zen bat moztuta. Emaztea eskuzabalagoa zen eta, diru-kopuru handi batez baizik ordaindu ez zitekeen zerbait gertatzen zenean, eman egiten zuen. Baina besteen gauzez baliatzeko modu bat zen hura, eta gero azalpenak eman beharra zegoen: «Zeuei zegokizuenaz baliatu naiz». Aghios jauna, aldiz, benetan eskuzabala, oso noizean behin izaten zen, emaztearen gustua egiteagatik, arrazoi berberagatik beste gauza asko egiten zituen bezala.

Bidaiatzerakoan lagunak egin beharra dago, zeren bestela, herri hau, benetan gure ama-lurra den hau, arrotz- -bekoskoarekin igarotzen dugu. Aghios jaunak benetako zuhurraren eskupeko txikiei etekina ateratzen zien; horiekin adiskidetasuna erosi nahi zuen, ez asko baina

bai ziurra. Horregatik ohi zena baino gutxiago ematen hasten zen. Gehienetan, bestiak ez zuen protestarik egiten, baina esku-ahur irekian zuen diru eskasari begira gelditzen zen, moztuta. Orduan, Aghios jaunak esku hartan aldiko txanpon bat jartzen zuen, esku hura itxi eta morroiaren aurpegian irribarre bat agertu arte. Horrela, berandu sortu zen irribarre hura Aghios jaunaren oroimenean geratzen zen eta arindu egiten zizkion bidaiaren zenbait milia. Batzuetan, eskupeko osoa ematen bukatu baino lehen, morroia nazkatu eta alde egiten zuen lotsagabekeriaren bat ahotan zuela. Aghios jauna, orduan, eskupekoa sakelan zuela joaten zen baina oraindik halako atsegin bat geratzen zitzaion zeren, izatekotan, etsai batengandik urruntzen baitzen, eta inoiz ez arrotz batengandik.

Eskailera batzuk jaitsi behar izan zituen eta, lur azpiko pasagune batetik igaro ondoren, nasara iritsi zen; han itxaron behar zion Turinetik oraindik iritsi ez zen trenari.

Morroiak ea berarekin gelditu behar zuen galdetu zion. Dialektoz hitz egin beharrarengatik izan ez balitz, Aghios jaunak azken ordura arte

atxiki izango zuen laguna bere ondoan. Baina, horrela izanik, agurtu eta esker oneko bestearen azken irribarreak argizatutako bakardadean geratu zen. Unetxo batez, begietara elkarri begira geratu ziren, elkarrekiko estimua azaltzeko puntuan. Eta Aghios jaunak, estimu hori areagotzearren, eskupekoari zigarro bat erantsi zion.

Jende asko zegoen nasan zain. Zutabe baten ondoan ekipaje pobre pilo bat zegoen, maleta itxi bakar bat eta sokaz lotutako bi otar; horietako bat zapi gorri batez estalita eta bestea, zapi berde hits batez. Maletaren gainean andre bat zegoen eserita, bularreko haur bat altzoan, eta otarretako baten gainean lo eta burua amaren saihetsean etzanik, hamar bat urteko neskatxo bat zegoen, hotzari aurre egiteko soinekotxo urratu bat jantzita.

«Atzerrira ote doaz?» pentsatu zuen Aghios jaunak. Gero, baserritar bat inguratzen zela ikusi zuen; erosi berriak zituen txartelei begira korrika zetorren. Andre gazteak lasaitu-hasperen bat egin zuen hura ikustean. Bazirudien ez zuela ondoegi pasa hain luzaro bakarrik geldituta.

Hainbeste familiarekin, hura ez zen bidaia bat. Hura emigrazioa zen, ihesa.

Gero, Aghios jaunak inguruko jendeari begiratzeari utzi zion eta, zenbait denboraz geltokitik kanpo zegoen tren-makina baten tximiniatik trin-ko irteten zen keari begira gelditu zitzaion lilurata. Haizeak bultza egiten zion. Tximiniatik lainotxotan ateratzen zen eta haizeak berehala txikiagotu eta sakabanatu egiten zituen. Ke-lainotxo bakoitzak, halako sarraskia jasateko unean, biluztu eta bere barruan buru bat, mutur bat, izaki bizi bat zuela erakusten zuen. Eta buru horrek, desegin baino lehen, begi neurrigabe batzuk irekitzen zituen hobeto ikusteko asmoz, eta hobeto ikusteko ahalegin horrexegatik erabat deseginik amaitzen zuen. Buru ikaratu eta mehatxarien ilara bat. «Bizitza-lerro gutxi batzuk aski dira bizitzaren mamia bera adierazteko, beldurra edo mehatxua» filosofatu zuen Aghios jaunak.

Trena bafaka sartu zen geltokian. Une hartan, Aghios jaunak emaztearen ahotsa entzun zuen deika: «Giacomo!».

Harengana jiratu eta, beharbada, ez zuen ezi-negon-keinua ezkutatzen asmatu. Merezi bezala maite zuen, baina urruntzea ez zen hura berri-kustea desirarazteko bezain luzea izan. Haren ahotsa entzutea aski izan zen gauza eta pertso-nenganantz sentitzen zuen baretasun lasai har-tatik erauzteko. Eta gainera, bidaia ezin zuela jada bakarrik egin esatera bazetorren? Berak, nolanahi ere, alde egingo zuen.

Andreak bere aldartea antzeman bide zuen, apur bat moztuta zera galdetu baitzion:

— Gogaiturik itzuli naizelako?

Eta atzera itzultzeko keinua egin zuen. Une garratza izan zen hura.

Hori bai ezetz, Aghios jaunak ezin zuen horre-lakorik onartu. Pentsatu, nahi zen guztia pentsa zitekeen mundu honetan, baina ez zegoen azal-du beharrik norberaren ariman gordeta zegoen bitartean hain eder eta zuzena zen eta, aldiz, eguzkiaren argitan hain iraingarria gerta zite-keen pentsamendu hura.

— Ez zaitut ezagutu eta! —esan zuen bereha-la.

Eta eskutik hartuz bereganantz ekarri zuen. Emazteak besarkadari ihes egin zion, zeren hain manera onekoa zenez, ezin baitzuen jendaurrean horrelakorik onartu. Baina benetan ari zela sinetsi zuen, eskuarki senarrari sinetsi egiten baitzion. Garai batean fede horrek zorioneko egiten zuen Aghios jauna. Azken garaian, aldiz, gogaitu egiten zuen. Bizitza gehiegi sinplifikatzeko modu bat besterik ez zen hori. Eta gainera, fede hori ere izoztuta zegoen jada, haien arteko harremana bezalatsu.

Irribarrez emazteak esan zion ez zitzaiola atzetik joan bera berriro ikusteko, baizik eta ahaztu egin zitzaiola esatea Luisi andreak eskatzen ziola Veneziako bitxi-saltzaileari esateko eskainitako perlazko lepokoa beretzat hartuko zuela eta egun gutxi barru arduratuko zela Luisi jauna hura ordaintzeaz.

Gero, beti ere irribarrez, galdetu zion:

— Gogoratzen duzu bularraldeko sakelan zer daukazun?

Aghiosek eskua sakelara eraman zuen azkar eta, puztuta topatzean, gogoratu egin zen:

— Ez kezkatu. Gogoan dut.

Baina oraingoan emazteak ez zion sinetsi, antzeman baitzion sakela ukitu behar izan zuela diru-kopuru handi bat zeramala gogoratzeko. Eta kezkatu egin zen, ez senarrarengatik, dirua-rengatik baizik.

— Gaizki egin dut zu bakarrik joaten uztean —eta zalantzaz beterik ingurura begiratu zuen. Hasperen egin zuen gero—. Tira! Ez dago astirik.

Biak zeuden pozik astirik ez zegoelako, baina Aghios jauna, gainera, haserre zegoen, ume bat bailitzan tratatzen zutelako.

— Dirua galduko dudala uste duzu ala? —galdetu zuen erretxinduta—. Ez nengoen adi, jakina, baina pentsatzen ari nintzelako ea Triesten gure kreditua berritzeko dirua merkeago lortzeko aukera dudan.

Eta hori esaten zuen bitartean, ke trinkoa botatzen jarraitzen zuen urrutiko tren-makinaren tximiniari begiratu zion berriz. Dagoeneko itxurarik gabeko kea besterik ez zen; ez bururik, ez mehatxurik, ez ikararik.

— Arduragabekeria hutsa da aldean hainbeste diru duzula bidaiatzea —esan zuen berriz ere

andreak, barkamena eskatzen zuen ahots gozo batez.

Bai, jakina, arduragabekeria zen. Bezperan txeke bat egitea pentsatu zuten, sakela hura ari-nagoa bihurtzearren besterik ez bazen ere. Baina alferkeriaz ez zen joan diruarekin banke-txera eta biharamunerako utzi zuen. Eta gainera, semearen hiru ikaskide etorri ziren hura ikuste-ra. Ikasketak amaitu zituztela eta etorkizunerako zituzten asmoak entzuten den-denaz ahaztu zen agurea. Ez zen ahoa irekitzera ausartu jakintsu haiek zuzenduko ote zioten beldur, baina oroi-tzen zen bera, eskola amaitu zuenean, askoz ere herabeti, zalantzati eta beldurtiago zela. Haieta-ko batek bazuen lana dagoeneko, baina ziur zegoen haren ekarpena aurrerapen bat izango zela sartuko zen lantegian. Bigarrena, bere gura-soek egindako ezer ez zuelarik, patxada osoan, emigratzeko prest zegoen. Italiak eskaini ezin zizkion gauza asko zituen zain. Hirugarrenak, aldiz, mesprezu handia zion politikari baina, hala ere, horretan iharduteko asmoa zuen. Oraindik ez zuen erabaki zein alderditan baina bazuen horretan pentsatzeko astirik. Bitartean, Gober-

nuko bulegoren batean sartuko zen. Eta agurea, mundua jada ez zela bera jaiotako hura pentsatzearekin aski ez eta arrazoia bi mundu haietako zeinek ote zuen erabakitzen liluratuta gelditu zen. Ez zegoen besterik! Bietako bat oker zebilen. Bazitekeen berak gehiegi ez jakitea, baina gazte zenean erakutsi zioten lurraren gainean ez zegoela denak asetzeko lain eta berak sinetsi, eta eskola amaituta, munduaren atean jo eta lotsatuta galdetu zuen: «Ba al da niretzako lekurik? Irabazi ahal izango dut?». Horrelakoa zen garai hartako mundua, munduan jende gutxi xeago zegoenekoa. Litekeena da mundua gero luzatu eta zabaldu izana? Eta agurea bere eserlekuan geldi geratu zen eta, hain mundu zailean jaio izanaren erresuminaren erresuminaz, txekea jasotzea ahaztu zitzaion.

— Tira! Orain ez dago astirik. Baina lasai, ez zaitez diruaz arduratu. Agur —eta azken musua eman zion. Emazteak masailan musu ematen utzi zion eta, aldi berean, berari masailan eman zion musu. Ingurura begiratu zuen hari emateko beste maitasun-keinuren baten bila. Horixe! Eskuineko eskua hartu eta ezpainetara eraman

zuen. Oso pozik zegoen aurkitu izanaz. Halako agurrak edertu egingo zuen aurrerantzeko bakardadea.

Bagoira igotzeko keinua egin zuen, morroiak lurrian utzitako maleta hartzea ahaztuta. Emazteak jaso eta eman egin zion barre-algaraka. Aitzakia gisa, Aghios jaunak esan zuen:

— Morroiak utzi du hor. Ez nuen trena topatzen eta...

Aghios andreak oraindik barrez:

— Eta nola moldatuko zara Triesteraino morroirik gabe?

Ala demontre! Azkenean haserre amaitu behar zuten. Aghios jaunak gogo txarrez:

— Zailena trena topatzea zen. Ez dut neuk gidatu behar.

Eta emazteak, beti ere barrez:

— Zorionez! —esan zuen.

Ez zegoen erantzun bat pentsatzeko astirik. Berehala esan ziezaiokeen hark ez zukeela trena gidatzen asmatuko, edo ez zela hain zaila trenbidea zegoelako edo, tira, maletak ez zeukala ezer garrantzizkorik barruan, baina ez zion ezer esan. Hobe zen azken irribarre bat egin eta bakean

alde egitea. Baina erresumina zuen barrenean eta gaizki zegoen. Balantzaka sartu zen bagoian. Zaila zen korridorean mugitzea baina, gazte-adorez eta maleta eskuan, lekua egin eta hurrengo leihatilaraino iritsi zen eta hura ireki. Trena une hartan ibiltzen hasi zen. Aghios jaunak emazteari deitu zion, bera desagertu zen atera oraindik begira baitzegoen, eta hark biziki erantzun. Nasa jadanik hutsik zegoen. Une batez begiak emaztearengandik urrundu zituen base-ritarren ekipajea egon zen lekura begiratzeko. Ekipajerik ez zegoen eta batek daki zenbat neke kosta ote zitzaien hura trenera igotzea. Begirada emaztearengana itzuli zuen gero; hark zapia poltsikotik atera eta agur egiten zion. Musu batez erantzun zion. Hurbiletik adinak apur bat higatua agertzen zen emaztearen figura dotore eta fina, orain, trenak mugitzerakoan haien artean jartzzen zuen distantziaren eraginez, benetan liraina agertzen zitzaion, brisararekin mugitzen zen oihal gorrixka hura buruan zuela. Eta bakardadeara abiatzen zelarik, irudi lirain hari begira zegoe-la gogoeta zorrotz eta benetako bat eduki nahi izan zuen eta pentsatu: «Zenbat eta urrunago,

orduan eta gehiago maite dut». Gero kontzientzia lasai sentitu zuen. Oraingoz giza legearekin eta jainko-legearekin bakean zegoen, zeren berak emaztea benetan maite baitzuen.

Luzeago ikustearren leihorantz makurtu zen. Zer ikusten zuen? Emaztea eskua bihotzera eramaten ari zen keinu arranditsu bat eginez. Ez zen posible hark, hain pertsona orekatuak, arrotzen aurrean neurritz gaineko pena erakustea bakarrik uzten zuelako. Eta, gainera, bazirudien keinu arranditsu harekin batera oihu ere egiten ari zela.

Gero, jada ikusten ez zuenean, ohartu zen. Keinu harekin bularraldeko sakelan zeraman diruarekiko arretari buruzko azken aholkua egin nahi izan zion. Eskerrak! Irribarre egin zuen, eta esana betetzeko eta ikusten ez zuenean inoiz baino gehiago emaztea maite izanaren damua leuntzeko, bularraldeko sakela ukitu zuen indarrez. Kartera, milako hogeitamar biletez puztutako kartera, han zegoen oraindik.

2. MILAN-VERONA

Orain esertzeko leku bat lortu beharra zegoen. Ez zitzaion erraza agureari korridorean barrena mugitzea trena abiada bizian eta jauzika zihoan bitartean, eta zenbait bihurgune halako moduz hartzen zituen ezen, gorputzari alde batera zein bestera zabuka ibiltzeko tentazioa sortzen baitzion. Ausarki, Aghios jauna hurrengo konpartimentura abiatu zen ezker-eskuinera barkamena eskatuz. Eta hortxe zuen bere lehen amodio-afera. Neskata lirain bat ahal bezain beste alboratu zen lekua uzteko, eta Aghios jaunak aitarena izan nahi zuen irribarre batez begiratu zion baina, aldi berean, pentsatu zuen ez zitzaiola batere axola izango hango nahaste-borrasteak bere gainera botako balu. Baina trenaren mugimenduak, nahita bezala, bestaldeko paretaren kontra iltzatu zuen. Irribarre egiten jarraitu zuen, segurtasunik gabeko gizon handi hura gainera etorriko zitzaion beldur balitz bezala andereñoak begi urdin handi batzuekin estuasunez begiratzen zion bitartean. Moralaren zer-

bitzuan jarri ziren indar fisiko itsuei irribarre eginenez aurrera egin eta urrundu behar izan zuen. Beste askotan ere, eta honakoan bezain modu itsuan, gizon eta andreen plazerrari lagundu zioten, ipuin zahar hartan bezala. Elur-jausi batek bi maitale utzi zituen janariz betetako haitzulo batean itxita. Udaberrian izan zen ezustea, haitzuloan hiru izaki eta ez bi aurkitu zituztenean. Ezinezkoa! Gauza horiek gertatzeko bederatzi hilabete behar dira.

Aukeratu zuen konpartimentura iritsi zen, baina lepo zegoen. Areago, alde batean, bost ere eserita baitzeuden. Bost horien artean andre bat zegoen, airosa baina ez ederra, kopeta eta hein batean begiak estaltzen dituen kapela horietako bat jantzita. Apur bat luzatuak zituen zangoak zetazko galtzerdiz jantziak zeuden eta ointxo txikiak txarol beltzezko zapatak zeramatzaten. Aghios jauna, korridoreko jendetzatik ihesi, konpartimentuaren erdian jarri zen ekipajearentzako sareari eusten zion burdinazko barrari heltzea lortuz eta ezin izan zion andreari ondoegi erreparatu zutik irauten nahikoa lan baitzuen. Baina eragozpenak ez zion pentsatzea galarazi,

andreen burua, kopeta eta begiak estaltzen zituzten kapela haiek gogaikarriak zirela pentsatzea, alegia. Moda gehiengoak egiten du eta, ondorioz, pentsatu beharko da andre gehienek zangoak ondo eginak dituztela eta burua gaizki. Geroxeago, trenaren mugimenduak andrearen aldera jirarazi zuen eta ohartu zen bere esan gabeko desirari amore eman eta kapela kendu eta orain altzoan zeramala. Aurpegia ez zen ederra, baina ziurrenik noizbait izan zen. Zizel gogor batek egindako lerro zorrotzek luze bihurtzen zuten bizitzak aldatu eta akitutako aurpegi hura. Artistikoki kizkurtutako adats beltzak belarriak estaltzen zizkion. Baina ointxo polita zen, txarolezko zapata txikia baino txikiagoa.

Mutiko bat (eserleku hartako bosgarrena) altxa eta agureari lekua eskaini zion.

— Eskerrik asko! Baina ez, inolaz ere ez — esan zuen Aghios jaunak—. Hementxe ondo nago.

— Ni korridorera noa —esan zuen mutikoak.

Ez zion irribarrerik ere egin hain adeitsu mintzatzen zen agureari. Eta irteterakoan garaiz

erretiratzerik izan ez zuen andrearen oina zapaldu zuen.

Aghios jauna leihatilaren ondoan libre geratu zen leku urrian eseri zen. Tamalgarria zen mutilak (garaia, beltzarana, baldarra) bere eskaintzari hitz gozorik ez erantsi izatea. Bidaiaren hasiera ederra zatekeen! Hala ere ez zuen kexatzerik, zeren bere gorputzadar zaharrentzat bidaia hura zutik egitea ez baitzen egokia izango.

Aghios jauna eserlekuan erori bezala geratu zen tarte batean, aurpegia leihatilarantz jiratuta, izan ere, ez baitzion trabarik egin nahi oraindik begiratu ere egin ez zuen alboko lagunari.

Hasieran bagoi hartako bizitza eta mutil ongi-le baldarra izan zituen buruan. Baina zenbait egoeratan nekeza da borondate ona izatea. Askoz hobeto bazegoen ere, orain leihatilan itsatsita egotera behartzen zion alboko lagunarengana halako ezinikusia sentitzen zuen. Jendea bere tripa, bizkar zabal eta belaun gogorrekin hurkoarentzat pizti gorrotagarri bihurtzen den une horietako bat zen. Ankerra da espazioaren aldeko borroka. Aghiosek ez zuen bere alaitasuna galdu nahi izan eta bere borondate ona lokar-

tzen jarri zuen erabat birrinduta gerta ez zedin. Gizon eta andre talde garatuago bat garraiatuko lukeen etorkizuneko trena behar bezain beste luzatu ahal izango litzateke, hori egiteko gelditu behar izan gabe. Bagoi bakoitzak aukera anitz izango lituzke. Botoi bat sakatu eta eserlekuak ugalduko lirateke. Eta horrela Trenbide- -Sare Nazionalak zaldunak sortuko lituzke eta ez, orain bezala, pertsona zitalak eta ez litzateke irribarrez onartu beharko zakarki eskainitako eserleku bat.

Sudurra kristaletan zuela, Aghios jaunak, azkenean, atzean geratzen ziren soro-zelaiak ikusi zituen. Uzta amaitua zen. Tente ikusten ziren meta itzelak, hain dieta xumea behar duten animalientzako urte guztirako janari. Soroak egonean zeuden lan berriaren zain. Eta Aghios jaunak pentsatu zuen uzta eder bat opaziteko garaiz iristen zela. Orain erabakitzen zen hurrengo urteko zortea. Eurite eder bat behar zen lehenbailehen, lurra bigun eta lanerako prest utzi ondoren atertuko zuena. Puntu-puntu jarri behar zen lurra: ez gogorregi, ez samurregi. Eta Aghios jaunaren desirak oparo isurtzen

ziren, lur haien ondotik hirurogei kilometro orduko abiaduraz igarotzen zen bitartean eta, halako batean ahalegin handia eginez jiratu egin zen, ez oraindik han egongo zen andrearen ointxoak ikus-tearren, ez, baizik eta trenbidearen bestaldeko soroei ere bere desirak opatu ahal izateko: «Eman, eman oparo, lantzen zaituztenak bere saria izan dezan». Zalantzan geratu zen gero. Oroitu egin zen aurreko urtean baserritar batek goibel esan zionaz: «Aurten ardoa triste dauka-gu, sobera dago eta». Eta zer? Desira ederrak izatea beharrezkoa da mundu honetan. Inork ezin dio pertsonari birrikak eta bihotza zabaltzen dizkion eskubide hori ukatu. Egia da desira ede-rrek jokoa uzterakoan mahaian geratzen direnei zorte ona opatzen dienaren ironia oroitarazten dutela azkenean, baina mundu honetan gauzak ez dira hain argiak eta beti uste izaten da lur oparoak onura baizik ezin dezakela eman.

Eserlekuan zutitu eta airean zebilen ointxoak ikusi zuen. Bere aldean eseritako hirugarren per-sona zen eta ezin zion aurpegi osoa ikusi, baina ohartu zen aurreko argazkia estaltzen zuen kris-talean modu berezi batean isladatuta ikus zeza-

keela. Zein polita zen! Arratsaren isladak edo, agian, kristalak estalitako argazkiaren lerroren batek haren nekea handitzen edo txikitzen zuelarik, aurpegi hura gogoeta eta edertasuna zen erabat. Erretratu famaturen bat gogorarazten zion, baina Aghios jaunak hainbeste ikusi zituen ezen, ezin baitzuen esan prezeski zein. Azken batean, erretratu bat besterik ez zen eta, gainera, ez zen hain antzekoa, baina Aghios jauna zoriontsu zen bidaia erretratua aurrean zuela egiteagatik.

Emaztea utzi eta igaro zen epe laburrean, horixe zen bere bigarren desira, beraz, bigarren traizioa eta baita bigarren bekatua ere. Andrea miresten den bakoitzean desira dago. Adimena edo atsekabea egozten zaizkio musukatu nahi liratekeen ezpain horiek mamitsuagoak gerta daitezen. Bekatua ez zitzaion astunegia. Inor hirurogei urtetara iristear dagoenean —hura zen behinik behin Aghios jaunaren esperientzia eta bere bakardadean orokortzea maite zuen— jakina da gorputza ez daukala neke askotarako. Bekatua zilegi bihurtuko balute ere, bizitzaren garai horretan aurrekoetan baino askoz gutxia-

gotan egingo genuke bekatu: horrek frogatzen du dena gaitasunaren eta betebeharraren menpe dagoela. Eta Aghios jauna oso gogoeta filosofikora iritsi zen: gure Jainko Jaunak Berak nahi duen bezalaxe jokatzeko sortu izan bagintu, kreazioak ez luke inongo zentzurik. Hark egin gintuen eta gero, jakinminez, eta inolaz ere ez haserrez, begiratzera gelditu zen. Horregatik Aghios jaunak besteen emazteak desiratzen zituen inolako damurik gabe.

Aitzitik, harrotu egiten zen, desira hori izanagatik ere, ez zuelako sekula emaztea traizionatu. Zein jator jokatu zuen, horrelakoa izan eta benetan hura traizionatu gabe. Familia haserre samar utzi zuen une honetan, apur bat ergela izan zela onartzen zuen. Baina andrea —Aghios jaunak bazekien hori— ez da sekula tratu ona. Dirua, bihotza, bizitza nahi ditu. Aldiz, hari begiratu eta desiratzea ez da ezer kostatzen, eta hori egiazki tratu onegia da. Zeren andreak, ederra bada, berehala asko ematen baitie eta, ezer baino lehen, pertsona izatearen sentimendua etxekoei nola kanpotarrei. Zein desberdina hori eta ezezagunen arteko tximino-agurra! Beharrezkoa da

hainbat hilabetez hizkuntza ulergaitz bat mintzatzen den herri batean isolatuta egotea, ingurukoek baztertuta inork ezagutzen ez zaituelako eta, hain zuzen horregatik, lapurretak eta hilketak egiteko gauza zaren susmoa dutelako. Aski da orduan begi bizi eta ointxo urduri batzuk, adats baten orrazkera eta kolorea ikustea pertsona horiekin guztiekin daukazu harreman estuaz ohartzeko, herri hartako kide eta biztanle izateko daukazu eskubideaz ohartzeko. Gazteagoa orduan, bere lehen begirada harreman sozial baten benetako hasiera izaten zen. Hasiera gartsua: adiskide min baten etxean sartzea bezala, zeinak gure ohoretan apaindu eta atean «ongi etorri» txartel bat baitu. Begirada haren bidez Aghios jaunak zera esaten zuen: «Ezagutzen zaitut ederra zarelako». Eta ingeles neskatxoak erabat ulergarria zen hizkuntza batean, alegia, begirada batekin erantzuten: «Zein atsegina zaren, hain gustuko nauzun hori. Dena eman eta horrekin zer egin ez dakien hura baino atsegina goa». Horrelako elkarrizketa baten ondoren Aghios jaunak ez zuen jada absentaren beharrik,

denak elkar ulertzen eta maite duten lurralde idealean zegoela iruditzen baitzitzaion.

Aldi berean, neskata ingelesak beste hizkuntzarik ez ezagutzea eroso gertatzen zen. Orduko Aghios jaunaren arabera —gazteagoa eta, ondorioz, bertutetsuagoa zeneko Aghios jauna— hori abantaila handia zen. Zeren begiradei hitzak jarraitu izan balie, kolpe batez lurralde idealetik basorik arriskutsuenera igarotzeko arriskua baitzegoen.

Eta, horrela, sinetsi egiten zuen emaztearen begirada garbia jasan zezakeen monogamo bertutetsua izaten jarraitzen zuela. Emazteak ez zuen zerikusirik haren mundu idealarekin. Errealak, aldiz, emaztearena zen erabat. Bereizketa ederki egin zegoen, hura ez baitzen sekula ametsetan sartu eta, are gutxiago orain, bidaian, hegan ari zenean trena hegazkin bihurtu balitz bezala. Behin bakarrik gogoratu zen hartaz: «Gajoa! Espero dut dagoeneko hura ere ez gogoratzea nitaz».

Andre hartaz gainera beste zazpi gizon zeuden konpartimentuan eta Aghios jaunak ez zituen oraindik ikusi ere egin. Albokoaz bai, kon-

turatu behar izan zuen. Mutil gazte zurbil bat zen eta edonork pentsa zezakeen gaixotasun batetik aterata berria zela, zeren sufrimendua igartzen baitzitzaien baina, aldi berean, haren gorputzak gizon sendoa, arin eta osasuntsu batena zirudien. Ez zuen aski zegoen lekuarekin. Zango bat zein bestea luzatzen zuen aurrez aurre zuen gizon lodikote baten eserlekuaren azpitik eta horrek betaurrekoetan barna begiratzen zion lasai, enbarazu egiten ez zioten bitartean zango haiek ez geldiaraztea erabaki izan balu bezala. Ostikoka bukatu nahi balute bezala aurreratu egiten ziren eta, gero, bi zango lodien artean pasatzen ziren haiek ukitu ere egin gabe. Eta gizon lodikoteak (oraintxe ikusten zuen Aghios jaunak lehen-dabizikoz) lodiera ikaragarria zuten betaurreko batzuk zeramatzan. Argia hautsi egiten zen haietan eta betazaletan orban urdin argi bat sortzen zioten haren aurpegiari operetako Mefistofeles baten itxura emanez. Eta kexatu ahal izateko ostikoaren zain zegoen gizon lasai haren eta urduri eta oinazeak jotako bestearen artean, Aghios jaunaren sinpatiek gaixoa aukeratu zuten. Mugimendua gorputz saminduaren lasai-

garria da; jarreraz aldatzen da oinazeari ihes egin nahiko balitzaio bezala. Orain mutikoa beste alde baterantz mugitzen saiatu zen, agian, alde hartatik betaurreko lodi haien eta beren distiraren mehatxua sentitu zuelako. Atzean zuen kuxin bigunari begiratu zion burua han jarri nahi izango baitzuen, baina ezin zuen Aghios jaunaren bizkar handiek eragozten ziotelako. Eta Aghios jaunak gogo hura hitzez adierazia izan balitzaio bezala ulertu zuen eta estutu eta jiratu egin zen buru akitu hura kuxinera irits zedin. Eta gero, supituki, esan zuen:

— Itxaron, itxaron, honela jarriko naiz!

Aurpegia leihatilan jarri zuen eta bularra harekiko paraleloan. Besteak, berehala «eskerrik asko» gartsu bat xuxurlatu ondoren, burua kuxinaren gainean jausten utzi zuen. Handik gutxira esku artean jarri zuen, besoak belaunetan jarrita. Baina Aghios jaunak, sudurra leihatilan zuela, ez zuen jada ikusten, zeren bere ekintza adeitsu bakoitzak biziagoa bihurtzen baitzuen bidaia alai baten ideia, trena goxoago eta, aldi berean, indartsuago ibiltzen hasi bailitzan.

Baina gogoeta hura ere ez zen oraindik nahiko askea, zeren hurkoaren emaztea maitatzeko inork duen askatasuna eztabaidatzen jarraitzen baitzuen. Norekin ari zen? Ez emaztearekin behintzat, hark ez baitzuen ahorik irekitzen bere ametsetan, ez, baizik eta izaki zehaztezin harekin: hor nonbait, agian nonahi omen dagoen eterrean, egon behar duen eta, hala ere, ezein lege moralen aurrekoa den izaki harekin.

Egun zientziak egiaztaturik zuen agureek gizon gazteek baino beharrezkoago dituztela andre gazte eta ederrak. Jakina, lege moral zaharra gainditurik, behar hori konplutua izan zedin beste oztopo bat zegoen: andre gazte eta ederrei ere beren buruaz nahi dutena egiteko askatasuna eman zaiela. Bidegabekeria izan zitekeen, zeren gaztetasuna eta edertasuna direla medio ez baitaude askatasunerako trebatuta. Objektu preziatuegiak izanik, urrea bera baino modu bidegabeagoan banatzen zituzten. Pomadaz ongi igurtzitako bibote batekin ere bereganatu zitezkeen. Agureei oso gutxitan baino ez zitzaien ematen: gerontomania. Baina Woronoff eta Stirnach-ek adierazten zuten hori

egiaztatzen bazen? Alegia, gorputz zaharren oroimena, bizkortasuna eta bizitza sustatzeko beharrezkoa izango litzatekeela neskatxa eder bat, edo hobeto esanda, neskatxa eder bat astero. Judu zaharrek ere horrela pentsatzen zuten eta, Dabid erregea bizirik mantentzeko, neskatxa eder bat eskaini zioten. Baina hark ez zuen ukitu nahi izan eta ezinbestez hil egin zen.

Zuzen jokatu nahi zuen eta, zuzentasunean pentsatu ahala, emaztearengan pentsatu zuen berriro. Hura ere, aurpegi oraindik fresko eta arratsaldeko brisaran mugitzen zen oihal gorri hura jantzita, Milango nasan zuen itxura xarmangarri harekin, bizitza apur bat eman eta jaso zezakeen beste norbaitekin (ez berarekin). Eta, aitzitik, Aghios jauna baino okerrago zahartzen ari zen, falta baitzitzaion berak aldiz zuen pentsamendu-askatasuna. Gajoa! Ez zen baina bere zeregina pentsamendu-askatasun hura ematea. Alderantziz, esan zitekeen berak ahalegin handienak egin zituela hura eragozteko. Ezkonberri-tako bere morala zinez gogorra eta larderiatsua zen. Nola damutzen zitzaion orain! Ez zaio inori errietarik egin behar, damua baitator gero. Bes-

tea isildu egiten da eta hori gaizki dago. Amore ematen du edo moldatu egiten da gure gogo lar-deriatsuaren arabera eta are okerragoa da. Baina emaztearen pentsamendua berea bezain librea balitz? Gerta zitekeen hark berea somatzen ez zuen bezala, berak ere harena ez somatzea. Litekeena zen emazteak erabat inozotzat hartu eta, ondorioz, bizigabe eta hotz ikustea? Semeari zer edo zer erakutsi ahal izan balio, hobeto esanda, semeak berak zer edo zer erakutsi ziezaion onartu izan balu, emaztea hartu bezain laster gomendatuko zion: «Ez iezaiozu gauza gehiegirik erakutsi zure emazteari eta ez ezazu zeure antzeko egin. Gerta liteke gauzak zuk nahi bezala izatea».

Semeak, begirunea ere adieraz zezakeen begirada hotz harekin begiratu, eta pentsatuko zuen: «Zein handiusteak diren zahar hauek! Denok haiek bezalakoak garela uste dute eta denoi eurentzat erabiltzen dituzten purga berak gomendatzen dizkigute». Inoiz antzeko zerbait esan zion eta okerrera zen orduan arrazoi izan zuela. Behin izan zen eta kito, baina agureak

arrazoiak zituen sarritan berdin pentsatuko zuela uste izateko.

Hara berriz ere erresumina! Tren hartan ez zeukan lekurik eta emazte eta semearen mamuak uxatu zituen. Bere bizitza egin nahi zuen, hots, bere bidaia.

Trena garrantzi gutxiko geltoki batean geratu zen baina, antza zenez, eraikina bestaldean zegoen. Bere aldean, belardian, txito mordo bat zegoen, eta lurra aztakatzen ari ziren trena beren etxe ondoan geratu berria zela ia konturatu gabe. «Zein jakintsuak diren! —pentsatu zuen Aghios jaunak—. Ordu finkoak dituen tren hau haien bizitzaren parte bat da. Beti bera dela pentsatuko dute». Gero ohartu zen pertsonen artean ere ez zegoela elkar aditzerik gauzak behar bezala azaldu ezean, emazteari eta biei gertatzen zitzaien bezala pentsamendu libre eta bikain baina ezkutu hari zegokionean, zeina senarrarena bezala emaztearena ere izan baitzitekeen. Eta, plazer handiz, aztertzen hasi zen zer pentsatuko ote zuten txitoek pertsonekin zuten harremanari buruz. Iruditu zitzaion belardiko txito haietako batek oihukatzen ziola: «Ai ene,

zer gertatuko ote litzateke gurekin pertsonak existituko ez balira!». Eta txitoa jabearen zintzotasunaz ziur egongo zen, jaki goxoz elikatzen baitzituen eta, zintzurra mozten zionean, lagun handitzat zuen pertsona hura erotu egin zela sinetsita alde egingo zuen mundu honetatik.

Bat-batean, askoz erosoago zegoela konturatu zen. Geltoki txiki hartan konpartimentua ia erabat hustu zen eta lau besterik ez ziren gelditzen. Mutiko zurbilak han jarraitzen zuen, eta egokiera hura aprobetxatu zuen Aghios jaunarengandik urrutien zegoen txokoan bildu eta zangoak luzatuz apur bat etzateko. Mutilaren aurrez aurre gizon bat zegoen: egunkari bat eskuratua zuen eta halako moduan zuen sudurra hartan sartuta ezen, Aghios jaunak ezin baitzion aurpegia ikusi. Aghios jaunaren pare-parean jarraitzen zuen hainbeste dioptriako betaurrekoak zeramatzan gizon lodikoteak ere.

Zegoen andre bakarra falta zen. Hura ere geltoki txikian zegoen jendartera bildua zen. Bilera hartan tente egon zen ointxo hura falta zelarik, gelditu ziren lau gizonak haien arteko

ezein harreman galdu zuten. Benetako arrotzak bihurtu ziren, txepel eta mutu.

Aghios jaunak *vis a vis* zuen gizonari begiratu zion. Ohartu zen gero, haren atzean ere argazki bat estaltzen zuen kristal bat zegoela, eta han bere burua ispilu batean bezain argi ikusten zuen. Arretaz aztertu zuen bere burua. Zaharra ezinbestean, kopeta altuegia eta bibote zabartua, aukeran arranditsuegia. Bibotea zulotan habia egiten duten animalien ezaugarria da (hori esan zuen bere seme lotsagabeak); zuloa estutzen dela ohartarazteko balio du eta, horrela, itotzeko arriskutik libratzen dira. «Pizti itxura daukat ala?» galdetu zion bere buruari, bere aurpegiaren nondik norakoak aztertzen zituen bitartean. Eta bere irudiak eta biek mesfidantzaz begiratu zioten elkarri. Horiek bai harreman errazak! Aurpegi bati begira zer adierazten duen ziur dakigun une bakarra zen. Hala ere, aurpegi hark hain polita ez delako lur jota dagoen pizti bibotetsu baten itxura zuen, eta osteria Aghios jaunari bularra harrotasunez puzten zitzaion: une hartan ohartu zen zein zen natura zabal guztian zegoen harreman estu bakarra. Zalantzak

zitzen baina. Eta hark ere huts egiten bazion? Eta muturra zimurtu zuen: bere aurpegiari egiten zion mesprezu-keinu bat, eta hark itzuli egin zion berehala.

Gizon lodikotea begira zeukan, bera ere fida-gaitz, kristalek handitutako begiekin.

— Uste dut —esan zuen musuzapia sakelatik atereaz bat— aurpegia idazmakinaren tintaz zikindu dudala.

Eta gorritu egin zen. Antza denez, lotsati bat zen.

— Ez, ez —esan zuen agureak, solaskideari betaurrekoetatik belarrietaraino zihoakion orban urdin distiratsuari begira—. Neure buruari begiratzen ari nintzaion kristal horretan. Itxura bitxia izaten dut nik bidaietan.

Gizon lodikoteak bizarra ondo moztuta zera-man baina haren sarriak ilundu egiten zizkion masailak. Gezurretan erantsi zuen:

— Ez daukazu orban-arrastorik aurpegian.

Gezurretan ari zen. Aski zen pertsonen artean hitz bakar bat esatea eta gezur bat esan behar izateko arriskua zegoen. Soilik ezezagunen artean bizi zitekeen egia. Argiaren errefrak-

zioaren arabera noraezean zebilelako musuza-
piak atxiki ezin zuen orban urdinska hura aurpe-
gi hartan zegoen baina, jakina, ezin esango zion
hori. Beraz, bidaietan ere galtzen zen norberaren
askatasuna. Gauza guztietan bezala, bidaietan
ere, hasiera da zatirik ederrena. Irtetean bizitza
betetzen duten arazo eta arazotxoen trabetatik
libre ikusten du batek bere burua. Une batez
libre arnasten da. Inoren euskarri ez da izan
behar eta inor ez da baten euskarri. Baina mere-
zigabeko lehen hitz atseginarekin (aurpegiko
orbana han zegoen!) mugimenduak galarazten
dituen euskarria agertzen da berriro. Laguntza
eman eta eskatu egiten da. «Ez du inork esango
morroi lodikote horren gustua egiteagatik hitz
egin dudarik horrela. Horrela hitz egin dut hobe-
to sentitzen naizelako gauza atseginak esaten
ditudanean».

Morroi lodikoteak ere gauza atsegin bat esan
zuen:

— Ez dakit zergatik diozun itxura bitxia duzu-
la. Ez dut nik ikusten, zinez. Benetan ez dut ikus-
ten.

Silabak pedanteriaz ahoskatzen zituen. Aghios jaunaren bizkarrari jartzen zitzaion beste euskarri bat zen. Asko sufritu zuen heziketa onak beste batentzat gezur batean oinarritutako euskarri bat asmatzera behartu zuenean. Orain, berriz, jasotzen zuen adeitasunak lasaitu egiten zuen. Lasaitu-hasperen batekin sartzen zen berriro jendearen partzuergoan, eta ez zen konturatzen euskarri hura ere gezur batean oinarritzen zela, baina hura ez zitzaion gogaikarria gertatu ez zuelako berak asmatu behar izan. Hala ere, gogoratu beharko luke unetxo bat lehenago aurpegia bibotetzar harekin erabat bitxia, piztiarena bailitzan ikusi zuela.

Eskerrak eman eta gogotik ekingo zion solasari konplimendu hura eskaini zionarekin. Baina ez zuen gairik aurkitu. Elkarri esan zizkioten lehen hitzak euren gorputzen zati bati buruzkoak izan ziren. Horrela jarraituz gero, zakurren antza izateko arriskua zegoen.

Aghios jaunak irrikaz begiratu zuen korridore-rantz, erretzen, berriketan eta barrez ari zen jendez gainezka baitzegoen oraindik. Apustu egingo zuen bere neskatxa begi urdina han zegoela;

bestela ez zen horrenbeste iskanbila egongo eta gizonak erdi hutsik zegoen konpartimentura esertzera etorriko ziren. Alferkeriagatik, irteteko gogoia izan arren, ez zen mugitu. Begiak atetik aldentzen ari zenean, konpartimentuaren beste aldeko muturrean elkarriketa bizi bat sortua zela ohartu zen. Mutiletako bat, gaixo zegoena, nekez zegoen atezuan bere solaskideari entzun ahal izateko eta haren aurpegi zargalak ahalegin desatsegin bat egitera behartuta dagoenaren itxura zeukan.

Besteak, berriz, oso pozik zirudien bere erre-tolika botatzeko aukera zuela eta. Gutxi gora-behera Aghiosen semearen adinekoa zen. Ileho-ria zen hura bezala eta bazuen Aghios jauna harritu zuen beste antzekotasun bat ere. Aghios jaunak semeari berriki entzun zion gauza berari buruz ari zen. Bidaia batean ere topa zitezkeen etxean enbarazu egiten ziguten lelo berak, zeren modak berdin hondatzen baititu etxeak zein trenak. Ikaslea nerbio-gaixotasunen jatorriari eta psikoanalisiaren bidezko osaketari buruz mintzo zen. Aghios jaunak hitz hauek besterik ez zituen entzun:

— Gaixotasunak lehen haurtzaroan jasanda-ko zauri moral batean du bere lehen jatorria eta ez sufritzearren, haren oroimena ezabatu egin dugu. Garrantzia izan dezan, zauria lehen haurtzaroan egina behar du izan.

Aghios jaunak hori guztia bazekien. Eta semeak, berak asmatua bailitzan, doktore baten plantarekin bota zionean, Aghios jaunak baietz esan zion otzan. Berak ere ikusten zuen hazten ari den gorputz bati egindako zauria haztearekin batera hedatu egiten zela. Gainera, haurraren ezjakintasuna zela eta, irainak garrantzi handia hartzen zuen. Baina, orain, bidaiaren askatasunean, Aghios jauna bihurritu egiten zen. Nola esan zitekeen halakorik? Zauri orok ematen zuen min eta zauri oro, behar beste denbora emanaz gero, pasmatu eta hedatu egiten zen. Bera ere, ia hirurogei urte zituela, ez al zen hurkoaren edozein irainekin eta berak zituen zantzak guztiekin nahigabetzen? Haragia, horrenbeste likidoz osatua, ez zen oso indartsua eta azken arnasaraino gurekin daramagun ezjakintasuna hain handia denez, bizitza pasatzen dugu inongo garrantzirik ez duten txikikeriei sekulako

garrantzia ematen eta astunak, larriak, ondoezaren eta gaixotasunaren jatorritzat sentitzen. Jakina, denbora behar da eta denborarik luzeena haurtzarotik heriotzara doan hori da. Horregatik dirudite haurtzaroko gorabeherak luzeenak eta horregatik gorabehera gaiztoak arriskutsuenak. Umetan txikiak dira eta handitu egiten dira helduak atsekabetzeko.

Mutikoak zera esaten jarraitu zuen:

— Bigarren gertaeraren bat erantsi dakioke geroago lehenengo hari eta areagotu, baina sekula ez du berezko garrantzirik izango.

Hartara iritsita eta nahiz eta sermoilariarengandik hain urruti egon, hori eta trenak egiten zuen zarata burrunbatsuak parte hartzea eragotzi ahal izango lioketen arrazoiak biak, Aghios jaunak bere protesta egiteari ekin zion. Semearen aurrean isildu egin zen, baina orain ez zegoen isilik egoteko arrazoirik. Bidaiaren askatasun handian zegoen.

Baina une hartan, oinazez zegoen mutilak, entzuteko ahaleginak egin ondoren, bere burua atzeko kuxinean erortzen utzi zuen, eta mintza-

tzen ari zen mutilarengandik urrunduz zera esan zuen:

— Herriko medikuarekin hitz egingo dut honetaz.

Nekatuta zegoen eta begiak estali zituen. Jarrera bortxatzeak zorabioa eragin zion.

Sermoilaria, une batez, harrituta eta irainduta gelditu zen. Eta Aghios jaunak barregurari eutsi behar izan zion. Halako gauzez herriko medikuarekin hitz egin? Sermoilaria ez zen medikua, jakina, eta beraz, uste zuen herriko mediku batek baino eskubide gehiago zuela zientziari buruz hitz egiteko.

Geroxeago mutila altxa, maleta hartu eta korridorera irten zen, hurrengo geltokian trenetik jaisteko prest. Trena gelditu zenean, Aghios jaunak jarraitu egin zion bi gauza ikustearren. Lehengo eta behin ikusi nahi zuen ea mutila benetan jaisten zen edo, besterik gabe, herriko mediku batek zokoratzea lortu zuen lekutik alde egin nahi zuen. Baina bai, benetan geltokitxo txiki batean jaitsi zen eta Aghios jaunak ikusi zuen poliki eta ziur nola mugitzen zen eta nola desagertzen zen horrela psikoanalisiaren zien-

tzia handia etxetxoaren ate batetik. Gero Aghios jaunak korridorean barrena begiratu zuen ea beso artean kasik izan zuen neskatxa begi urdin hura ikusten zuen. Ez zegoen han. Zer egiten zuten orduan gizon haiek guztiek zutik? Korridorean zegoenez, Aghios jaunak plantak egin nahi izan zituen eta zigarro bat piztu zuen helmugara iristeko zain zeuden gizon haien guztien erdian. Ez zuen haiekin hitz egiterik espero, korridorean kalean balego bezala sentitzen baitzen. Ez zegoen bere giroan, alegia, bere konpartimentuan. Leihatilatik begiratu eta atzean uzten zituzten telegrafo-zutoinak zenbatzen hasi zen. Gero, luzaro, zenbatzeari utzi zion eta konturatu zen pentsamendua erabat bakean uzteko gauza izan zela, ikusi gabe begira. Zutoinek eta soroek, edo bizitzaren zati batek, ikusiak edo sentituak izan gabe ihes egiten dute. Bere onera itzuli zenean, ez zen oroitzen tarte hartan pentsamenduaren edo oroimenaren mugimendu txikiena ere egon zenik, halako ezer gerta zitekeen zalantza egiten bazuen ere. Eta, agian, sentitu zuen bakeari ihes egitearren, Aghios jaunak honako epai trinkoarekin eutsi zion bere munduari: «Maite ez duen eta

maite ez duten agure bat izango nintzateke maite dudan eta maite nauen ni neu existituko ez banintz». Mundu hura, zeinera itzultzen baitzen, argitu behar zuen. Irribarre egin zuen, ez zuelako samintasunik sentitu. Gauzak horrela ziren eta, ondorioz, bere adinarentzat egokia zen egoera eroso bat gertatzen zen. Gero bere adierazpena zehaztu zuen: ezin esan zitekeen inor maite zuenik bereziki, baina bai bizitza osoa indar handiz maite zuela, jende, animalia eta landareak, gauza anonimoak oro eta horregatik maitagarriak. Areago, pertsonen artean andre ederrak ere egon ez balira, santu baten sosegua-rekin heriotzari itxaroteko gauza izango zen. Eta, zigarroa amaituta, eserlekura itzuli zen hasiberria zen bidaia labur hartan txertatutako bidaia luze bat amaitu duenaren irudipenarekin. Bidaiaz akiturik, lasaitasun-hasperen bat jaurti eta eseri egin zen.

Argi zegoen aurrez aurre zuen bidaiari hark elkarriketan hasi nahi zuela. Eskuan purutxo toskanar bat zuen eta betaurrekoek distirarazten zituzten begi handi haiekin erreguzko begiratu bat zuzendu zion:

— Zu korridorera irten zara erretzera eta, beste jaun horrek uzten didanez, izango al duzu nolabaiteko eragozpenik neure lekuan gelditzen banaiz purutxo hau erretzen?

Zein gauza handia den tabakoa! Batez ere ez erretzaileen konpartimentu batean. Hari esker, ezezagunen artean ere bizitza soziala has zitekeen, zakurren artean bezala, nahiz eta horren grinatsua ez izan.

Adeitasun beretsuz Aghios jaunak baimena eman eta, atseginago izatearren, hitzari ekintza erantsi nahi izan zion. Orduantxe erre zuela eta, gogo gehiegirik ez bazuen ere, sakelatik zigarro bat atera eta irribarrez esan zuen:

— Ni ere neure baimenaz baliatuko naiz.

Baina, gero, ez zituen pospoloak aurkitu. Berokiaren hiru sakeletan miatu behar izan zuen, jakaren hiruretan (ez lauretan, zeren bularraldekoa hain puztuta aurkitu zuenez, berehala oroitu baitzen han dirua zeramala), txalekoaren bietan eta galtzetako bietan. Bitartean gizon lodikotea berriro ere atsegina izan zen eta pospolo piztu bat luzatu zion.

Benetan hunkituta, Aghios jaunak eskerrak eman zizkion. Besteak irribarre egin zion, baina ez zion ezer erantzun, apur bat hezea bide zegoen bere zigarrotxoarekin arduratuta.

Baina, gero, elkarrizketa berpiztu egin zen zeren, Aghios jauna oroitu zenean emazteak beti esaten zuela andreek sakela gutxiegi eta gizonak gehiegi zituztela, barrez hasi eta haren azalpen bat eman behar izan baitzuen.

Bidelagun lodikoteak ere barre egin zuen baina, gogo gabe, atsegina izateagatik. Hala ere protesta egin zuen. Ez zegoen erabat ados esandakoarekin:

— Nik beti dakit zer daukadan sakeletako bakoitzean. Nire txartela ikusi nahi? Hona hemen. Ispilutxoa? Irakurtzeko betaurrekoak?

Haiek ere oso lodiak ziren. Ordena handia zuen, beharrezkoa agian begi akastun haiekin. Gauza mordo bat zeraman gizon hark, armairu ibiltari bat bailitzan, eta bakoitza bere lekuan. Ez zen ideia txarra sakelak hain ordenatuta izatea eta Aghios jaunak berak ere hala egitea erabaki zuen. Areago, sakeletako batean sakelen plano bat eta horietako bakoitzean gordetzen ziren

gauzen zerrenda bat jar zezakeen. Eta umore onez eta arrangurarik gabe pentsatu zuen bere lagun berriak ez ziola kartera erakutsi. Berak ere ez zuen sakela hura ukitu. Sentimendu ederra zen maltzur sentitzearen hura.

Gero, ez ziola hari barre egin ziurtatzearen, Aghios jauna esateko zerbait atseginaren bila hasi zen. Gogoratu zen purutxo toskanarrak erretzen zituzten guztiak harro zeudela hainbeste pozoj jasateko gauza zirelako. Egiazki, bera ez zuten liluratzen, bai baitzekien purutxo haien kea ez zela birika eta bronkioetara joaten, ahoan gustua utzi bezain pronto botatzen zela baizik. Baina merezi zuen gezur bat esatea inguruko giro atsegin hura bermatzearren. Esan zuen:

— Nolatan jasan dezakezu horrenbeste pozoj?

Harrigarria! Besteak ez zituen hitz haiek konplimendutzat hartu.

— Ez dut uste zuk zeure *Macedoniek*in baino gehiago pozoituko naizenik ni. Zuk oraintxe bota duzu bat eta dagoeneko beste bat piztu. Hona-koa gaur erretzen dudan hirugarren purutxoa da eta bazkal osterara arte ez dut besterik erreko.

Badakit zer gertatzen den *Macedoniek*in. Apustu egingo nuke egunean berrogei bat erretzen dituzula!

Ez zen egia. Ahoan zuen hura Aghios jaunak helburu sozial batengatik piztu zuen, bestela luzaro egon zitekeen bera batere erre gabe. Baina atsegina izatearren...! Baietz esanez bigarren gezurra esan zuen, baina une berean ohar-tu zen hartaz.

Arraroa! Ezezagunei gezurra mordoiloan esaten zitzairen, helburu jakinik gabe. Ezagutzen ez denarekin ez zegoen sekula benetako akordiorik. Gertutik ezagutzen denarekin ere maiz gertatzen zen desadostasuna, baina ez horrela. Hura iskanbila zakar bat besterik ez zen, orkestretan musikari bakoitzak bere tresna probatu, entzun eta afinatzeko jotzen duenean bezala. Ezagunen arteko gezurrak kontutan hartzen ditu bera sinesgarriagoa egingo dituen baldintzak. Aurrera doan trenean, aldiz, apetak agindua da; buru-lan fina den ahalegin arretatsua falta zaio. Aghios jaunak eskua ahora eramanean zuen hari eutsi eta askatasuna kendu nahiko balio bezala. Berak munduan zehar serio eta larri igaro nahi zuen

eta ez hitzen bidez mundua faltsifikatuz; ez zer-bait egiteagatik, hurkoaren begian amaituko duten ala ez arduratu gabe, mutikoak botatzen dituen harriak bezalako hitzen bidez mundua faltsifikatuz. Beraz, askoz zailagoa zen ezezagunen artean duintasunez mugitzen jakitea eta berari, askatasunean ibiltzeko ohiturarik ez zuenez, hanka sartzea zegokion, askatu bezain pronto lorategia izorratzen duten kate-zakur horiek bezala.

Baina ez zen gustura sentitzen eta Aghios jaunak, mugitu eta libratzeko, leihatila ireki eta laranja bat erosi zuen. Lira bat! Ez zuen goserik, Milan utzi baino lehenxeago jan baitzuen. Baina ez zetorren gaizki laranja bat sakelan eramatea egarria handia denerako. Lira bat, lira bat oso-osorik!

Puru-erretzaileak harekin borrokan jarraitzen zuen eta betaurrekoen azpitik begiak okertzen zituen zigarroa hobeto ikustearren. Hala ere, bazirudien Aghios jaunaren erosketari adi egon zela, zeren esan baitzuen:

— Laranja bat, lira bat. Prezio hauekin ez da behintzat denborarik galtzen. Lira ematen da eta ez dago bueltarik.

— Ez da trena gelditu behar ere —esan zuen Aghios jaunak eta berehala pentsatu zuen ezezagunekin adiskideekin baino alferrikako hitz gehiago esaten zela. Ez al zen hobe isilik geratu izan balitz?

Besteak, berriz, ez zuen horretarako eragozpenik eta bere haurtzaroan ezagutu zituen prezio baxuez hasi zen berriketan. Prezio baxu haiek hildako ahaide maiteak bailiran laztantzen zituen. Eta, eskrupuloak bazituen ere, bera ere aspaldiko oroitzapenez hasi zen hitz egiten. Aurreneko hitzetatik, garai erabat desberdin batera eramana sentitu zen, eta kasik ahaztu egin zitzaion prezioei buruz hasia zela hitz egingen.

Abuztuko goiz argitsu bat Tricesimotik Karniara doan bide ederrean. Bera eta adiskide bat, margolaria, zaldi batek tiratzen duen gurdi batean: zaldiak momentutik momentura ibilgai-luan esaten dena entzuteko pausoa astiroagotzeko bizioa dauka. Ez dute zigortzen, haserrea

lekuz kanpo egongo bailitzateke Friuliko sorozelai berde zabal horietan, zuhaitzez josita ikusten diren muino horien artean, goiz eguzkitsua-
ren baretasunean. Mutil gazte biak, alaitasuna-
ren alaitasunez, onak sentitzen dira eta zaldit-
txoa maite dute, gurdia-ekin batera egun oso
batez bi lira baino balio ez dituen zalditxoa.

— Ez da asko, baina ezta gutxi ere —esan
zuen besteak doktore antzera—. Oraindik orain,
Brianzan, baina neguan, jakina...

Aghios jaunak etenaldia lasai eraman zuen.
Pentsamendua oso-osorik Karniako hegaleko
toki txiki batean zuen, Torlanon: Friuliko beste
leku batean lehendabizikoz topatzen zen hartan,
ez friuliarra ez italiarra irudituz ez zitzaion leku
bat. Teilatu haiek ia bertikalak izateko bezain
pikoak ziren eta Europako iparraldeko etxeak
estaltzeko eginak ziruditen. Aghios jaunak ez
zituen xehetasunak gogoratzen, baina osotasu-
na garden eta irribarretsu gogoratzen zuen, goti-
ko antzeko lerroen kolore italiarrez blaituta. Bere
ondoan margolariak begiak erdi itxita begiratzen
zuen. Sentitzen zuten lilurak elkartzen zituen,
pertsonek artean egon daitekeen elkatasunik

estuenak, alegia. Errekasto bat ere bazegoen, eta han eta hemen uraren sakonera adierazten zuten geruza urdin zenbaitek eta uraren habailak harrigarria bihurtzen zuten. Eta hau guzti hau Aghios jaunak isildu egin zuen, zeren ez baitziren betaurreko lodiak zeuzkan gizonarekin zerikusirik zeukaten gauzak.

Baina kontatu zion Friuliko herri bikain hartan adiskidea eta biak mokadu bat jatera joan zirela beren poza areagotzeko. Askaria epeka egin zuten. Hasteko esne aparta kafe apur batez nahastuta, baserriko ogia oraindik beroa eta benetako gurina, arrunta eta latz samarra. Ondoren, gurinaz frijitutako arrautza pare bat etorri ziren. Gero saltxitxoi samurra, egin berria izanik, artean bere egoera berrian mamitzeko astirik izan ez zuena. Berria zen hari jarraitu zion gazta ere, eta Aghios jaunak bazekien gazta zaharra ona zela baina berriak ere ez zeukan inongo aitzakiarik. Otordua Torlanoko botila bat ardorekin amaitu zen. A zer ardoa Torlanokoa! Horia eta berezko argiz koloreztatua eta menditik jaitsi berria den Torlanoko ura bezain bizia. Eta agurea liluratu egin zen gauza gazte haiek

eta ardo zahar hura (hiru urte zituen, mendieta-ko urte luze haietakoak) eta bere gaztetasun lotsagabea oroituz. Gaztetasun hura jeniala bihurtu zuen Triesteko pintore handiak, zeina goizegi desagertu zen eta Torlanoko zubiari begira bazekien Monetek nola margotu izango zuen. Baina Torlanon, non mendia guztiaren gainean baitzegoen, zubiak ezingo zuen bakarrik gelditu eta nabarmendu. Dena desagertua zen. Ezinezkoa zen Torlano existitzea, bera laztandu zuen pintorea jadanik hila zenean. Eta Aghios jauna han zegoen izan zenaren oso antzeko, baina ez argazkia gauza biziaren baino antzeko-ago. Eta atzera begiratzen zuen une honetan argazki bat bezain geldirik zegoen. Oroitzea benetako ekintza bat ez balitz bezala. Oroitzape-na geldirik jasaten da. Gogoratzen duena eta gogoratzen dena gelditu egiten dira.

Lagunak trenaren mugimendura erakarri zuen.

— Eta kontua txikia izan zen?

Agureak, bere onera itzuliz, aurrera makurra-razi zuen trenaren astinaldia sentitu zuen. Irribarre egin zuen.

— Oraindik ez da amaitu. Zaldia ere izan zuen bere askaria: artoa, olorik ez zegoelako. Eskorta zabal batean (Torlanon ez da leku faltarik) gurdia ederki asko garbitu zuten, izan ere pintoreak gidatua izanik sarritan bidetik atera eta zikina baitzegoen.

— Ederki! —esan zuen gizon lodikoteak—. Baietz asmatu kontua zenbat izan zen. Bi lira edo, asko jota, bi lira t'erdi.

— Lira oso batengatik egin duzu huts —esan zion Aghios jaunak.

Besteak ez sinestearen keinua egin zuen. Bazirudien eztabaidatzeko prest zegoela. Gero kontuak egin zituen marmarka:

— Bi baso-esne, nahi adina ogi..., lau arrautza frijitu..., bi gazta. Lira t'erdi gutxitxo iruditzen zait.

Aghios jaunari, egiazalea izanik, bestearen eragozpena adei gabea eta desegokia iruditu zitzaion. Zer zekien hark mila zortziehun eta laurogeita hamahiruan Torlanon zeuden prezioez? Eta laburki erantsi zuen:

— Kontu harekin hain harrituta gelditu nintzenez, pintoreari proposatu nion lira oso bateko

eskupekoa ematea, horrela askariak hain justu zuk esandakoa balio izango zuen. Baina hark hogeitazentimobesterik ez uzteko esan zidan, haren iritziz bestela mundua alferrik galtzen zen. Hark esan bezala egin nuen. Beraz, Torlanori iruzur egin nion eta, hala ere, bistan denez, mundua alferrik galdu da.

Eskerrak solaskideak Aghios jaunaren azalpen hauei biziki baietz egin eta barre ere egin zien, zeren eta egiaztapen zorrotz batek beti eragiten baitu barrea. Baina hark ere berea erantsi nahi izan zuen eta esan:

— Nork daki ez ote den Torlano ere alferrik galdu?

— Ezetz espero dut —erantzun zuen Aghios jaunak sutsuki.

Eta ez zen prezioetan pentsatzen ari, baizik eta ondo bideratutako ur hartan, haren kantu goxoan, zubian eta etxe handi haietan, non gauza onez elikatutako jende soila bizi baitzen.

Dagoeneko nahikoa lagun ziren eta elkar aurkeztu zuten.

— Ernesto Borlini, kontularia.

Borliniri Aghiosen izenak harritu egin zuen.

— Grekoa?

— Jatorriz, bai, baina oso antzinakoa.

Aspaldian ez zuen Aghios jaunak bere izen grekoan pentsatzen, zeren ezagutzen zuten guztiek izen hura italiarra bailitzan onartzen baitzuten. Egia da sarri bere bizitzan zehar, deitura hura zela eta, bere barruan miatu izan zuela herrietan bikainena izan zenaren zerbait aurkitzeko jakinminez. Zenbait bider aztertu zuen berak esandako hitzen bat ea herri urrunen batetik iritsia ote zen ikusteko eta zenbaitetan erabili zuen buruan bere ideia bat eta harritu, beste kristauen garunaz desberdin osatutako garun batek sortua balitz bezala. Oraingoan pentsatu zuen: «Jatorriak zer edo zertarako balioko balu, nik, orduan, urte guztian harat-honat ibili beharko nuke». Baina hein handi batean harrotasuna desagertu zitzaion berak baino gehiago zekien semetxoa alboan zuenetik.

Agurearen pentsamenduak bere baitara bihurtu ziren. Berehala barre egin behar izan zuen. Dante edo Homeroren antza zuen akaso? Oro har ez zeukan zer galdua herri bat edo beste aukeratuz. Bere barreak lotsatuta, estatistikei

buruz hausnartzeari ekin zion. Pasio-delituak eta fakzioak han eta hemen. Zer irabazirik ez batean edo bestean egonda. Eta gainera zenbat italiar zen grekoa jakin gabe? Ez! Ez! Berak ere, bidaia-tu ahal izateko, tren-txartela ordaindu behar zuen.

— Pozten nau grekoa ez zarela jakiteak — esan zuen Borlinik—. Ezin ditut grekoak jasan.

Aghiosek enbarazu-keinu bat egin zuen. Zer esan ziezaiokeen eskua eman berritan bere izaeraren erdia gorrotagarria zitzaiola esaten zion gizon lodikote horri? Aghios jaunak etsi egin zuen: «Zuk grekoak gorrotatzen badituzu, niri bost axola. Zutaz izena besterik ez dut ezagutzen, Borlini, eta gorrotagarria zait zeuk daramazulako». Baina isildu egin zen. Zentzugabekeria zen familia utzi eta eztabaidan hastea.

Elkar ezagutzen hasiak ziren eta halako intimitate bat zegoen. Bat-batean Aghios jaunari aurpegitik nahigabea ezabatu zion soinu arraro eta berri batek trenaren martxak sortzen zituen hiru edo lau hots jakinak eten zituen. Mutikoak, txokoan, esku bat begietan zuela eta mugitu gabe, benetako auhen bat jaurti zuen. Auhena

intimitate-soinu bat da zinez. Bide orok aldatzen du bere itxura halako soinu bat entzuteko moduan sortzen bada. Ibiltari axolagabea geratu eta pentsatzen du: «Gizajoa! Begira zer gertatzen zaion eta, bide honetatik egunero igarotzen naizenez, bihar neuri gerta dakidake».

Aghiosek eta Borlinik, harrituta, oinazetuari begiratu zioten. Luzaro egon ziren isilik eta, horrela, mutila ohartu egin zen hari begira zeudela. Eskua begietatik kendu eta bere bidelagunei begiratu zien. Begira ari zitzaizkion, Borlini erabat aurrera makurtuta hari hobeto hurbiltzeko.

— Gaizki al zaude? —galdetu zion Aghiosek, bat-batean anaikor.

— Zer bada? —galdetu zuen mutilak harriturik. Begi beltz eta ederrak zeuzkan adats horailskaren azpian.

— Barka ezazu! —esan zuen Aghiosek—. Agian amets egin duzu, baina auhen bat jaurti duzu.

— Litekeena da —erantzun zuen mutilak—. Batzuetan gertatzen zait. Barka iezadazue. Ez nago gaixorik. Neure zoritxar batean pentsatzen

ari nintzen eta horregatik irten zait auhena. Berriz ere barkamena eskatzen dizuet.

Begiak itxi eta bere txokoan egokitu zen. Geroxeago errezela hartu eta burua estali zuen. Antza zenez gizajoak iluntasun handia behar zuen, zeren konpartimentuan argia oso urria baitzen dagoeneko. Ilunabarra zen eta gainera zerua lainotuta zegoen.

Aghios jaunak begira jarraitu zuen. Zenbat gustatu izango zitzaion bidaia hartan aurkitzen zuen lehendabiziko oinazea eztitu ahal izatea. Zeren auhena pertsona batek beste bati igorri diezaiokeen soinurik familiarrena baita. Berehala ulertzen da. Hitzak baino hobeto ulertzen da; sortu duen organismoari ihes egin dio eta hark ez du gainerantzeko funtzioak bezala onartzen. Birikak arnasa eta bihotzak taupadak bezala. Eta soinu hori besteen bihotzetara doa zuzen-zuzen haiek ere sortzen dakitelako eta horrexegatik ulertzeko gauza direlako.

Borliniren betaurrekoen azpiko begi biribil haiek, aldiz, mesfidantzaz beterik begiratzen zioten lotiari. Veronara iristean, ohiko zalaparta sortu eta, geltoki iluneko nasara airea hartzeko

batzuk edo hirietan argienean geratzeko besteak, konpartimentu guztiko jendea mugitu zenean, mutikoa esnatu, altxa eta korridorera atera zen bekokia leihatilaren kontra jarrita ilunpea zelatzera.

Borlini Aghiosengana makurtu zen:

— Jendaurrean auhendatzen den edonork dirua maileguz eskatzeko asmoa du.

Aholku atsegin bat izan nahi zuen eta Aghios jaunak irribarre egin zuen eskertzeko, baina ez zuen inolako eskerronik sentitu. Auhendatzen ari den pertsona bati mesfidantzaz begiratu behar bazaio, orduan jai dago; hobeto etxeko lau paretan artean gelditu eta sekula ez mugitzea. Auhena bat entzun eta ez fidatu? Besterik gabe mesfidatu? Laguntza eskatzen entzun eta, oihua bera arrisku abisu bat delako, korrika ihes egitea bezala da.

Mutikoa lekura itzuli eta bere txokoan aurreko jarrera berean etzan zen. Dagoeneko Aghios jaunak ulertu zuen ezin ziola hitz batekin ere lagundu. Heziketa onaren arauak ziren.

Auhena bat entzuten denean ezentzunarena egin behar da. Bera heziketa oneko gizona zen.

Denak jarraitu behar zuen auhena jaurti izan ez balute bezala. «Ez ezazu muturrik sar» egin zion errieta Aghios jaunak bere buruari.

3. VERONA-PADUA

Verona utzi baino lehen, ordea, konpartimentuak Aghios jaunak ezagutu uste zituen beste hiru bidaiari jaso zituen. Milango geltokian ustez ikusi zituen baserritarra, emaztea eta alabatxoa. Batez ere, neskatxoaren lasaiera handiko gona. Oraingoa geltokian lo ikusi zuena baino gazteagoa iruditu zitzaion, honek ez baitzituen hamar urte ere. Baina ezin esan, zeren begiak irekita dituen haur batek ez du begiak itxita dituen beste baten inolako antzik. Ama ondo jantzita zihoan, kapelu ordeztazko zapi bat buruan zuela. Zapi haren azpiko aurpegia, ziurrenik kanpoan ibiltzearen ondorioz zimur samarra eta, aldi berean, begi urdin, serio baina biziak leunduta ageri zen. Baserritarrak, leporik gabeko alkandorra bazeukan ere, hiriko arropa janzten zuen. Andreak buruan zeukan zapia, zuri eta garbia, xarmangarria zen. Andre hura arbasoen legeetara makurtzen zen haiek bost axola zitzaizkion senarraren agindupean jarritz.

Bazterrean zegoen mutilak zangoak tolestu behar izan zituen. Hitzik esan gabe egin zuen eta, zakarkeria bat iruditu zitzaion hori bidaia adeikortasunez betea nahi zuen Aghios jaunari. Bestalde, ezagunak berraurkitzen zituela iruditzen zitzaion eta pozik zabalduko zizkien besoak. Baina ez zen fidatu behar, zeren izan ere Aghios jaunak bi ezaugarri hauek falta baitzituen: orientatzeko sena eta aurpegiak ezagutzeko gaitasuna. Milanen, hainbestetan egon ondoren, ez zekien geltokitik Duomoko plazara bakarrik joaten eta gauza zen ezagunak ez agurtu eta edozein ezezagun agurtzeko. Ziurtasun osoz berak ezagut zitzan urte askotan tratatu beharra zegoen. Nagusitzerakoan hizkuntza bat ikastea zaila den bezala, horrelaxe berak ere ez zekien jende berriaren aurpegia buruan gordetzen. Agian orientatzea eragozten zion ezgaitasun bera zen. Izan ere, jendearen sudur eta begien inguruan badira kale, pasagune eta plazak eta, beren nimiñotasuna dela eta, ez da erraza horiek ezagutzea. Ezagutzen zituen ala ez nekazari horiek? Tren-txartelak, orain, andreak bere hatz mardul eta latzetan zeuzkan zabarki estututa; Milanen,

ordea, gizonak zeuzkan. Horra hor desberdintasun bat eta Aghios jauna are zalantzatiago gertatu zen.

Borlinik ere begiratu zien txartel haiei. Aghios jaunarengana makurtu zen garrantzizko zerbait esan beharko balio bezala eta belarrira xuxurlatu:

— Hirugarreneko txartela daramate.

Hamar minutu baziren trena martxan jarria zela eta neskatxoak ingurura begiratzen zuen zerbaiten bila balebil bezala. Amaren altzora bildu eta esan zuen:

— Ama, ikusi nahi dut.

Berak ere kokotsean lotutako zapi batez estaltzen zuen burua. Aurpegi gorriska eta freskoa zuen, eta begiak, amak baino urdinagoak, handiak, eta kornea zuri eta argitsua haiek ere. Venezieraz mintzo ziren eta ziurrenik ez zetozen Milandik. Ama makurtu eta esan zion:

— Begira ezazu ba. Baina ez dago ikusteko ezer.

Ahapetik mintzo zen. Bazirudien isilik zeuden gizon haiek ikaratu egiten zutela. Aghios jaunak,

aukera hobeagorik espero ez zuelarik, alde bate-
ra baztertu eta lekua utzi zien leihoaren ondoan.

— Ikusi nahi du! Noski! Neuk ere bidaietan
ikusi nahi izaten dut. Jar ezazu hemen.

Neskatxoak amari begiez erregutu zion eta
amak senarrari aholku eskatu. Hark irribarretsu:

— Gizon hau hain zintzoa bada, ez dakit zer-
gatik txikiak ez duen aprobe txatu behar. Gaine-
ra, ez gara asko egongo, laster ailegatuko gara...

Eta arropa pilo hura besotan hartuz, Aghios
jaunak utzitako lekuan jarri zuen.

Neskatxoa ihes zihoazen soro-zelaiei begira
jarri eta apur batez isilik gelditu zen. Gero, aur-
pegi osoa kristaletan itsatsi zuen eta Aghios jau-
nak irribarre egin zuen uste izan baitzuen hobe-
to ikustearren egiten zuela. Baina aitarengana
mainak eginez jiratu zen:

— Baina nik ikusi egin nahi nuen.

— Eta ez al duzu ikusten? —galdetu zuen
aitak harriturik.

— Ez, ez dut ikusten! —oihu egin zuen neska-
txoak eta amarengana itzuli zituen ateratzen
hasiak ziren malkoek argiago bihurtzen zituzten
begi haiek.

Ama harengana inguratu eta aita eta neskatxoaren artean eseri zen eta, hortaz, Aghios jaunak berriz ere lekua uzteko mugitu behar izan zuen. Ardura, hala ere, baserritarrek esandako «barka beza berorrek» atsegin batez saritua izan zitzaion, Borlinik betaurrekoetan zehar gaitzespen adierazgarri bat luzatzen zuen bitartean. Amak galdetu zion:

— Baina zer ikusi nahi duzu ba? Ez duzu dena ikusten?

Neskatxoak negarrari eman zion:

— Ez dut trena ikusten.

Borlinik barre-algara bat egin zuen eta gurasoek ere barre egin zuten, nahiz eta haiek alabatxoaren ezjakintasunak apur bat lotsatuta. Aghios jauna izan zen hunkitu zen bakarra. Berak bakarrik sentitu eta jakin zezakeen norberak nola bidaiatzen zuen ezin ikustearen nahigabea.

Bidaiak beste gustu bat izango zuen trentzar hura eta bere makina soro-zelaietan barrena suge azkar eta isil baten antzera aurrera egiten ikusi ahal izango balitz. Soroak, trena eta norbe-

ra aldi berean ikustea. Hura bai benetako bidaia!
Eta irribarrez galdetu zuen:

— Neskato polit honek egiten duen lehen bidaia da?

— Bai —esan zuen andreak agudo—. Eta duela hamabost egun bidaia honetaz beste ezer-taz ez du hitz egiten.

Aghios hunkitu egin zen. Hamabost egun bidaia hura buruan, azkenean kaiola itxi hartan topatzeko! Umetxoaren irudimenean bidaia batek hamaika aldiz biderkatutako nekerik gabe-ko paseera batek adina poz sortu beharko zuela irudituko zitzaion. Hura desilusioa!

Eta gero okerrena iritsi zen. Treneko begira-tzailea agertu zen atean txartelak eskatzeko. Etorritako azken hiru haiek hirugarren klasekoak zirela eta alde egin behar izan zuten. Egia da hurrengo geltokian jaitsi behar zutela, baina bitartean bagoiaz aldatu behar zuten. Nahiz eta begiratzailea nahiko manera onekoa izan, aho-tsak, hala ere, halako tonu larderiatsua izan zuen. Neskak negar egiteari utzi eta aitaren eta amaren artean izkutatu zen izaturik. Aghios jau-nak begiratzaileari galdetu zion:

— Geltoki batengatik, ezin al duzu ezikusiarena egin?

Baserritarrak konpartimentutik aterreak ziren jada. Begiratzailleak adeitasunez erantzun:

— Neure betebeharra besterik ez dut egiten.

Eta Aghios jaunari damutu egin zitzaion neskatxoaren bekokian, trena ikusi nahi izango zuten begi argi haien gainean, musu bat emateko ausardia ez izana. Bigarren klasekoa hirugarrenekoekin bat egiten. Borlinik bere oniritzia azaldu zuen:

— Ordena beharrezkoa da.

Aghiosek ez zion erantzun, txano zurian pentsatzen ari zelako, ea nola moldatuko ote zen korridoreko jendearen artean.

— Ona, trenaren kontu hori —esan zuen Borlinik—. Ume askori kosta egiten zaio zenbait gauza ulertzea. Trena ikusi nahi du eta bera barruan da.

Gero etxean bi ume zituela esaten hasi zen, bata sei urtekoa eta bestea lau urte t'erdikoa. Berandu ezkondua zen.

— Jakina, behar bezalako egoera ekonomikoa lortutakoan.

Bigarrenak garrantzirik ez zuten gauzak ikusten bide zituen: urruti igarotzen ziren automobila eta ez bera zapaltzeko puntuan zegoena, goigoiko jauregia eta ez igotzen ari zen harkaitza.

— Trena ikusten ez zuen neskatxoaren neba balitz bezala —esan zuen Aghios jaunak.

Borliniri, antza, ez zitzaion esandakoa gustatu.

— Astakirten samarra izango da, baina nirea finagoa da.

Eta jarraitu zuen kontatzen nola, egun batzuk lehenago Puccirekin paseatzen zebilela, kapa itzelez jantzitako bi karabinero ikusi zituzten kapelu napoleoniko eta guzti. Eta mutikoak, erabat izuturik, galdetu zion ea bi karabinero haiek bazekiten eurak ez zirela lapurrak.

— Ba al da txepelago izaterik? —bota zuen Borlinik.

Une hartan, bidelagunaren berriketa hutsal hark nolabaiteko interesa sortu zion Aghiosi. Zein gertu sentitzen zuen Pucci txikia, lapurtzat hartua izateko edo agian lapur izateko beldurrez bihotza taupaka zuelarik. Lapurra *in fraganti* harrapa zezaketen, baina lapurra ez zenarentzat

ez zegoen horren froga ziurrik. Wassermann frogarekin bezala gertatzen zen. Ezezkoa ez zen sekula ziurra. Lapurretaren mikrobioa odolean egon zitekeen, argitara irteteko aukera eder baten zain.

Gero, jada pospolo-kaxa oso bat agortu zion Toskanarrari emandako zupada eta zupadaren erdian, Borlinik kontatzen jarraitu zuen Pucci gauetan beldur izaten zela eta lasaiago geratzen zela ohean jostailu bat sartzen uzten bazioten, gomazko pilota esaterako.

— Nork ulertu? —galdetu zuen Borlinik—. Baina kasta onekoa da, eta laster izango du halako txorakeriarik ez duen bere anaiaren antza.

Harrigarria adierazpena. Manera onek agintzen dutenaren kontra joatea izan ez balitz, Aghios jaunak hirurogei urtetan bildutako esperientziak erakutsitakoa esan ahal izango lioke: beti dugula lehengo lepotik burua. Baina zein zoritxarrekoa Paolucci gizajo hura. Hain gutxi ulertzen zion familia batean jaio behar ere! Aghios jaunak ulertzen zion, berak ere beldur handiak pasa baitzituen bizitzak zein mehatxa-

garria zen oraindik erakutsi ez zionean. Zomorro txiki, azkar, iheskor eta nazkagarriekin, karraskari eta intsektuekin egiten zuen amets, berandu baino lehen harrapatuko zutela oraindik sumatzen ez zuenean; eta iluntasun izugarriarekin, iluntasuna gure jomuga dela jakin baino lehen. Eta ohera zurezko zalditxo bat eramaten zuen eta bularraren kontra estutzen zuen lo zegoen bitartean. Orain artean, berak uste izan zuen onginahiatatik egiten zuela, zurezko zalditxoak berotasuna behar zuelakoan, haren forma traketsak halako biziren bat bazuela irudikatzen baitzuen. Baina pilota? Paolucci, bere zinezko anaia, pilota batekin oheratzen zen. Pilotak ez zuen inolako berotasun beharrik, erabat biribila eta bizirik gabeko forma hark ez bederen. Eta, hala ere, hurbil zuenean lasaitu eta ez zen horren beldur. Baina hura sinbolo bat zen; bere dibertsioari atxikitzen zitzaion bizitza ahortzi ahal izateko (dibertsio = dispersio, pentsatu zuen Aghios jaunak, semeak ezin entzun ziezaikeen honetan). Zein gora iristeko gauza izan zen Paolucci txikia! Eta aurrerantzean, bere bizitza osoan, zeina Aghios jaunak luze izatea opa bai-

tzion, ezingo zuen jada ezer berririk, ez gorenekoagorik, ez garratzagorik ikasi. Zertarako bizi aurrerantzean? Anaia bihotzekoa! Nolako etorkizuna zurea! Berak ere, itxurak egiten asmatu ez zuen uneetan, iseka-irribarre, zuzenketa larde-riatsu eta mesprezuen artean igaro zuen bizitza. Bere zoritxarrerako semeak ez zuen inondik ere bere antzik: beldurrik gabea, azkarra eta trebea, dibertsioa zuen patu. Ez zeukan ideia arrastorik ere bizitza zer ote zen eta bost axola zitzaion, bizitzak berarekin zerikusirik izango ez balu bezala. Bizitza ahantziz, hartaz gozatzen zen. Gutxi ikasten zuen, baina bazekien nola moldatu. Gutxi zekien, baina beti zeuzkan prest garai-
pen erraza ematen zioten datu zehatz mordo bat. Eta liburu asko zituen eskura eta haietan eztabaidarako behar zuen guztia aurkitzeko gauza zen.

Eta luzaro, Paolucci txikia izan zuen bidela-
gun. Borlinik, oraindik ere, zerbait esan zuen hari buruz: anaia zaharrena aitaren eskuari atxikita ziur ibiltzen zen bitartean, Paolucciri tira egin behar zitzaiola beti. Lot-en emaztea bezala beti

atzera begira. Gauzak luzaroago ikustearren, jakina.

Paolucci Borlini gizon handia bihur zitekeen, edo gaizkile zitala edo, Aghios jauna bera bezain gizon arrunta. Nolanahi ere, ez hain zoriontsua. Zeren norberaren koalitate handiak onar daitezzen maltzurtasuna ere behar baita. Eta maltzurtasun hori gabe, edukiko bagenu bezala bizi gaitezke, gauzei eutsi nahian gairidituta, horiek benetako garaipen batez beste inola ezin baitira lortu. Edo, azkenik, bizitzarik arruntena bizitzeko egokitu gaitezke, koalitate handien mugimendu librea bidaian gauden une bakanetarako erreserbatuz.

Agur anaia txiki maitea.

Baina hari agur esan ondoren, berriro ere topatu zuen. Umearen baldarkeria norainokoa zen erakusteko, Borlinik kontatu zuen nola goiz batean Paolucci estu eta larri esnatu zen. Asto eta zaldi batzuk ostikadak emateko, segika zituela amets egin omen zuen. Borlinik, bere buruaz harro, moztu eta galdetu omen zion: «Ostikadak aurreko hankekin edo atzekoekin ematen zizkizuten?»; eta umeak erantzun

«Aurrekoekin». «Ederki» esan zion Borlinik orduan «ezinezko ametsa da, zeren animalia horiek ezin baitute aurreko hankekin ostikorik eman».

Aghios jaunak barre egin zuen, baina aldi berean pentsatu: «Paolucci gizajoa! Ankerkeria galanta! Haur baten ametsa zientziaren bidez zapuztea ere».

Eta Paoluccik behingoz utzi zuenean, bakarrik geratu zen Borlinirekin. Bakar-bakarrik. Une batzuetan, Porta Vescovon eta Geltoki Nagusian bera utzi zuten veronarrak banan bana ikusi zituen berriro eta bi baserritarrez oroitu zen (begi ezti eta azal beltzeko andre ahanztezin hura) eta pentsatu bidaia hura askoz ere atseginagoa zatekeela haietako edozein Borliniren ordeztatu geratu izan balitz. Tamalez, mutilak, zeina hainbeste oinazeren poderioz interesgarri bihurtu baitzen, lo jarraitzen zuen bere txokoan.

Eta Borlinirekin hitz egin behar izan zuen. Han zeuden eserita, jada guztiz sartua zen gauari leihotik begira, eta manera onek norberaren ahotza entzunaraztea agintzen zuten. Gezur bat esan zuen eta bidaia bat egin beharraren nekeaz

kexatu. Berez faltsua den topikoari eutsi zion eta gezurra biribildu zuen: berarentzat bidaia tortura besterik ez zen.

Eta, amen batean, Aghios jaunak gezur hura sinesgarri bihurtzen lagun zezaketen irudiak ekarri zituen burura. Hasteko, lehenxeagoko neskaxa, zeinak bidaia hobeto ikusi eta senti daitekeen zerbaiten gisa irudikatu baitzuen. Bera ere neska bezala zen. Benetako bidaia dili-jentziaz egiten ziren haietako bat izango litzateke, bide naturaletan zehar (naturalak burdinarik ez zutenei deitzen zien) eta pertsonak bizi ziren lekuetatik igaroz. Italian iristen garen lekuaren irudirik inoiz ematen ez duten geltokietara iritsi beharrean, lekuaren parte den bertako ostatu batean geldituko ginатеke zaldia atsedean hartu edo aldatzeko. Automobilean ere ez ziren bideak, lekuak eta jendeak hain harreman estuan jartzen bidaztiarekin. Eta Borlinirekin bidaia bat egitea, hura ez zen ez bidaia eta ez ezer.

Horrek, bestalde, Aghios jaunak esandakoari galdera batekin erantzun zion:

— Eta zuk zenbat bidaia egiten duzu hilean?

Eta Aghios jaunak beste gezur bat esan zuen:
— Nik, hilean bizpahiru.

Hilabete hartan Triestetik Milanera joan zen bigarren aldia zela esan zuen. Azken hori egia zen. Lehena, gora eta behera emaztearekin; bigarrena bera bakarrik itzuliz amaitzen zuen. Baina hori baino lehen, urteak ziren ez zela Triestetik mugitu.

Borlini hatzez lagunduta bizkor ari zen kontatzen eta marmarka:

— Vicenza (hatz lodia luzatuz), Siracusa (erakuslea), Lodi (luzea), Ancona, Siena, Perugia...

Hamar hiri, eta Aghiosek horiek ordezkatzaren zituzten hatz baldar haiei begira bakoitzaren itxura irudikatzen saiatu zen labur: Lodi (ez zen sekula han izan, baina gogoratu zen gaixoa ez zela gauza izan Parmari esleitzen zaion asmakizun ezin bikainagoari bere izenik emateko), Vicenza (Palladioren lanak, zeinak bere seme sasijakintsu hark arbuiatzen baitzituen; jaiegun eguzkitsu batean kale mortuetan Aghiosek distiraz beteak ikusten zituen marmolezko jauregi haiek), Siena (nahi baino txikiagoa eta horrenbeste edertasun biltzeko txikiegia gertatu zen

duomo hura! Siena? Egun bakar batean hildako hamar mila florentziar!), Perugia (matxinadak; Asis hurbil eta artaldeek zuritutako zelai berdeak; herri oso bat beste santu baten zain). Baina Borlinik ez zion beste batzuetan pentsatzen jarraitzen utzi.

— Hamar aldiz! —bota zuen—. Hilabete hone-tan zehar, eta dagoeneko hogeitabost da, hamar aldiz utzi dut Milan. Eta ez nago aspertuta, zeren betebeharra ondo egin nahi bada plazerra izan behar baitu.

Ederra kontua! Betebeharra plazerra balitz, orduan ez luke meriturik izango. Aghios jauna harro zegoen bizitza osoan zehar bere pentsa-mendu maiteenak, fantasia maiteenak, beneta-ko plazerra alde batera utzita eginbeharra ondo bete izan zuelako. Bakean utzi izan balute, mun-duan zehar ibili izango zen, ez ikusteko, baizik eta hartaz banatzean biziago sentitu, edertu eta iluntzeko. Semeak ere esaten zuen mundu hone-tan pertsona bakoitzak egin behar zuena egiten zuela eta horregatik bera dibertitu egiten zela, beste batzuek (Aghios jauna) sufritzen zuten

bitartean. Zalantzarik gabe, desberdintasunen bat egongo zen! Baina, zertan?

Ez zuen eser esan. Elkarrizketa hura guztia ez zitzaion benetako elkarrizketa iruditzen. Zergatik nekatu liskarretan? Ahoa erabiltzen zen besterik gabe, trenak aurrera egiten zuen bitartean denbora egiteagatik.

— Beraz, saltzailea zara? —galdetu zuen zerbait esateagatik.

— Arren! —esan zuen Borlinik hobeto juzkatzeko ez zuen harekiko erdeinuz—. Aseguru-etxe bateko ikuskatzailea naiz.

Aghios jauna makurtu egin zen, horren kargu gorenaz poza erakusteko edo. Ikuskatzailea! Saltzaile izateaz oso bestelakoa, alajaina!

Urruti, mendiaren azpian, muino baten maldan zegoen herriska baten argiak ikusten ziren. Argi bare, geldia. Jakina, urrutiko argia beti da bare, beti geldia. Haizeak gogor jotzen badu ere, eta itzaltzen ez badu, izarrena bezalakoa da; kolorearen baretasunez distiratzeko du (horren kolore distiratsurik balego). Eta herriska hartan norbaitek izango zituen iskanbilak. Baina urruntasuna bakea da.

Baina aldian behin ahoa erabili beharra zegoen eta Aghios jaunak gezurrak esaten jarraitu zuen, asmo txarrik gabe, irten egiten zitzaizkiolako:

— Ez dut batere gogoko emazte zaharra bakarrik uztea.

— Badakit horrelako gizonak badirela —esan zuen ikuskatzaileak, animalia arraroren bat aztertzen ariko balitz bezala Aghios jaunari arreta osoz begiratzuz.

Eta Aghiosek gezurrarekin jarraitu zuen:

— Begira, niri hiria bost axola zait, eta ondo nago Milanen zein Triesten. Kontua da ez dakidala bakarrik bizitzen.

Eta pentsatu: «Begira, begira ezazu nahi adina, betaurrekoak erabiliagatik ez duzu ezer ulertuko eta». Bai, horixe! Ez zegoen asmatzerik esaten ari zenak garrantzia zuen ala ez. Eta familia-bizitza maite zuela erantsi zuen. Gezurra atontzeko zerbait adimentsuagoren bila hasi eta berehala aurkitu zuen: familia-bizitza maite zuen, batarengan zein bestearengan eta inoiz ez norberarengan eta ez norbere zoritxarretan pentsatu beharra zegoelako. Zoritxarrei buruz min-

tzo zen eta une hartan ez zituen inondik inora sentitzen: eskupekoak emateko sakelan nahikoa diru eta topatzen zituen pertsona ahul guztieki-ko maitasunez gainezka, Paolucci ahantzezina bezala inoiz ikusi ez zuen jendea ere biltzeko gauza zen maitasun handi hartaz.

Borlinik purrust egin zuen:

— Nire familia-bizitza oso desberdina da. Ni nagoenean denek nitaz arduratu behar dute eta neuk ere berdin egiten dut, alegia, haietaz arduratzen naiz. Bidaian nagoenean, noski, askatasu-
nean uzten ditut, baina espero dut nitaz oroitzea. Ni neure gauzekin nago arduratuta eta ez daukat beste ezertaz arduratzerik. Baina, zertarako dira gauza horiek? Ez dira familiarentzat ala? Neure gauzekin arduratuta nagoenean ere, familiaz arduratzen ari naiz.

Aghios liluratuta geratu zen. Horixe zen benetako gizon arrunta! Ez zuen gustuko. Gizon arruntak inguruko guztiak beraz ardura daitezen nahi du (eta bere benetako pentsaera erakutsi zuen, lehendabizi berak ere berdin egiten zuela aitortuz eta, gero, aurretik esandakoa azalpen baten bidez ezeztatzeko). Agian hartaz oroitzen

ziren baina haren heriotza desiratzeko. Bera askoz hobea zen, ez baitzien ezer eskatzen. Ez zitzaion iruditzen familia gutxiago maite izan zuenik beraz nahikoa arduratu izan ez zirelako. Ez. Gutxiago maite izan zituen familia handiago baten beharra sentitu zuelako, mundua.

Bere solaskidearenganako benetako gorroto batek harekin eztabaidatzera eraman zuen. Ez zegoen zertan bere buruaz ziur sentitzen den sermoilari baten tonuan horren gauza zentzugabeak esaten utzi beharrik. Lehor, argi eta garbi, esan zion:

— Ni, aldiz, familiarekin nagoenean guztiez arduratzen naiz eta espero dut ez nagoenean nitaz oroitzea.

Azalpenaren bigarren zatia gezurra zen, baina barru- -barrutik atera zitzaion apaltasun batek eragin zuen. Apur bat lehenxeago emaztea beraz ez oroitzea desiratu zuela aitortzen bazuen, beldur zen ez ote zen onegi bezala agertuko. Onegia? Bere barruko pentsamendua azalduko balu, ziurrenik ez zen onegi agertuko.

Borlini barre egiten hasi zen, barre-algara ozenez, kolpeka, martxan jartzen ari den motor baten zarata bailitzan:

— Baina hori poesia da, benetako eta alferrikako poesia! Ez zara ba mozorrotutako poeta izango?

Hasieran Aghios jaunak hura lotsagabekeria bailitzan hartu zuen. Mozorrotuta? Baina gero, bere burua jakinminez aztertu zuen. Berak uste zuen zilegiak ez ziren gauza asko desiratzen zituen gizona zela eta, zilegiak ez zirela ikusirik, bere buruari debekatu egiten zizkiola, haiekiko desira bere horretan bizitzen uzten zion bitartean. Baina, gainera, ez zen hartaz mintzo eta egiten zituen baieztapen haiek —ukatzean— desirak hobeto ezkutatzekeo helburua zuten. Horrek bihurtzen al zuen poeta mozorrotu? Zilegiak ez ziren desira haiek ahots goraz kantatu izan balitu, mozorrorik gabeko poeta izango litzateke. Eta ukatuz? Haiek ukatzeko ahotsa goratzen jakin izan balu, haiek ukatuz ere poeta izango litzateke. Zer astakirtena zen Borlini hura! Nola mozorrotu liteke poeta bat? Isilduz? Izan ere, isiltasuna ez baita mozorro bat, isiltasu-

na baizik ez da pentsatu zuen Aghiosek. Bizitzan nahi bezain astakirten izan zitekeen bat, baina ez poeta norbere astakirtenkeria kantatzeko gauza ez bada.

Soilik esan zuen:

— Hendekasilabo batek zenbat silaba dituen ere ez dakit eta.

— Hamaika —esan zuen Borlinik—. Zuk, grekoa izanik, jakin behar zenuke. Mozorroekin zabilta oraindik, ezta?

— Baina zer poeta eta zer poetaondo! —esan zuen Aghiosek barrez, apur bat pozik eta apur bat irainduta—. Begira, ni orain Triestera noa, emaztea eta semea Milanen utzita, premiazko kontu bat daukadalako han.

Ezin zuen ahoa ireki soberako zerbait esan gabe. Eta esateko egia bat aurkitu bezain pronto bota egin zuen, egiazko hitz batek gezurrezko hitz baten latsa estali ahal izango balu bezala.

— Horrela, diruz kargatuta, bidaia bat egitea plazer bat dela uste baduzu...!

Eta eskuarekin bularraldeko sakela ukitu zuen.

Borlini berriz hasi zen barrez, isilxeago orain, bere txokoan oraindik lo zetzan lagunari mesfidati begiratzuz.

— Nik ere dirua daramat sakelan eta asko gainera. Baina, zuregan arduragabekeria da, eta niregan beharra.

Borlini zinez agresibo jartzen ari zen eta Aghios jauna isildu egin zen harriturik. Isilune aukeran luzeegi baten ondoren, gizon lodikotea berriro hasi zen mintzatzen baina ziurrago oraingoan. Bere tonu agresiboegiaz damututa agian.

— Pentsa ezazu zer egiten dudan nik falmiliarengatik, eta gero esango didazu trukean ez al dudan partaide guztiei nitaz ardura daitezen eskatzeko eskubiderik. Mundu honetan izango dira nik adina lan egiten duten gizonak, baina nik baino gehiago egiten duenik ez. Bidaia hauek ez dira atsedenaldi bat. Ezta?

Aghios jaunari iruditzen zitzaion solaskide hura aurkitu bitartean bidaia benetan atsedenebidaia gertatu zela. Orain, berriz, maite ez zuen pertsona bati behin eta berriz azalpenak eman behar zizkionean, familiari, areago, maite ez

zuen familia bati atxikita sentitzen zen. Beraz, gezurrik esan gabe arrazoia eman ahal izan zion:

— Ez, inondik ere ez.

Ez zen atsegina! Atsedenez gozatzeko Paduaraino itxaron beharra zegoen, zenbait ordu oraindik.

— Ikus ezazu zenbatekoa den neure gain hartu beharreko erantzukizuna! Sarritan nik neuk bakarrik konpondu behar izan dut kalteren bat. Bakar-bakarrik eta goitik behera! Kalteak baloratu eta erabakiak hartu. Jakina, zertan nabilen badakit eta sekula ez didate errietarik egin behar izan. Gaur, adibidez, Paduara antzeko zerbaitegatik noa. Bezero garrantzitsu batek sute bat izan zuen eta ehun eta hirurogeita hamabost mila lira eskatzen zituen. Milanen peritua bidaltzea proposatzen zuten, matematikek tenteldutako injineru horietakoren bat. Zuzendariari esan nion uzteko niri likidazioaz arduratzen eta hitz ematen niola guztia ehun eta berrogeita hamar milarekin kitatuko nuela, eta bezeroaren konfiantza galdu gabe. Zuzendariak, ezagutzen naularik, berehala esan zuen: «Ederki! Saiatu gaitezen gu geu, negozio-gizonok, tekniko gogai-

karri horien eskuhartzerik gabe. Zure esku!». Eta alde egin nuen karteran mila lirako ehun eta berrogeita hamar bilete sartu ondoren. Begira.

Eta bularraldeko sakelatik puztutako kartera bat atera eta ireki zuen.

— Paduara beranduegi iristen gara txekerik kobratzeko eta horregatik daramatzat horrenbeste bilete soinean. Bezeroa, eskudirua ikusita, lasaitu egingo da —eta lodikoteak barre egin zuen haragijalearenak ziruditen hortzak erakutsiz— eta gero, nork daki bilete hauetakoren bat ez ote den aseguru-etxera itzuliko. Txekea, berriz, zaila da zatitzen eta ezingo litzateke zatika eskaini.

Kontu horretan Aghios jauna ikuskatzailearekin lehiatzeko moduan zegoen.

— Nik ere gustura hartzen ditut familiaren aldeko hainbat erantzukizun. Bularraldeko sakelari... —une batez zalantzan geratu zen, egia esateko prest, alegia, hogeita hamar mila lira zeramatzala; baina hobeto pentsatu eta esan zuen— ...berrogeita hamar mila lira daramatzat.

— Eta ez daukazu horrenbeste diru eramateko beldurrik?

Aghios jauna haserretu egin zen:

— Zuk uste baduzu ehun eta berrogeita hamar mila lira zaintzeko gauza zarela, ez dakit zergatik ez naizen ni berrogeita hamar mila gordetzeko gauza izango.

Ikuskatzaileak aurrekoan baino askoz modu atseginagoan egin zuen barre eta mirespenezko begirada bat erantsi zuen.

— Poeta-esaldia zinez —esan zuen.

Aghios jaunak bere buru-estimua losentxatua sentitzen zuen, baina oraindik zalantzan zegoen iraindua ez sentitzeko arrazoirik ba ote zuen. Poetak idazten daki, eta berak ez zekien, eta poesiak egiten ez zekielarik, bere patua egia faltutzea zen, pareta dagoen lekuan airea ikustea eta burua haren kontra jotzea. Hobeto Paduaraino ez iraintzea; zertarako ibili sekula gehiago ikusiko ez zuen gizon hura konbentzitzen?

Eta gainera, bien arteko harremana atseginagoa bihurtzen ari zen. Ziurrenik, ikuskatzaileak uste zuelako bere burua aski ondo eman zuela ezagutzera eta jada bazuela modu xumeago batean hitz egiterik. Hasteko, Aghios jaunaren diruagatik arduratu zen:

— Ez ezazu daukazun diru horretaz gehiago hitz egin. Konturatzen naiz ni izan naizela gaia atera duena. Baina zurekin arriskurik ez zegoela ohartu naiz berehala. Eta hango hura, lo seko dago.

Biak txokoan lo jarraitzen zuen mutiko ilehori zurbilari begiratzeko jiratu ziren. Argizarizko panpina baten gisa, kuxinaren gainean lo zetzan lasai eta, tarteka, trenak baino ez zuen asaldatzen. Bazirudien bere sudur zuloa besterik ez zela zabaltzen, harik eta aire kantitate handiena pasatzen uzteko ahalegina egingo balu bezala. Ilehori garden horien sudurrek hegaltxoak ziruditen. Baina gero Aghios jauna asmak jotako bere zalditxo batez gogoratu zen, zeinak gaixo daudene bezala behar baino ahalegin handiagoz sudurra irekitzen baitzuen eta xuxurlatuz esan zuen:

— Ziurrenik, enfisemak jota dago.

Une horretan, Aghios jauna bere zalditxo asmatikoaren oroitzapenak nahigabetuta sentitu zen. Gaixotasunean animaliek pertsonen antz handiagoa hartzen zuten. Hitza besterik ez zitzaien falta, gaixotasunaren oinazea arintzen

duen biraoa. Animalia gaixoak. Zalditxoak sufritu egiten zuen eta ez zekien, baina bere arnasotsa gizatiarra zen erabat.

Ikuskatzaileak beste puru toskanar bat piztu zuen eta arau hertsia bat betetzeaz lehengo harrokeria ahaztarazteko, losentxa egin zion Aghios jaunari:

— Konpainia ederrean gehiago erretzen da.

Eta Aghios jaunak ere, losentxari erantzuteagatik, erre egin zuen.

Ikuskatzailea erretolikekin hasi zen gero, eta gogaikarria gertatzen zen inondik, baina eskerarrak konponbidea eskura zegoen. Trenak ikaragarritzko zarata egiten zuen eta aski zen entzuteko ahaleginari uztea ezer ez entzuteko. Hala ere, Aghios jaunak bazekien zertaz ari zen ikuskatzailea. Politikaz ari zen eta esaten zuen nahikoa zela guztion borondate ona Italia arazo guztietatik ateratzeko. Berrogei milioi inguru borondate on. Erabateko adostasuna! Gehiegi zen, kontutan izanik, Aghios jaunak (greko sentitzen baitzen) maiz ikusi zuela, mahai berean bi italiar aurkitzen zirenean, berehala izaten zutela alde egiteko gogoia, elkarri ez entzuteagatik. Eta

bera, italiarra ama eta amonaren aldetik, ez al zegoen trenetik saltatzeko irrikaz ikuskatzailea ez ikustearren?

Eta ikuskatzaile jaunak hitz egiten zuen bitartean, Aghios jaunak bere amonaren oroitzapena aztertzeari ekin zion. Zein zurbila zen! Esaldi bakarra eta, horixe ere, agian beste norbaitek esana: «Ohea gauza ona da, lo egiten ez bada, atsedeen hartzen baita». Eta erretratu hits bat, andre lodi, zaharkitu bat, gerria estutzen zioten gona luzeko jai-soineko sinestezinez jantzita. Esaldia ere hitsa zen eta Aghios jaunak ezin zuen erretratua esalditik bereizi, ezta esaldia erretratutik ere. Erretratuak hitz egin izan balu bezala. Horregatik zen erretratu hura beste edozein baino adierazkorragoa. Gerta zitekeen andre hura berriz pentsatzen jartzea ere.

Ordurako, ikuskatzaile jauna hauteskundeez hitz egitera iritsia zen. Aghios jaunak, hezibideagatik, aurrerantz makurtu zen hizlariarengana hurbiltzearren eta argi eta garbi honako esaldia entzun zuen: «Derrigorrezko botoa». Berehala, bere lekura itzuli zen.

Dena zen derrigorrezkoa bizitza honetan, baita ikuskatzaile jauna entzun beharra ere. Bizitza bitan banatuko balitz, batetik derrigorrezko iharduera eta hitzetan, eta bestetik inizatiba libreko mugimenduetan, bizitza izena merezi zuen bakar hori zein zekena gertatuko litzatekeen bestearen aldean. Aghios jauna irrikaz abiatu zen askatasunerantz, baina bazekien egun gutxi barru ase izango zela eta ohiko bizitza arruntera itzultzeko gogo bizia izango zuela. Halaxe zen. Esklabotza ez zen patu bat soilik, ohitura ere bazen. Askatasuna ederra zen askatzeko unean, berak ikuskatzaile jaunari jaramonik egin gabe hitz egiten utzi zionean bezala.

Baina ikuskatzaileak begiratu egin zion eta, berriro ere, atsegina izateagatik, inguratu egin zitzaion esaten ari zena entzuteko:

— Italian nagusi gehiegi dago.

Aghios jaunak, berriro ere bere eserlekuan ondo jarrita, berehala lortu zuen Italian nagusi gehiegi zegoela ahaztea. Leihotik begiratu zuen, zoriona opa izatea debekatuta zegoen leku hartara, eta ideia izugarri bat etorri zitzaion burura: «Munduaren etorkizuna dena hiri bakar bat

bihurtzea da. Agur mendi, agur baso, agur soro eta zelaiak. Eta nola jango du jende horrek guztiak? Kimikaren bidez? Zoritxarrekoak!». Ideia itzel hura bururatu zitzaion hiru baserri ikusi zituenean, eta harantzago beste hiru eta aurre-rago bi eta beste lau amaitzeko. Zelai guztiak hartzen zituzten. Ikus zezakeen nola etxe horien guztien artean beste askoz gehiago jarriko zituzten, denak errenkan. Argi zegoen mundu osoa hiri bihurtzen zenerako, bera, emaztea eta semeak leku gutxi beharko zutela. Bidezkoa al zen halako berekoikeriaz kontsolatzea? Ez al zen hobe ondorengoengatik arduratzea? Aghios jaunak irribarre egin zuen. Mundua hain ondo antolatuta zegoenez, zenbait nahigabe ezinezkoak ziren.

Ikuskatzaileak Aghios jaunaren arreta eskatu zuen berriro ere eta honako hau entzun zion:

— Laburtuz, neuk nahi nukeena da hiritarrak gobernu bat aukeratu eta berriro ez ezertan sartzea. Hori da benetako askatasuna.

Bai. Horixe zen askatasuna! Hogeita bost urte lehenago Aghios jaunak emaztea aukeratu zuen. Hori zoriona, oztopoak gainditu ondoren,

berea deitzera iritsi zenean! Eta ondorioz, normala iruditu zitzaion trukean bera emaztearena izatea. Erabat zoriontsu sentitu zen. Zein zoriontsu! Bidaiaren askatasun handian, ordea, pentsatu zuen hogeitabost urte lehenago ezkontzeko beharra sentitu ordez gaizkilearen sena izan eta hilketaren bat egin izan balu, ziur dagoeneko eta amnistien poderioz erabat libre izango zela, bidaiak egiteko libre esaterako.

Bakardadean egindako pentsamendu hura ez zen inondik ere arriskutsua eta Aghios jaunak irribarretsu jarraitu zuen bere burua gaizkile libre baten itxuraz ikusten. Ziur, ohiturazalea izanik, kartzelara itzultzeko gogo izugarria edukiko zuela, gutxi barru emaztearen babespean gordetzeko eta, batez ere, bere seme burugabe hura babestera joateko gogoa izango zuen modu berean; hitz batean, bere kartzelara itzuli nahi izango zuela. Eta gainera, zer aurpegira ziezaiokeen bere emazte maite-maite hari? Langile nekaezina, etxeko gobernatzaile fina, polita, literalki beretzat bizi izan zen. Egia zen apur bat gogaitzen zuela (eta Aghios jaunak irribarre egin zuen berriro) berak andre bat ederresten zue-

nean, emazteak berehala haren sudurra edo gorpuzkera kritikatzeko hasten ziren. Eta, gainera, bera zen bezala onartzen eta maite zuten, baina sarriegi horren distraituak ez izateko eta arreta gehiago jartzeko zirikatu zuten. Laburbilduz, etengabeko presioa eragiten zitzaion eta bera, orain, bidaian, libre, bere burua osotasunean ikusten saiatzen zen. Onartu behar zuten, hala ere, presio hura ez zela ikuskatzaile saltzaile hark berarengan ezarri nahi zuena bezain latza...

Eta horretaz ari zela! Ikuskatzailea, amets lauso batean beste ideia politiko batzuen bila balebil bezala, luzaro leihotik begira geratua zen eta, orain eserlekuan etzanda, arinki zurrunga eginez, lo zegoen.

Hain atsegina gertatu zitzaion ezen, barrez hasi baitzen eta ikuskatzailea ez zen barrearen hotsaz ere mugitu. Hura negozio-gizon galanta! Hain azkarra uste izan eta, ehun eta berrogeita hamar mila lira zeramatzala publikoki aitortu ondoren, zurrungaz hasi! Aghios jauna lasaitu egin zen, emaztea distrazio batean harrapatzen zuenean bezala. Sermoilari hura bai zela barre-garria! Aghios jaunaren mendekua erabatekoa

izango zen zilegia izan balitzaio diru hura guztia lapurtzea. Oso atsegina gertatuko zitzaiokeen ehun eta berrogeita hamar mila lira haiekin alde egitea. Lastima lapurra ez izatea. Eta Aghios jauna, hura burutzeko inongo asmorik gabe, plan bat aztertzen hasi zen: karterara nola iritsi eta handik dirua nola hartuko zuen, eta baita dokumentuak ere, haiek deusezteko, gizon handi hari erabateko lezioa eman behar zitzaion eta. Hain zen erraza! Botoi bakar batek ixten zuen jaka askatu, eta karterara iritsita, ezarian-ezarian trenaren mugimenduaz lagunduta, hura atera.

Amesgaizto bat izan balu bezala, txokoan zegoen ilehoria asaldatu egin zen.

Baina zer axola zitzaion, zeren Aghios jaunak ez baitzuen sekula plan hura gauzatuko. Pentsamendua, hain zuzen, horregatik zuen hain librea: urrun zuelako ezein ekintza egitearen ideia. Pentsamendua benetan librea, mamuen artean mugitzen zenean baizik ez zen libre. Jaka eta botoi haiek uste baino gogorragoak gerta zitezkeen.

Aghios jaunak ilehoria zelatatu zuen, ez baitzuen delitua amestu ere egin nahi bestea lo zegoen ala ez ziur egon gabe.

Bat-batean, beste pentsamendu batek asaldatu zuen. Paduatik oso hurbil egon behar zuten dagoeneko. Eta ikuskatzailea lo gelditzen bazen? Lo jarraitzen bazuen, gaitzerdi, baina esnatu eta Veneziaraino jasan behar bazuen? Beste erreto-
lika bat, ez Jainkoarren!

Une hartan, zorionez, begiratzzailea iritsi zen txartelak eskatzera.

Ilehoria berea eman zion eta ikuskatzailea ere esnatu eta berehala galdetu zuen:

— Noiz iritsiko gara Paduara?

— Hamar minutu barru —erantzun zuen begiratzzaileak.

Eskerrak. Erretolikako hamar minutu jasangarriak ziren.

Baina ikuskatzailea umore txarrez esnatu zen. Bost minutuz ez zuen hitzik esan. Gero, adoretu, altxa egin zen. Ekipajearen saretik maleta hartu eta bere ondoan jarri zuen. Leihotik begiratu zuen gero, eta Aghios jaunak ere norabide bererantz begiratu zuen, hori baitzen ikuskatzai-

leak egiten uzten zion adiskidetasun-keinu baka-
rra. Zerua lainoz estalita zegoen eta arratseko
eguzkiak, ikusezina, haien azpialdea argitzen
zuen, eta bazirudien zilar, urre eta berezko argiz
distiratzen duen beste metal garden eta ezeza-
gunezko geruza arinez osatuta zeudela.

— Euria egingo du —xuxurlatu zuen ikuska-
tzaileak umore txarrez.

— Ez du beti euririk egiten zeruak itxura hori
hartzen duenean, goibel eta beltz, eta azpildura
argitsuz josia —esan zuen Aghios jaunak, ikuska-
tzaileak bere umorea berreskura zezan edo,
agian, joan zedin, euriak trenean geldiarazi ahal
izango balu bezala.

Izan ere, ikuskatzaileak alaiago zirudien.

— Eguraldiari igartzen badakizu? —eta estrei-
nakoz Aghios jaunari adeitasunez begiratu zion.

— Ez asko —erantzun zion Aghios jaunak
apal—. Baina maiz ikusi dut eguzkiak, alde egin
behar duenean, laino lodien azpian biltzen dela
haietan ezkutatu nahiko balu bezala eta gero,
jada behar ez ditenean, desagertu egiten dire-
la.

Ikuskatzaileak hiru gauza egin zituen batera: aharrausi, irribarre eta zera esan:

— Poeta.

Baina poetaren «e» hura haren ahoa bezain «a» zabala bihurtu zen.

Eta ikuskatzailea diosal labor baten ondoren irten zenean, Aghios jaunak pentsatu zuen bidaia haren ondoriorik behinena poeta izatearen aurkikuntza izan zela.

Paduatik Mestrera, hura bai askatasuna! Txokoan zegoen ilehoriak lo jarraitzen zuen eta, horrela, Aghios jaunak, ikuskatzaileaz banatzean, emazteaz banatzean izan zuen askatasun-sentzazio bera izan zuen. Eta askatasun hura zenbait gogoetatan gauzatu zen. Soro batean elkarrekin lanean ari ziren gizon bat eta andre bat ikusi zituen. Andre gazte batena zen aurpegi irribarretsua baizik ezin izan zuen ikusi, trenaren abiadak gizonarena ere ikusteko aukera eragotzi ziolako. Itsusiak edo ederrak izan zitezkeen, ez zuen axola. Ez zegoen esaterik ezkondata zeuden ala ez. Baina kontua da elkarrekin egiten zutela lan eta elkar maite zutela; edo, hobeto esanda, jatorriz sexuala zen elkarte

bat osatzen zutelarik, interes partekatuko elkar-
te batean amaituko zutela, zeinak honakoak bil-
tzen baitzituen: lantzen ari ziren soroa eta etxe
urruna, han non lo egingo baitzuten. Hori iruzu-
rra! Konturatu gabe, eztiki harrapatuak izango
ziren, haien berezko berotasunak bilduak eta
kateek estaliak. Aghios jauna bidaian egon ez
balitz, soroan kantari zeuden bi haietatik andrea-
ren itxurari baino ez zion erreparatuko, gero
senarraren errukiz edo inbidiatan gelditzeko.
Bera ere, kateez estalita, ez zen harantzago
ikusteko gauza izaten, baina orain, bidaian, altxa
egiten zen pertsonaren patuan etxeko abere
guztien huraxe bera ikusteraino. Txitoek ez
zituzten tratu txarrak hartzen. Oso bestela,
gehien komeni zitzaien bazka ematen zitzaien.
Kontua zen, une jakin batean, zintzurra mozten
zitzaia.

Eta, beldurgarria izanik ere, bigarren irudipen
batek eman zion Aghios jaunari bere pentsamen-
duen bikaintasunaren froga. Mestrera iritsi baino
apur bat lehenago, andre zahar, oso lodi bat
zegoen orratz-zain. Bazirudien bularraren lodie-
rak zutik egotea eragozten ziola. Eta Aghios

jauna sutu egin zen mundu honetan egon daitekeen bidegabekeriarik handiena iruditzen zitzaionagatik. Andrearen bigarren mailako sexu-organoek, munduko landare goxoenek, maizegi amaitzen zuten tortura bihurtzen ezertarako balio ez zioten harentzat. Eta Aghios jauna gogoratu zen, irten baino pixka bat lehenago, antzeko zerbait ikusi zuela eta, urrunduz, xuxurlatu zuela: «Norbaitek hilko balu...!». Horra zeinen bikainak bihurtzen ziren haren pentsamenduak bakardadean.

Mestretik irteteko unean, txokoan zegoen ilehoria mugitzen hasi zen. Lozorro batetik irtengo balitz bezala, nagiak atera zituen eta argi eta garbi esan zuen murmurio batean:

— Zein ederrak diren ametsak! Lastima haiek utzi beharra!

Izugarrizko gertakizuna izan zen Aghios jaunaren bidaian halakorik entzutea ezezagun batek esana. Tupustean, benetako hurko ezezagun baten intimitatean onartzen zuten. Harekin ez zegoen erretzen ibili beharrik hurbildu ahal izateko. Zetorren bestean erantzun nahi izan zion bere intimitatetik ere zerbait eskainiz:

— Ni, lo egon gabe ere, amets egiteko gauza naiz —esan zuen irribarretsu.

— Bai, egia da —esan zuen ilehoriak tristu-raz—, egin liteke. Errealitatea latzegia ez denean eta ahaztu daitekenean.

Irribarrez begiratu zion Aghios jaunari. Hala-ko hitzei jarraitzen zien irribarre hura bidaiaren ezerezean ohikoa baino estuagoa bihurtua zen harremanaren lekuko zen. Dagoeneko estu eza-gutzen zuten elkar. Aghios jauna, begiak ixten zituenean, errealitatea desagertzen zitzaion gizon zoriontsua zen. Mutila, orde, ahanzteko lo egon behar zuen gizon atsekabetua. Bi patu, edo agian, bi jite.

Aghios jaunak, beste ezer egin behar ez duen bidaztiaren sentimentaltasunak bultzatuta, lagundu nahi izan zion:

— Zuek, gazteok —esan zuen—, sarritan garrantzi gehiegi ematen diezue garrantzirik ez duten gauzei. Begira, lo gehiegi egin nahi ez baduzu, errealitateari garrantzia kentzeko aski da honako hau pentsatzea: non izango ote gara gu ehun urte barru? Bakea besterik ez dugu izango, eta beraz, erraz aurrera genezake. Gure

inguruan mugitzen diren gauza guztietatik, bagoi hau baino ez da mugituko, Trenbide-sare Nazionalak denbora asko behar baitu gauzak bakean uzteko.

Ilehortiak barre egin zuen eta ahots goraz onetsi zuen:

— Bai, horixe, Trenbide-sare Nazionala oso aurreztailea da.

Bere baitara bildu zen gero, beste erantzun baten bila edo. Baina bere maskorrean ezkutatu zela zirudien, arrotz batekin mintzatzeaz damutu balitzaio bezala, eta begirada esanguratsu, herabe eta erregutzaile batez, esan zion Aghios jaunari:

— Ulertzeko, dena jakin beharko zenuke eta hori ez da posible —eta leihatilatik aintzirako lehen ubideei begiratzeari ekin zion.

Aghios jaunak, maiz egiten zuen bezala, bere buruari errieta egin zion:

— Etzazu auzoko lapikoan atzamarrik sar.

Baina, bestalde, erakutsi nahi zion mutilari ez ziola inolako arrangurarik berarekin asaskatu nahi ez zuelako, eta berak ere leihotik begiratzuz esan zuen:

— Inork esango luke hemen aintzirak lehorra-
ri hartzen diola gaina, eta alderantziz da, lehorra
da aintzirari erasotzen diona. Begira pitzatutako
lautada lohitsu horiek. Ez dira hamar urte urak
estaltzen zituela.

Eta luzaro mintzatu zen aintzira eta lehorra-
ren arteko mendeetako lehiaz eta kontatu zuen
zenbat gastu eta neke zekarren berarekin aintzi-
rari iraunarazteak. Horregatik ezin zuen Vene-
ziak lehorrarekin lotuko zuen beste zubirik jasan,
zeren eta aintziraren hondoan jarritako hesola
orok bestela kanporatuko litzatekeen lokatza bil-
tzen baitzuen bere inguruan, eta hori beste
eraso bat zen aintzirarentzat.

Aghios jaunaren bidaiari interes berri bat
eransten zion honek. Aspaldi ezagutzen zuen
Aghios jaunak hiltzorian zegoen aintziraren isto-
ria, zeina Ravenakoa bezala iraungitzeko
hurren baitzegoen. Baina emazteak ere baze-
kien, berarekin Venezian bizi izan zelako eta
berari askotan entzun ziolako. Aurrean zuen
solaskideak, aldiz, nahiz eta ziurrenik veneziarra
izan, aintzirari buruz ez zekien ezer eta begirik

kendu gabe entzuten zion, aitzaki gisa zera murmurikatzen zuen bitartean:

— Nik gauza horietaz ez dakit deus ere, egu-nero lanera joan behar izaten dut eta.

Eta Aghios jauna, kontatu, erakutsi eta asmatu ahal izateko pozak hordituta (ez zen inondik ere egia aintzira babesteko hainbeste erreka desbideratu behar izan zenik), oroitu zen oso gutxi ezagutzen zuen pertsona batek poeta deitu zuela lehenxeago. Zer gauza eta zenbat pertsona ezagutzen ziren bidaietan!

Ileheriak hasperen egin zuen:

— Jainkoak daki zer egingo dudan Venezian gauerdia arte, nire trenaren ordua iritsi bitartean.

— Zeu ere gauerdian irtengo zara? —galdetu zuen Aghios jaunak.

— Bai —esan zuen ileheriak—. Neure kontu batengatik noa Goriziara eta bihar Udinera itzuliko naiz.

— Orduan, nahi al duzu trenari elkarrekin itxarotea? Nik San Markosera joan behar dut, ordu erdiko kontua. Nirekin etorri nahi baduzu, gonbidatuta zaude.

Azkeneko adierazpen honek ez zuen zalantza izpirik uzten. Ilehortiak bistakoa zen esangura azpimarratu nahiko balu bezala esan zuen:

— Eskertzen dizut zure zintzotasuna, baina ez nizuke enbarazurik egin nahi.

Bazirudien Aghios jauna ondo ezagutzen zuela. Erantzun horrekin kontratu bat sinatu zuen eta Aghios jaunak kontratuen erlijioa zuen. Hitza ematen zuenean lotuta eta estekatuta sentitzen zen. Gonbidapen hitza eman zuen eta besteak ulertu izanaren keinua egin zuen. Ez zegoen atzera egiterik.

Horregatik Aghios jaunak errepikatu egin zion eskaintza. Besteak, hala ere, ez zuen onartzen.

Dagoeneko aintziraren erdi-erdian ziren. Urrun, Aghios jaunak ongi baino hobeto ezagutzen zituen Muranoko argiak ikusten ziren. Saia-tzeari utzi eta lagun berriari Muranoz eta hango kristalez hitz egin zion.

4. VENEZIA

Geltokitik irten ziren, beren bi ekipajeak gordailuan txartel bakar baten truke utzi ondoren.

Aghios jaunak plan jakin bat zuen: baporetxoarekin Riva del Carbon-era joan eta handik, oinez eta nagiak ateratzeko, San Markosera. Bestalde, bakarrik ibiltzeko moduan ezagutzen zuen Veneziako karrika bakarra zen eta lagunak, Veneziara zetorren bigarren aldia izanik, ez zuen gehiegi ezagutzen.

Beraz, baporetxora abiatu ziren. Aghios jauna txartelak erosteko zorian zegoen, oraindik bere gonbitea erabat onartu ez zuen laguna atzetik zuela, eta norbaitek deitzen zuela entzun zuen:

— Aghios jauna!

Jiratu egin zen. Bortolo zen, Muranoko gondolaria. Aghios jaunak estimazio handiz agurtu zuen:

— Zer moduz? Zer egiten duzu hemen oinezko gisa? Gondola saldu duzu ala?

Gondolaria, berrogeita hamar bat urteko gizona, luzea eta argala zen, gihar hutsa goitik behera, eta begi urdin eta bizi bik argitutako aurpegi zimurra zuen. Maitagarri eta adeitsu agertu zen eta, ezer baino lehen, Aghios jaunaren osasunari buruz galdetu zuen, gero Eleonora andrearenaz eta azkenik semearenari buruz. Orduan, eta ez lehenago, esan zien gondola hantxe zuela, haien esanetara:

— Egingo zenidake ohore? Goazen San Markosera.

Aghios jaunak barre egin eta tratua egin nahi izan zuen. Galdetu zion ea zenbat ordaindu beharko zuen gauerdia arte, bere trenaren ordua arte, gondola eskura izateagatik.

Bortolok ez zuen traturik egin nahi izan. Beti zen horrela. Gero, zerbitzua amaituta, ez zen erraza izaten hura pozik uztea. Gondola hark Aghios jaunak entzutez ezagutzen zuen dibertsiozko lokal baten antza zuen: sarrera librea zen, ordaindu, irteeran ordaindu behar zelako.

Baina, beti bezala, Aghios jauna bat etorri zen. Hitz egin baino lehen bazekien besteak zer erantzungo zion baina, hala ere, aurretik hitz

egin nahi izan zuen ordaintzeko ordua iristen zenean neurriak hartuta izateko.

Lagun gaztea berarekin joatera gonbidatu zuen eta, Bortolok gidatuta, moilara jaitsi ziren. Bortolok baltsa batera egin zuen salto, gero gondola batera eta, azkenik, berea zen hartara. Zutitu egin zen, jeneral bat gudu- -zelaian bezala, eta mugitzeko eta ibai-bazterrera iristeko bide egiteko modua bilatu zuen. Ondoan zegoen bati mugitzeko eskatu zion, baina besteak hitz zatarrez ezetz erantzun zion. Azkenean Bortolok zerbait erabaki behar izan zuen eta esan:

— Aghios jaunak ederki ezagutzen du aintzira eta nik ikusia daukat Canonica ibai osoa txalupaz txalupa saltari zeharkatzen. Eta zu (eta Aghios jaunaren lagun ezezagunarengana jiratzuz) ez dakit zure izena, baina bistakoa da gaztea zarela eta erraz egingo duzu salto. Lagunduko dizuet.

Ibai-bazterrean lotutako lehen txalupara itzuli zen, txopan belaunikatu eta bere beso sendoa eskaini zion Aghios jaunari, zeinak baltsara erraz saltatu baitzuen. Lagunak balantzaka jarraitu zion. Zailagoa izan zen zeharkatu behar zuten

beste gabarra arina igarotzea. Mutila uretara erortzeko, eta berarekin Bortolo bera eramateko, zorian egon zen. Une txar bat izan zen hura; Bortolo onik atera zen, baina mutikoak min hartu zuen belaunean gabarraren ertza jo baitzuen.

Bortolok ez zekien nola adierazi gertatutakoa sortzen zion nahigabea. Esaten zuen ez zekielarik txalupak ezagutzen ez zituen pertsona zenik:

— Sentitzen dut, benetan. Badakit zeinen minbera den belaunezurra haustea.

Aghios jaunaren lagun berria bere lekuan egokitu zen eta belauna igurtzitzen zuen.

— Ez da ezer izan —esan zuen marmarka—. Nire errua izan da. Arreta gehiago jarri behar nuen.

Eta zer moduz zegoen galdetzen zion Aghios jaunari ere, ez zuela hartaz mintzatzea merezi esan zion.

Gondola abiatu egin zen ur gardenetan. Jada desagertua zen eguzkiaren azken printza ahaztuek argitzen zituzten eta opari bat, fereka bat ziren udazkeneko soro-zelaietan zehar bidaia bat egin duenarentzat. Aghios jaunak plazara bide

motxenetik eramateko agindu zion Bortolori. Itzultzean Ubide Nagusitik igaroko ziren.

— Giacomo Aghios deitzen naiz —esan zuen Aghios jaunak albokoarengana jiratzuz. Ziurrenik, gondolariak mutilaren izena ez jakiteaz lehenxeago esan zuenak bultzatu zuen aurkezpen hura egitera.

Mutilak Aghiosek luzatzen zion eskua estutu eta une batez zalantzan geratu zen. Baina berehala azaldu zuen bere zalantzaren arrazoia:

— Hori kasualitatea! Ni ere Giacomo naiz. Giacomo Bacis. Izenak argi erakusten du Friuliko naizela. Zu ere bai, ezta?

— Ez, ez! —esan zuen Aghios jaunak eta barre egin zuen gogotik—. Ni zelta baino askoz antzinagokoa den arraza batetik nator.

— Grekoa? —galdetu zuen Bacisek liluraz. Aghios jaunak baietz esan zion.

— Erosoa da —esan zuen— beste arraza batekoa izatea. Beti bidaiak egiten ariko bazina bezala. Pentsamendua libreagoa da. Eta gehienetan ez nator bat italiarren ikuspuntuarekin, eta ezta grekoen ikuspuntuarekin ere. Nire adostasuna lortu zuen azken grekoa Sokrates izan zen.

— Ni —esan zuen Bacisek— bi hizkuntza eta dialekto bat dakizkien friuliar horietako bat naiz. Beraz, ni ere bidaiatzen ari naiz.

Milango geltokiaz geroztik estreinakoz barre egin zuen, barre ugaria, haurarena bezalakoa, eta berehala hurbildu zuen Aghios jaunaren bihotzera, eta agureak pentsatu zuen: «Zein argia den nire lagun berri hau. Berehala eta oso-osorik ulertu du bidaztia aparteko pertsona bihurtzen duen teoria, eta nik horren gauza sinplea egiteko kasik hirurogei urte behar izan ditut».

Trenbidearen zubia igarota, begiratu bat egin ahal izan zioten Ubide Nagusiari. Arratseko erdi-lunaren apaltasunak hobeto nabarmentzen zituen ur haren eta marmol haien gaineko kolore eta lerroak.

Halako batean ibaian sartu ziren, eta han ubidearen forma izugarriak murriztu eta itxura kapritxosoen arabera aldatzen ziren, zeinak haien zentzumenak oraindik askatu ez dituen melodia ozen baten jarraipena, edo areago integrazioa, baitziren. Venezian zinez pentsa daiteke eraikuntza bikain guztiek zatiren bat utzi eta zati

horiek izaki txikiak osatzeko balio izan dutela. Izaki txiki horien arteko antza xehetasunetan egongo litzateke baina erabat desberdinak izango lirateke espresioan.

Eta ontasunaren gondola (han zeudelako Aghios jauna, eta berak tristura handi batetik erauzi zuen laguna, eta haientzat pozik arraun egiten zuen gondolaria) ibai ilun, misteriotzuan aurrera zihoan. Batzuetan marmolezko atrakaleku handi batean zabaltzen zen, besteetan berdeak gainezka egiten zuen pareten artean estutzen, iluntasunean nabariak baitziren harri eta ur gazizko giro hartan bizirik zeuden arbolak.

— Zoragarria —xuxurlatu zuen Bacisek.

Pozaren pozez, Aghios jauna ez zuen azalak hartzen. Gure hizkuntzan esan daitekeen modurik sutsuenean eskerrik beroenak eman balizkio te bezala izan zen hura. Eta berak, aldi berean, arbaso piratei diosal adeitsu bat egin zien, beren txalupa txikietan atera baitziren munduan barrena bitxiak bilatu, etxera eraman eta han guztiontzat bikain izateko moduan jartzeko. Batek daki nondik etorria zen ibai ilunean ate baten aurrean uraren garaiera erakusten zuen harri zuri hura.

Litekeena zen borroka baten erdian pirata bat hari begira geratu izana eta, ibai lasaiko bere gela lotiaz gogoratuz, gauza pisu hura kargatzea, jada bukatuta zegoen etxe batean lerro berri bat marrazteko?

Aghios jaunak Veneziaren historia eta Venezia bera oso arinki ezagutzen zituen. Horregatik bihurtzen zituen bere ezagupenak hain erraz sentimendu. Beste greko batzuek ere ezjakintasuna sari bihurtu zuten. Berak jauregi bat edo besteren izena ezagutzen zuen, baina batez ere bazekien zein zen ubide txikietako eta Ubide Nagusiko jauregien arteko desberdintasuna; azken horiek fatxada apainduak, zoragarriak zituzten, nahiz eta batzuk apur bat harroskoak izan inguruko handitasunarekin lehian baleude bezala, eta oster, alboetako ubideetako jauregiak karratuak eta osoak eta inguruari egokituta zeuden, hori zen behintzat garrantzitsuena. Ez zuen Venezia ezagutzen, baina teoria bat zuen Veneziari buruz.

Gero ikusi zen Aghios jauna cicerone txarra zela. Noal ibaia ikusteko gogo bizia sortu zitzaion, urte asko baitziren ez zuela hura ikus-

ten, eta ubideetatik pasatzen ziren bitartean, eta baita Saluteren eta San Markosen aurrera iristen ziren bitartean ere, ez zion ibai zabal, lasai eta apal hartaz hitz egiteari utzi, zeina bizitza lasaiak eta edertasun-beharrak baino ez baitzuen ondu.

— Goazen ba —proposatu zuen Bacisek aha-
peka.

— Ezin da —esan zuen Aghiosek hasperen batez—. Zortziak dira. Plazan ordu erdi bat galduko dugu ziurrenik. Gero, zorioneko Bortolo honekin, gutxienez ordu bete beharko dugu plazatik geltokira iristeko eta, amaitzeko, jan ere egin beharko dugu, zeren gauez gure trenean ez baitugu ezer aurkituko Triestera iritsi arte.

Bestalde, eta barne-barnean, Aghios jaunak onartu behar zuen: ez zitzaion arratsalde hartan Noal ibaia ikustea komeni. Urrutian hain desiratu, plazatxoaren gainean jarrita eta San Giorgorantz begiratzuz, zerbait izugarria bihurtzen zen. Desirak eta hura lortzeko ezintasunak edertzen zuten.

Eta dogoen jauregiaren aurrean ere, Aghios jaunak Venezian zegoen zurezko zubi bakarrak hitz egiten jarraitu zuen, hura ere *bere* ibaian...

Gero, bera ere ohartu zen ezin ziola Noal ibaiatz hitz egiten jarraitu hura sekula ikusi ez eta San Markoseko elizari txundituta eta kontzentratuta begira ari zitzaien inori.

Orduan, Aghios jaunak hitz egin zion Veneziak bizi izan zuen ordu laurden ikaragarriaz, ez gerra garaian, askoz lehenago baizik, Campani-lea erori zenean. Eta kontatu zion nolako ikara sortu zuten Jauregiaren egoerak, Bibliotekaren lerradurak eta Canonica ibaira ematen duten pareten eskoramenduak, bendaje haiek izugarrizko arriskua baitziren eta baita haginekoarena bezalako oinaze bat.

Aghios jaunak proposatu zion Bacisi, elizaren aurrean gera zedin berak salto batean Mercerie kalean bere egitekoa betetzen zuen bitartean. Eta, abiatuz, Aghios jaunak benetan pentsatu zuen: «Hobeto ikusiko du Venezia bakarrik uzten badut. Nik, poeta honek, ez dakit neure inpresioak adierazteko balio duen ezer esaten. Historiaz ezer ez dakit, estiloak ez ditut ezagutzen, beraz...». Eta konturatu egin zen nahikoa zela pertsona bakar baten konpainia luzea bidaiaren askatasun handia zapuzteko. Ba al zegoen eza-

gutzen ez ziren gauzei buruz hitz egin beharra baino askatasun kaskarragorik? Eta gero pentsatu zuen: «Ez al litzateke hobe izango lagun berriagandik banatzea?». Mingarria gertatuko zitzaion, berak bat-bateko estimua sentitzen zuen gizona baitzen. Eta zalantza uxatu zuen pentsatuz beretzat hobe zela ezagutzen zuen norbaitekin igarotzea gaua. Bularraldeko sakela ukitu zuen.

Meuli jauna, berrogeita hamar bat urteko gizona zen; oraindik ilehoria, baina burusoil, lodi eta konkortua. Dendan zegoen saltzaile batekin eguneko balantzearen antzeko zerbait egiten. Paper txiki batean idatzitako oharra aztertzen zituen, saltzaileak belusezko kutxa batean bri-liante solteak kontatzen zituen bitartean.

Aghios jauna sartzen ikustean, ez zion lanari utzi eta, papertxoari eta saltzaileari begirik kendu gabe, galdetu zion:

— Nolatan zu hemendik?

Aghios jaunak emazteak agindutako mandatuaren berri eman zion. Ehun mila baino gehiagoko negozio bat zekarkion, baina ez zirudien

horrek Meuli hunkitzen zuenik. Areago, babesle-jite bat hartuz esan zuen:

— Pozik nago perlazko lepoko hori beste inori agindu ez izanagatik. Horretan geratzen gara beraz. Zure emaztearen adiskidearentzat perlazko lepokoa gordeko dut eta kito; dena esanda dago —eta gero—. Venezian geldituko al zara?

Aghiosek gauerdian irten behar zuela erantzun zion.

— Merkantzi trenean? —esan zuen Meulik harrituta.

— Ezin zen besterik egin. Veneziara arratsaldeko zortzietan iritsi naiz eta Triesterako tren azkarra seietan irten da. Triesten goizean goiz egon beharra daukat.

Meulik barrez begiratu zion. Aghios horren pertsona motela iruditzen zitzaion ezen, bitxia iruditzen baitzitzaion azkar ibili behar zuela entzutea.

Aghios jauna Meuli ohi baino konkortuago eta zurbilago topatu izanaren irudipenarekin aterazen dendatik. «Gaixorik ote zegoen? Dirua egiten hain okupatuta zegoenez, konturatu gabe hil zitekeen».

Heriotza bizitzaren ezinbesteko premisa da eta Meuli bezalako jendearena ez zegoen zertan gehiegi dolutu beharrik. Kontua ez zen Aghiosek heriotza opa zionik, batez ere Meulik utzitako lekua beste Meuli batek beteko zuelako; baina, egia esan, ez zegoen Meuli hori gehiegi deitoratuko zuen inor. Arreba pobre bat edo beste uzten zituen eta haren heriotzarekin azkenean aberastu egingo ziren.

Meuli eskola-lagun izan zuen Triesten. Gero, munduan zeharreko bizitza abenturazale bati ekin zion. Ez zuen hari buruz gehiegi hitz egitea maite, baina esaten zen Jamaikan esklabo-tratulari ere izan zela. Dena den, Triestera sosik gabe eta zarpailtsu itzuli zen. Baina beste zerbait zekarren berarekin: zazpi hizkuntzatan mintzatzzen zen, bat bera ere idazten ez zekien arren. Aghios jaunak bazekien ingelesez hitz egiten eta harrituta gelditu zen bezero batekin hizkuntza hartan hitz egiten entzun zion batean. Hitzak aho anglosaxoniarrak batetik aterako balira bezala ahoskatzen zuen. Litekeena zen agurtzeko eta inor korapilatzekeo behar zituen hitz apurrak besterik ez ezagutzea, baina hala ere zoragarria

gertatzen zitzaion Aghios jaunari, hainbeste urtetan ingelesa ikasten eman ondoren ahoa irekitzen zuen bakoitzean inork ez baitzion ulertzen.

Pirata berriak, bere etxea apaintzeko harribat ekarri beharrean, hura eraikitzeko zazpi hizkuntza ekarri zituen. Baina horretarako beharrezkoa zen zazpi hizkuntza haiei etekina ateratzeko modua aurkitzea, idazten ere jakitea eskatuko ez zioten leku batean. Eta txori harrapariaren begiz, Meulik munduko punturik internazionalena aurkitu zuen: San Markos plaza. Han lehorreratu behar zuen. Baina ez zen erraza, itxura harekin eta sakelan sosik ere ez zuela. Eta horretan esku hartu zuen Aghios jaunak, bizitza beroagoa egiten zioten ekintza horietako batekin: Meuliri jantzi batzuk, zapatak eta barruko arropa oparitu eta sakelan dirua jarri zion.

Urteak igaro ziren eta Meulik gora egin zuen, arrotzekin hizkuntza bakoitzeko ehun bat hitz erabiliz eta haiei hasieran farfailak eta gero bri-lianteak salduz. Behin batean, Aghios jaunak bihotza emaztearekiko eskerronez beteta sentitu zuen. Noizean behin gertatzen zitzaion. Irudi-

tzen zitzaion hartaz gutxi arduratu izan zela, emaztea, aldiz, beragatik etengabe arduratzen zenean. Baina, halako hartan, menturak sakelan ohikoa baino diru gehiago eduki zezan nahi izan zuen eta perlazko lepoko bat oparitzea erabaki zuen. Aghios jaunak gauza haietaz ez zekien deus ere baina ideia bikain bat izan zuen: Meuli adiskide zaharra zuen eta hainbeste zor zion ezen, hartaz fio ahal izango baitzen. Erosketaz arduratzeko eskatu zion eta bitxia iritsi zenean zalantza izpirik gabe emazteari eman zion. Eleonora andreak oparia eskertu zuen baina, aldi berean, prezioa jakin nahi izan zuen eta berehala Meulik iruzur egin ziola oihu egin zuen. Perlazko lepoko hura neurri guztietako maspilez josia zegoen.

Aghios jauna haserretu eta Veneziara joan zen korrika. Dirua erraz berreskuratu zuen baina hura ez zitzaion aski eta Meuliren azalpenak nahi zituen. Hark azkenean, eta halako tristura batez, esan zion bitxiak ez zirela gutunez erosten. Perlen kasuan bereziki pisu eta neurriak ematea ez zela nahikoa. Halako agindu bat jasoz gero, bitxi-saltzailezahar baten bihotzak onartu egin behar

zuela Probidentziak eskaintzen zion opari berezi hori.

Kontu hura erabat konponduta egon arte, ez zen hitz egin Aghios jaunak egin zion antzinako mesede hartaz. Baina, behin batean, Meuli harrotu egin zen kontu hura bertan behera uztean izan zuen jokabide zintzoaz. Aghios jaunak ezin izan zuen halakorik isilik jasan eta oroitarazi egin zion Meuliri Venezian haren harrapakina jasotzeko *lurreratzea* posible egin zion mesedea. Meulik begiak bildu zituen, behinolako garaien iluntasunean ikusteko ahalegin handia egitera behartu nahi balie bezala. Gogoratu eta irribarrez esan zion:

— Orduan, mesede horri zor diot eskaintzen zenidan begirunea? Mundu honetan ez dago babestua izatea baino gauza hobeagorik.

Aghios jaunari izugarri gustatu zitzaion azalpen zorrotz hura eta esker txarreko lagunaren adiskidetasuna gorde zuen. Bistakoa zen, bederen hizkuntza batean, bazekiela gauza egokiak esaten. Baina harekin traturen bat egin behar izan zuen hurrengoan, begiak zabalik izan zituen. Horrela bien artean dena argi geratu zen

eta haien adiskidetasuna ez zen gertaera tamalgarri harengatik lausotu.

Bacis oraindik plazaren erdian zegoen lilurata begira, Aghios harengana iritsi zenean.

— Orain —proposatu zuen—, geure gondolan sartu eta txango eder bat egingo dugu geltokiraino.

Abiatu ziren. Bazegoen Veneziako historian Aghiosek zehazki ezagutzen zuen gauza bat: dogoen jauregiaren sutea eta haren data. Baina, berehala berregin al zuten? Plazatxora bidean Aghiosek pentsatu zuen: «Nahikoa informatuta nagoen ala ez ikusi beharko dut». Eraikuntza zoragarri haren aurrean, festa haren aurrean, inork ez baitzuen pentsatzen ziegen eta estolden tristura ere gordetzen zuela, Aghios jaunak leihoen arteko eta baita erdiko balkoiaren arteko forma desberdintasunaz ohartarazi zuen Bacis. Alderik bikainena suteak ukitu ez zuen hura zen. Berriro eraiki zutenean dirua aurreztu nahi izan zuten ala zerbait berria asmatu nahi izan zuten? Egiatan ez ziren forma desberdintasun hura ezkutatzeko saiatu, eraikuntza berriaren antolaketan nabarmena baitzen. Zein maite zuen

Aghios jaunak Venezia bikaina eta Venezia apala ezkontzen zituen jauregi hura! Horra hor indar natural baten eraginak, suak, osatu zuen lana. Eta Italiako ministro batek jauregia sutearen aurreko itxura berarekin berregitea proposatu zuen, baina jauregiaren ondoan haziak zirenek uko egin zioten. Egun, Venezian edo beste non-baiten suterik egongo balitz, antzinako diseinura jotzea beste erremediorik ez litzateke egongo, kanpandorrearekin egin zen bezala. Baina lehen? Garai batean suteak antzinako plantari aldaketak egiteko aukera bat baizik ezin zuen izan, zeina berriro asmatua izateko bezain bizirik baitzegoen.

Makiladun gizonak lagunduta igo ziren gondolara. Hura Veneziako ibilbide guztietan egoten zen laguntzeko prest. Aghios jaun baldarrak asko eskertu zuen laguntza eta eskupeko bat eman zion irribarrez hain adeitsu izan zen gizonari. Behin Bacisen ondoan eserita, esan zion:

— Makiladun gizona benetan beharrezkoa da Venezian eta, Veneziako beste gauza asko bezala, hutsala iruditzen zaio ezagutzen ez duenari.

Igarotzen ziren heinean, Aghios jaunak eza-
gutzen zituen jauregien izenak esaten zituen.
Sarritan zuzendu zion Bortolok, goitik solasaldia-
ri adi baitzihoan, gondolan haiekin eserita bale-
go bezala. Arraun bakarreko gondola da mundu
honetako garraiabiderik motelena, zeren gondo-
lariaren indarraren zati bat geldiaraztean gal-
tzen baita eta, ondorioz, oso mantso ibiltzen da,
ez museo batean baino azkarrago.

Aghios jaunari ez zitzaion axola izan —gondo-
lariaren zuzenketak zirela eta— ez horren jakin-
tsu azaltzea. Arima barruan beste altxor batzuk
zituen eta ez zuen haietaz mintzatzeko beharra
sentitzen. Ubide Nagusiaren isiltasunean, gau
ilun hura ariman ezabagaitz irarria geratuko
zitzaion, zeinak oraindik distiratzten zuten hain-
bat gauza ikusteko argi nahikoa baitzuen. Eta,
guztien erdian, ontasunaren txalupa hark ere
distiratzten zuen: Bortolo gazte eta sendo hura,
txopan tente, eta alboan mutiko hura, zeinari
ordu erdiz nahigabe handi hura arindu ahal izan
baitzion. Ez hori baino askoz gehiago, izan ere
lehenxeago Bacisek negar-zotina zirudien has-
peren bat igorri baitzuen. Aghios dardarka jarri

zen oinaze-zantzu haren aurrean. Une batez zalantzan geratu zen kontsolamendu-hitzen bat esan ala ez, baina gero isiltzea nahiago izan zuen. Ez zegoen muturra sartu beharrik.

Orain Bacis gondolan etzanda zegoen, lehenxeago bagoiko txokoan egon zen bezala. Luzaro isilik geratu zen. Eta luzaro pentsatua behar zuen hitzaldi batekin harritu eta hunkitu zuen Aghios jauna:

— Ni ez naiz zuk, jauna, merezi duzun laguna. Gaurkoa nire bizitzako egunik zoritxarrekoa da eta ez dut sekula ere ahaztuko zu, zeure zintzotasunarekin, jasangarriagoa egiten saiatu zarela. Zuk esku hartu izan ez bazenu, ni orain geltoki goibel hartan gora eta behera ibiliko nintzen.

— Eh! Geltokia ez da hain tristea! —esan zuen Bortolok umore onez—. Nora joan jakin behar! Badago taberna bat sekulako ardoa...

Eta, arrauna utziz, eskuineko eskua ezpaine-tara eramane eta muin egin zion.

Mutikoak ez zuen erantzun. Aghios jauna ere isildu egin zen, nahiz eta nahigabetu egiten zion

hitz batekin ere ezin saritzea Bortolok haiek alaitzearren egin zuen ahalegina.

— Ikusiko duzu —bururatu zitzaion—, egunik goibelenari beste alaiago batzuk jarraitzen diote.

— Ez da posible —esan zuen Bacisek biziki.

— Gazteek beti uste dute azkenera iritsiak direla —bota zuen Bortolok—. Mundua mundu denetik, adin horrekin egunean behin erortzen da.

Hitz horiek aurrekoak baino hobeak izan ziren. Irribarre batekin Aghios jauna gondolaria-rengana jiratu zen:

— Bada, gondolarien artean suizidioak urriak dira oso, baita gazteak zaretenean ere.

Gondolariak apur bat pentsatu zuen erantzun baino lehen, eta aurrerantz makurtu zen arraunari kolpe indartsu bat emateko. Gero, berriro zutituz, esan zuen:

— Egia da, bai.

Berriro aurrerantz makurtu zen, mantso eta pentsakor. Eta, arraun eginez:

— Gu, pobreok, hain ohituta gaudenez geure bizitza aurrera ateratzen, ez dugu nolanahi galdu nahi izaten.

Indarrez, baina ahapetik, gondolariak ez entzuteko edo, Bacisek, Aghios jaunaren belarri-
ra inguratuz, esan zuen:

— Ni ere *pobrea* naiz baina nire oinazea han-
diegia da eta orain ez dakit zer egin aurrera ate-
ratzea horrenbeste kostatu zaidan bizitza horre-
kin.

Oinaze sumindua antzematen zen hitz haie-
tan. Aghiosek ez zuen baina oinaze hartan pen-
tsatu, ikaratuta bere buruan baizik. Ongi egin
zuen halako lagun bat bere gain hartzen zeinak
edozein unetan hantxe bertan bere buruaz beste
egin baitzezakeen. Askoz atseginagoa gertatu
izango zitzaion emaztea lagun izan balu.

Berak ere ahapeka eta larritasunez esan zion
Bacisi:

— Espero dut nirekin zauden bitartean ez
duzula zeure bizitzaren kontrako ezer egingo.

— Ez, lasai egon —ziurtatu zuen Bacisek—. Bihar Udinen egongo naizela agindu dut eta bihar Udinen izango naiz, bai horixe. Gainera... nik ez dut hiltzeko gogorik. Hasteko, itxaropena daukadalako oraindik. Oso atsegina izan zara nirekin eta dena kontatuko dizut bakarrik geldi-

tzen garenean. Begira, maiteminduta nago eta maitasun hori traizionatu dut. Orain desagertzea lotsagabekeria izango litzateke. Dena kontatuko dizut. Neure sekretua zuri kontatuz, ez dut inor leku txarrean uzten. Biharko zuk nire izena eta gora-behera guztiak ahaztuta izango dituzu.

Aghios jaunak ez zuen ezer esan. Bazekien bidaiez gauza gutxi oroitzen zela. Aurpegiak igarotzen dira eta memoriaren txoko batean nahasita pilatzen dira; kolektibo, nazio, sexu bihurtzen dira baina sekula ez gizabanako. Amets batean bezala gertatzen zen: gau ilunean magnesio-txinpart batek gauzak eta pertsonak murgilaraziko balitu bezala da eta horregatik oso zail egiten da hartaz oroitzea. Bagoi batean hitz egingen da eta esaten den guztiak teoria lauso baten gustua dauka beste edozein bagoiaren antzekoa den bagoi haren barruan eta bagoi harekin zerikusirik ez duen paisaia batetik igaroz. Halaxe zen: hogeit hamar urte lehenago bera zihoan baporetik neskaxa batek bere burua bota zuen gauez; bera lo zegoen eta neskaxa hura ez zuen sekula ikusi. Baina, hain zuzen, bapore hartan zihoalako, berak ez zuen sekula neskaxa haren izena

ahaztu. Irudikatzen zuen nola, uretara erori ondoren eta agian artean hondoratu gabe, ikusi-ko zuen argitutako baporea urruntzen, gaua eta heriotza gainera abailtzen zitzaizkion bitartean. Goizean ikerketa bat egin zen baporean, eta berak totelka erantzun zuen, errudun sentitzen zelako: bera lo zegoela, agian neskatzak bere oharkabetasunaz damaturik eta bizitzari uko egin baino lehen, laguntza eskatu zuen eta berak lagun ziezaiokeen. Baina hori zen heriotza, mentura berezi eta garrantzitsua. Beste guztia ahaztua zuen. Jakina, bere gogoetak salbu: andre eder, zakur, katu eta baita pertsonei buruzkoak ere. Baina ez aurpegikerak. Zaila zitzaion (gutxienez berari) aurpegiaren ezaugarri bat gogoratzea eta oso erraza, berriz, espresio bat gogoratzea.

Bacisek, berriz ere, begiak itxiak zituen eta kuxinen gainean zetzan. Oinazearen oroitzapen biziak Veneziatik urruntzen zuen.

Aghios jaunak lasai utzi eta bere gogoetetara itzuli zen. Maiteminduta egon zen eta traizio egin zuen harako hark. Hitz haietan gizonen eta andreen menturaren sintesia zegoen zinez eta

Aghios jaunari iruditu zitzaion berriro zegoela abiada handian zihoan tren batetik gizonen eta andreen patuari begiratu eta pertsonak elkarren berdina duten aldea besterik ez ikusteko egoe-
ran.

Aintziraren isiltasun handian, gondola hartan bilduta zegoen bizitza besterik ez zuen ikusten. Eta nolabait ez zen bizitza bera, baizik eta hari begira zegoen begia. Hala ere, Aghios jaunak planeta osoan bizitza-eza irudikatu ahal izan zuen, nahiz eta granitozko jauregien aurretik igaro, non ez baitzen ziurra bizitzarik egotea. Egun batzuk lehenago, egunkari batean irakurri zuen lurra jada bizitzeko egokia zenean, txiripa batez beste planeta bateko bizitzaz kutsatu omen zela. Horrela dena uler zitekeen: hona behera iritsitako zomorro txikiek maitatzeari eta traizionatzeari ekin zioten eta dena hartu zuten, itsasoa eta lurra, maila guztietan hedatu eta maitatzen eta traizionatzen jarraitzeko.

— Adi nengoen arraunarekin zaratarik ez egi-
teko eta inor ez esnatzeko —esan zuen Bortolok,
gogorra baitzitzaion horren luzaro isilik egotea.

Jakina! Ez zegoen aintzira isilik igaro eta, aldi berean, hura ahazteko eskubiderik. Pesaro jau-regiaren aurretik igarotzen ari ziren, arteari eskainitako harri karratuzko tenplu ospela, eta Aghios jaunak Umberto Veruda, Triesteko pintore handia, aipatu zuen ozen, haren maisu-lana han baitzegoen.

Bacisek une batez begiak ireki zituen baina berehala itxi zituen berriro. Aghios jauna, ordea, oroitzapen hark berpiztu egin zuen. Aintzira veneziako biztanle guztiena zen eta baita berea ere. Zulo hartatik igaroz mundu handira iristen ziren.

Horren goian sentitzen zelarik, zergatik erori zen bat-batean Meuli, zazpi hizkuntzetako gizona, berriro gogoratzeko bezain baxu? Agian, inguruan zituzten gauza ederren erdian ordurako hunki ezina zirudien alboko laguna apur bat arintzeko gogoia izan zen. Eta izenik eman gabe, Meulirekin izandako gora-behera kontatu zion, alegia, egin zion mesedearen kontu hura eta hark nola ordaindu zion.

— Baietz asmatu —esan zuen Bortolok— nor den lotsagabe hori...

Eta beste bitxi-saltzaile baten izena esan zuen. Aghios kexatu egin zen baina Bortolok jarraitu zuen:

— Ederki ezagutzen dut! Horrelakoak egiteko pertsona aproposa da hori.

— Baina ezinezkoa da bera izatea, Triestekoa ez bada —esan zuen Aghiosek gogaituta. Inondik ez zuen nahi izango halako iraina uztea Ubide Nagusian barna egindako bidaiaren arrasto gisa.

— Corfukoa da baina. Oraindik okerrago —bota zuen Bortolok.

Aghiosek barre egin zuen horrenbesteko inozotasunaren aurrean, horixe baitzen eskupekoa handitzearren lan egin eta, aldi berean, hitz egiten zuen pertsonak erakusten zuena.

— Eta halako batekin oraindik hitz egiten duzu? —galdetu zuen Bortolok biziki.

— Jakina! Eta pozik! Oso bitxi-saltzaile ona da; oso gauza ederrak ditu eta nik neure adiskide guztiei gomendatzen diet, beti ere erne ibiltzeko ohartaraziz.

— Irendutako adiskide asko izango dituzu —esan zuen Bortolok, eta arrauna ubidearen hon-

doraino sartu zuen, gondolari bultzada eder bat emanez.

Aghiosek barre egin zuen gogoz. Gero Bacisi azaldu zion nola liluratu zuen Meuliren filosofia eder eta lasaiak.

— Aurkikuntza ederra da mesede bati etekina ateratzearen hori —eta barre egin zuen—. Ematen dut, eta gero, berriro ematen dut, pausu bati beste batek jarraitzen baitio.

— Gizon bikaina zara zu —esan zuen Bacisek ahots sakon batez.

Ez zituen begiak berriro itxi, baina gogoeta sakonetan murgilduta zirudien. Aghios jaunak ikusarazi zion Labia jauregia apaltasun gehiegiz Ubide Nagusian alde batera gelditzen zela eta azaldu zion, kondaira batek zioela, hura inguratzen zuen ibaiaren sakonean, oturuntza bakoitzaren ondoren botatzen zuten urrezko ontziteria asko zegoela, baina Bacisek distraitura begiratu bat baino ez zion eman.

Lehorreratzean, Aghiosek Bortolori zorra zenbatekoa zen galdetu zion. Bortolok hori jaunaren eskuzabaltasunaren gain uzten zuela esan zion.

Aghios jaunak eskuzabala izateko ahal zuen guztia egin zuenean, Bortolok esan zuen:

— Ondo da baina, ez duzu pentsatu ordu hauetan bakar-bakarrik itzuli behar dudala Muranora. Horregatik, zer edo zer gehiago mereziko dut, ezta?

Eta ikusita Aghios jaunari kontuak ez ziola bihotza gehiegi biguntzen, Bortolok esan zuen:

— Noal ibaitik pasa eta telegrama jarriko dizut. Ez nekien hain polita zenik. Horrela lehen-dabizikoz ikusiko dut.

Hori gustatu egin zitzaion Aghios jaunari eta eskuzabalago izatera bultzatu zuen.

5. VENEZIAKO GELTOKIAN

Geltokia huts samar zegoen. Jantokiko hiru mahaietan jendea zegoen eta bidaiarik egin behar ez zuen jendea zirudien, ez zuten ekipajerik eta. Andrerik ez. Diru-kutxaren atzean bat besterik ez, eta hura zaharra.

Bestalde, Aghios jauna Bacisen kontuak entzuteko irrikaz zegoen eta iharduera negatibo bat hartzen saiatzen zen: alegia, kontu horiek esateko pizgarri gisa hartuak izan zitezkeen kei-nurik egitea edo hitzik esatea bere buruari eragozten. Ez zegoen ingurura begira denbora galtzen ibiltzerik. Aghios jauna ez zen bidaian balego bezala sentitzen, etxean balego bezala baizik. Mutikoak besterik egitea pentsatu izan balu ere, hark ez zuen bestela jokatzera bultzatuko. Bacis eta haren tragediari hainbat gauza sakrifikatu ondorengo beste sakrifizio bat zen hura. Baina ezin zuen hanka sartzerik egin, zeren eta bidaie-tan egindako hanka sartzeak konponezinak baitira. Gure laguntza jaso duten pertsona horiek ez

ditugu berriro ikusten eta ez dago atzera konpontzerik.

Kamareroarekin unetxo bat galdu zuten. Aghios jaunak haragi hotza eta ardoa eskatu zituen. Denbora zuten aurretik zeren, gondola gauerdia arte hitz hartuta bazuten ere, Bortolok bere zamatik hamaiketarako libratzeko moduak egin baitzituen. Aghios jaunak eskaini zizkion ogi eta haragi zatia onartu zituen Bacisek, baina mokadu batzuk besterik ez zituen jan eta hori Aghios jaunaren setaren indarrez. Aitzitik, basokada ardo ugari hustu zituen ia oharkabea, ber baldian zehar puntuazio-zeinuak bailiran. Imitazioz, eta oharkabea halaber, asko edan zuen Aghios jaunak ere.

Ez zegoen Aghiosek hitzik galtzeko arriskurik. Hitz- -andana bat etorri zitzaion gainera. Hasieratik, hitzek gainezka egin zuten, eztarrian denbora luzeegiz gordeta egon balira bezala.

— Gondolan kontatu nahi nizun jada. Baina gondolaria zegoen han. Jainkoarren! Huraxe bai gizon jasangaitza! Enbarazu baizik ez zuen egi ten, atsegina zelakoan eta horrela eskupekoa

handiagoa izan zedin. Hura ohartu gabe altxa, inguratu eta uretara botatzeko gogoia eman dit.

Aghios jauna, arreta biziz, begira zuen eta estreinakoz horren argi ikusten zuen aurpegia aztertzen ari zen. Nerabe baten aurpegia zen hura, eta hark erakusten zuen haserre bizia lekuz kanpo gertatzen zen: begiak distirarazten zizkion, begi urdin, handi, eta ondo marraztuak, eta osasuntsuak, odol eta behazun arrastorik gabeko kornea orbangabeak erakusten zuenez. Ilea, horia eta orraztu gabea, gorriztatu egiten zitzaion argi haren pean eta bekokian noizean behin eskuaz kendu behar zuen xerlo bat erortzen zitzaion. Ezpain gaineen bilo leuna zuen eta harrigarri gertatzen zen beltzez jantzita, ondo lisatutako janzkia eta alkandora zuria zeraman pertsona batek egunetan egin gabeko bizarra eramatea, kontatzen ari zitzaion trajediaren zantzua agian.

Aghios jaunak Bortoloren alde egin nahi izan zuen:

— Gizajoa! Ahal duena egin du.

Bacis, hura onartu baino lehen, une batez pentsakor gelditu zen. Gero, Aghios jaunak arrazoi zuela onartu eta xuxurlatu zuen:

— Egia da; mundu honetan bakoitzak egin behar duena egiten du. Horrela egin izan banu, orain ez nintzen honen zorigaiztoko izango.

«Ezta ni ere» pentsatu zuen Aghios jaunak eta, azpimarratzeko, baso bat ardo eztarriratu zuen. Ondoren, ez zitzaion hain erraz gertatu Aghios jaunari Bacisen kontaketa hitzez hitz harrapatzea. Bacisek ingurukoek entzun ez zezaten ahotsa jaitsi behar zuen. Gero, denbora pasa eta gela erabat hustu zen. Arrotza, barra atzean zegoen andre zaharra besterik ez zen gelditzen, eta hura urrun. Orduan, Bacisek pixkanaka-pixkanaka ahotsa gehiegi goratu zuen, eta okerrago izan zen. Aghios jaunarena bezalako tinpano zahar batek, jakina, ez ditu soinu arinak aditzen. Baina, aldi berean, ez dago garrasia aztertu eta bereizteko prestatuta. Gorreriak, ordean, ez zuen eragotzi azalpenaren eragina. Garrasiak zein negarrak beren eragina galdu dezakete laguntzen dien hitza egokia ez bada.

Baina, oro har, kontaketa ulertu zuen. Ez zen istorio korapilatsuegia. Baxis, Friulin jaiotako milandar bat zen. Hamazazpi urte zituenean amaren lehengusu batek deitu zion Karniako Torlanora joan zedin eta baserria aurrera ateratzen lagun ziezaion. Lehengusu horrek alaba bakarra zuen, Berta, eta hasiera-hasieratik berak ere ulertu zuen, inork adierazi gabe, harekin ezkondu eta gobernatzen zuen jabetza oinordetzan hartuko zuela. Mutilak ez zuen neska maite. Areago, ezinikusi izugarria zion neskaren izaera larderiatsu eta harroari, baina bihotz gazte askotan hain indartsua den interesak bulztatuta, baserria eta neska maitasun berarekin maite zituen.

— Ziurrenik haren fisikoa ez zenuen gustuko —esan zuen bizitzaz horrenbeste zekien Aghios jaunak—. Emazte bat gustuko ez dugunean, ziur izaera desatsegina duela.

— Litekeena da —esan zuen Bacisek, bere pentsamenduaren haria eteten zuen ideia horrekin amaitzeko premiaz.

Baina, hala ere, ez zuen aurrera egiten asma-tzen oinak trabatu eta ibiltzea galarazten zion oztopo hura gainditu gabe.

— Anarekin maitemindu baino lehen, beste neska batekin maitemindu nintzen...

— Nor da Ana? —eten zion Aghios jaunak.

— Bertaren aitaren iloba da. Hark ireki zizki-dan begiak eta ohartarazi ninduen Bertarekin ezin nintzela ezkondu, ez nuela maite konturatu baino lehen. Baina, hain zuzen, bere izaeragatik ez nuen Berta maite. Ana baino lehen beste bat maite izan nuen, ez dakit noiz, neure lehen haur-tzaroaren garaian agian, baina badakit beste hori ere ahula zela, ahula, ezti-eztia, babes-beharra eta negarrari borrokari baino emana-goia.

— Fin-fina, hitz batean —esan zuen Aghios jaunak, gustu berberak izan zituelarik ederki ulertzen baitzion.

Ahaztu egiten zitzaion Aghios jaunari bere lehen asmoari setati eustea eta, ondorioz, Baci-sen kontaketa eteteko arriskua zuen.

— Fin-fina. Bai, fina ere bai —esan zuen Baci-sek amore emanaz. Aghios jaunak, asmatu izanagatik pozik, hasperen egin zuen.

Mutilak sarritan ikusten zuen Ana emazte-gaiaren alboan, baina ez zen berehalakoan maitemindu. Neskak bat zen, hamalau urteko neskak bat. Bazuen, hala ere, heldutasunaren zantzurik: ahaide aberatsekiko erabateko otzantasuna, zentzuzko pertsona baten kalkulua bailitzan. Baina hamabost urterekin otzantasun hura are helduago bihurtu zen. Alegia, tristuraz bete eta mingarri bihurtu zen, berehala itoarazten zituen asaldatzeen eraginez. Hala ere, ez zituen ahaideak ez konturatzeko bezain azkar itoarazi eta horregatik gorrotatzen zuten. Gero eta apalago jantzen zen, baina soinekorik zarpailenak ere beste gauza bat zirudien haren gorputzean jarrita.

Aghios jauna nahikoa edanda zegoen jadanik eta ia egun osoan zehar gozatu zuen askatasunari eusteko gauza sentitu zen, baita horren solaskide sutsuaren aurrean ere.

Asko maitatu eta desiratu duenaren esperimentiarekin eta, aldi berean, agurearen hitz

bareekin, bizitzari lapurtu dizkion elementuekin laborategian itxi den gizon objektiboa bailitzan, zera esan zuen:

— Maite den emazteak gainean daramatzan soineko zarpailak haren luzapena gertatzen dira. Metal-pusketatxo bat surtara botatzea bezala da. Gori jartzen denean,ugarra bera baino argi distiratsuagoa igortzen du. Baina badago desberdintasunik. Denek ikusten dute argia, baina ez zarpail horien edertasuna. Desberdintasun bat eta ez nolanahikoa!

Bacisek baso bat ardo eztarriratu zuen bere kontaketa ren hariari eutsi ahal izateko. Baina Aghiosekin baso bat ez zen aski, bidaian zegoenean argi ikusi nahi zuen gizona baitzen.

— Horregatik pentsatzen dut zarpail horiek soilik artistek edo adituek nabaritzen dituzten zenbait koloreen antza handiagoa daukatela. Jakina! Argi dago. Soilik maiteminduta dagoena da aditu bat.

Eta Aghios jaunak ere edan egin zuen hain zorrotza izateagatik saritzeko.

— Baina denek esaten zuten Ana arroparik soilenekin ere zoragarri janzen zela.

Eta Bacisek are habaila handiagoan jarraitu zuen Aghios jaunari parte hartzeko astirik ez ematearren.

Orain, ordean, argi hitz egin zuen eta ahapeka, bere buruaz lotsatuko balitz bezala, eta horrela Aghios jaunak ez zuen hitzik galdu.

— Nor zen Ana? Neskame bat. Nor nintzen ni? Ez nuen uste mirabe dohakabe bat nintzenik. Nagusi jaunaren semetzat hartzen ninduten. Ezin zitekeen eska ematen zitzaidan mailari uko egin niezaion. Horregatik nik Anarekin ongi pasa eta Bertarekin ezkontzea erabaki nuen. Pixkanaka erabaki nuen. Goizero jaikitzean honakoa zen nire arazoa: zer egingo dut gaur Ana erakartzeko? Inor konturatu gabe, oparitxo eta arretaz inguratu nintzaion. Erraz baino errazagoa izan zen hura lortzea. Hura bakarrik aurkitu eta leiho batetik irtetea beste zailtasunik ez nuen izan. Oraindik ez dut ulertzen. Torlanon denek haren apaltasuna, eratasuna, santukeria miresten zuten. Agian, erraztasun hura izan zen hari hainbeste atxiki ninduena. Nire galbidea izan zen eta, Jainkoaren laguntzaz, haren salbamena izango da. Zergatik fidatu zen hain azkar nitaz?

Nire haragiaren zintzotasunak etsiaraziko zion? Zuk, filosofo zaren horrek, ba al dakizu hori argitzen?

Bacisen hitz haiek Aghios jaunaren buru lelotua ernatu zuten: haragiaren zintzotasuna. Ideia-zurrumbilo bat sortu zitzaion hitz haietatik. Haragiaren zintzotasuna piztien zintzotasuna zen, baina haientzat ere zintzotasun horrek une bat baizik ez zuen irauten eta ez zuen zertan erantzukizunik eskatzen. Bacisek, aitzitik, zintzotasun hura lohitu egin zuen, une horretan bertan itxurak egitea erabaki baitzuen. Alegia, bere zintzotasun hark traizioa hobeto gauzatzeko baizik ez zion balio izan.

— Eta filosofo deitzen didazu, zuk, ideia izugarri hori asmatu duzunean! Haragiaren zintzotasuna gorputzaren beste zati baten faltsukeria-ri kontrajarria, alajaina, bera ere haragi, baina garatutako haragia denean!

— Nik ez dut gauza horietan pentsatzeko astirik —esan zuen Bacisek sorbalda jasoz—. Ez dut inoiz pentsatzen; nik gogoratu egiten dut eta gero sufritu. Esan bezala gertatu zen. Anak uste zuen nik zintzo jokatzeko nuela eta nik beti jakin

nuen hura nola traizionatu. Ez dut uste itxurak egiten asmatu nuenik. Zoria eskuratzeko nire borondate tinkoak ez zidan beste ezertarako betarik uzten. Nire emaztearen eta bion neska-me apala izaten jarraitu beharko zuela esateko hitzak ere prest nituen. Egunez emaztea zerbitzatzen jarraitu ahal izango zuela eta gauren batean bere ohean onartu beharko ninduela esatea pentsatzen nuen. Denbora batez bakarrik, nahikoa ase izan arte. Ez nuen hori guztia esan, esan beharrik ez zegoela iruditu zitzaidalako. Ez zegoen presarik. Eta behar bezala funtzionatzen ez duen nire buru txepel honegatik ez balitz, nik bizitza erraza eta eroso lortu izango nuen betiko. Anak ez ninduen zorigaiztoko bihurtu, nire bihotz txolin honek baizik.

Eta jarraitu zuen esaten garai hartan anaiari buruzko berri bat iritsi zitzaiola. Banku bateko kutxazaina izanik, gaiztakeria bat egin zuela eta, horren ondorioz, ama hiltzeko zorian egon zela. Amak berarengana jo zuen familiaren ohorea berreskuratzeko behar ziren hamar mila lirak lortzeko arren eskatuz. Berak, besterik gabe, berea bailitzan, Bertaren aitari kontatu zion arazoa.

Hark berehala eman zizkion hamar mila lira haiek, baina nahi izan zuen Bertak haren berri izan zezan eta jakin zezan diru hura ezkontsariaren kontura zela. Horrela, ofizialki, Bertaren senargai gertatu zen.

— Ez zen hitz gehiegirik behar izan, ez Anaren maitale bihurtzeko, ez eta Bertaren senargai bihurtzeko. Bertak ezkontsariaren aurrerakina ematea eta Anak bere gorputzaz gozatzen uztea gauza bera ziren. Egunak Bertarekin igarotzen nituen eta gauak Anarekin. Bizileku genuen apaindurarik gabeko etxetzar handiak ere nire bizitza bikoitza antolatzeko propio egina zirudien. Alde batean, bulegoa eta Bertaren sendiaren bizilekua zeuden. Bulegoaren ondoan, beheko solairuan zegoen gela batean, nik egiten nuen lo. Beste aldean, Anaren gela zegoen, beste gela batzuk inguraturik, han non eguneko lanaz nekatutako zerbitzariak eta beren sendiek lo egiten baitzuten. Hiru atari-txakur genituen eta pozik baina mutu jarraitzen zidaten etxearen alde batetik besterako ibilaldietan. Eta egunez, ez nintzen Anaz oroitu ere egiten. Bere zereginetan adi eta apal ikusten nuenean, zera pentsa-

tzen nuen: «Tira! Gaur gauean apaltasun horretaz gozatuko naiz. Orain ez dago horretan pentsatzeko betarik». Eta Bertarekin, maitasunaz ezer gutxi mintzo ginen. Baina gure ondasunak handitzearen pentsamendu berak elkartzen gintuen. Begira, zuek kaletarrok diru-gosea bezala, guk lur-gosea izaten dugu. Eta gure etorkizuneko asmoei buruz hitz egiten genuenean (lautadan zeuden gure lurrak muinoan gora zabaldu nahi genituen), Bertak esaten zuen: «Hugok (nire anaia) hamabost mila lira horiek itzultzen dizkigunean...». Ez zituen nolanahi ahaztuko hamabost mila lira haiek.

Aghios jaunari iruditu zitzaion hasieran hamar mila lira besterik ez zituela aipatu. Zuzendu nahi izan zion, baina gero garrantzirik gabea iruditu zitzaion.

Lurrarekin eta uztarekin zerikusia zuten kontu guztietan baserritar zahar batek laguntzen zien, Giovannik, eta bere zorroztasun eta leialtasuna zirela medio aholkulari izatera igoarazi zuten. Soroak bere izerdiz ureztatzen zitueneko soldata bera jasotzen zuen (ez gehiago), baina etxeko arima zen. Aghios jaunak belarriak erne

jarri zituen, zeren Bacisek hainbeste hitz erabil-
tzen bazituen gizon apal hari buruz hitz egiteko,
horrek esan nahi zuen kontatzen ari zitzaion isto-
rioan parte garrantzitsu bat zuela. Nagusia
bezain grinatsua zen, baina soilik haien alde.
Ohiko zakur leiala. Nagusia nagusia zen eta
Bacis ere nagusitzat izaten ohitu zen, eta inor
baino nagusiago, zeren eta gaztea izanik bere
nagusi izaten jarraituko baitzuen hil artean. Hor-
taz, haren interesak bere egin zituen, nahiz eta
interes horiek topo egin bere benetako nagusia
zen Bertaren aitarekin eta Bertarekin berarekin
ere, zeina andre izanik ezin baitzuen lehena izan
agintean.

Berehala, Ana haurdun gelditu zen. Bacisi
esan zion eta ezer eskatu gabe, pozik, biak
elkartzen zituen katearen beste maila bat zela-
koan ziur. Ez zuen kontrakoa itxaroteko inolako
hitzik jaso eta, xalo, gauzak modurik naturale-
nean gertatuko zirela uste zuen. Bacis ere ez zen
gehiegi arduratu. Aitzitik, burura etorri zitzaion
lehendabiziko gauza zera izan zen, Bertarekin
ezkontzeko prestaketak azkartu behar zirela.
Gero, nagusia zenez, erraz moldatuko zen sasi-

kume hura etxe haren gerizpean has zedin, semetzat aitortu gabe eta hartaz batere arduratu gabe. Maite ez den umea merke baino merkeago hazten da baserri batean. Eta hazitakoan etekina dator. Arazo bakarra zegoen: ama gaztea hotzago bihurtu zela. Maitasun handiaren, benetakoaren izenean amore ematen zuen. Baina, ahal bazuen, ihes egiten zuen, eta bera-rengatik balitz, bakean utzia izatea nahiago zuen.

— Jakina —eten zion Aghios jaunak—. Ama-naturak plazerra ugalketa ziurtatzeko sortu zuen. Hori ziurtatuz gero, oraindik ere plazerrak badirau, ahaztu zaiolako gertatzen da, zomorroek beren koloreak gordetzen dituzten bezala, nahiz eta maitasunaren garaia amaitua izan. Horren baserri handian ezin da denetara iritsi.

— Agian —esan zuen Bacisek lehor—. Baina horretan ere ahazte bat izan zen. Zergatik ahaztu zitzaion ama-naturari nire sua ere itzaltzea?

— Adiskidea! —esan zuen Aghiosek eta ardoak eragindako hitzak izan ziren—. Ama-naturari ez zitzaiolako batere desatsegin izango Bertari ere umea egin bazenio. Beti dauka zereginik.

Asko gara eta. Soilik ezertarako balio ez dutenak baztertzen ditu.

— Ez, ez, inoiz ez —oihukatu zuen mutilak gartsuki—. Berta, etsaia, Anaren iraintzailea.

Aghios jauna harrituta geratu zen. Orain bazekien nola amaituko zen istorioa. Aurrean zuen Bacis, piztuta, maiteminduta, etsita, nobelaren benetako azken kapitulua. Dagoeneko ez zeukan ezer gehiago entzun beharrik.

Bacisek bere ipuina bukatzeko presaz jarraitu zuen. Anak, nolabait ere, maitale gisa arbuia-tu ondoren, maitasuna ere ukatu egin zion; berak egotzi zion partea hartzeko erakutsi zuen etsipenak eta haren erabateko diskrezioak agerian jarri zuten maitasun handi hura. Azkenik, Giovanniri konfidentziak egin zizkion eta horrela bera traizionatu zuen. Giovannik, zakur leial gisa, Bacisekin hitz egin eta neskatxa ezkonaraztea proposatu zion. Baserrian bazegoen mutiko gazte baina baldar bat, horren aproposa ezen, horretarako jaioa baitzirudien.

— Hori —esan zuen Bacisek— orain bederatzi egun gertatu zen —hatzekin kontatu zuen—. Horixe. Astelehenean zortzi egun egin zituen.

Ezinezkoa dirudi. Beste gizon bat nintzen orduan; Giovanniri eskerrak eman eta haren asmoei baiezkoa eman nien. Nire aldaketa gau hartan bertan hasi zen, neskaren atea jo eta ireki ez zidanean. Deitu eta hura ateraino etorri zitzaidan ahapetik esateko: «Ez, ez!». Atzera egin behar izan nuen eta zakurrek marmar egin zuten, zeren, hain goiz espero ez nindutelarik, beste norbait izango nintzela uste baitzuten. Oheratu, baina ez nintzen lo egiteko gauza izan eta goizean zera galdetzen nion neure buruari: «Zergatik ez duzu berriz engainatu? Zergatik ez diozu ezkon hitza eman atea zabal zezan?». Horrela, konturatu gabe, erabaki berri baterako prestatu nintzen.

Hurrengo goizean Giovannik kontatu zidan Anarekin hitz egin zuela eta adostasunera iritsiak zirela. Orain bizkor ibili beharra zegoen; Ana etxeko lanetatik baztertu eta ibai ertzeko soroetan, Luigiren ondoan, lan egiten jarri. Base-rritarren artean hori berehala egiten da. Belarra biguna da eta jaioko denari aita bat emateko garaiz irits daiteke. Egun argitan ez nituen jada gaueko larritasunak gogoratzen eta ados egon

nintzen. Bertaren aldetik horrelako baimenik lortzea ez zen zaila izango, zeren, gainera, mahats-bilketaren garaian soroetan andreen lanaren beharra izaten baitzen. Halabeharra izango zen baina, Bertak, ez dakit zein aitzakia zela bide, lehengusina oraindik beste bi egunez etxean gelditzeko eskatu zuen. Nik, berriz, gau bat baik ez nuen behar izan zer egin behar nuen jakiteko: «Alferrik egongo zara nire zain gaur gauean eta, bestearena zarenean, jai izango duzu; nik neure bizitza oparoa eta independientea egingo dut orduan».

Aitzitik, gau izugarria izan zen hura. Iluntasunean, Ana ikusten zuen, egunez ikusi zuen bezalaxe, inoiz baino apalago, haren soinean hain eder iruditzen zitzaizkion zarpail haiek ere erantzita. Eta iluntasunean, arima koitadu hura ulertu zuen, lehen inoiz ulertu ez zuen bezala. Harekin bat eginez, eta agian modu sakonago batean, Aghiosek ere ulertu zuen, begiak malkoz blai izateko beldur entzuten ziola. Hura ama zen, ama besterik ez, bere semearen ama eta buruan ez zeukan beste gauzarik. Luigiri bere gorputza eskaintzeko prest zegoen, mundu honetan ume

hark leku bat, edozein, izan zezan. Ez zen neska beso haien artera zihoana, mutila zen hartara bultzatzen zuena. Erditu ondoren, ederra eta gartsua izango zen berriro. Eta Bacisek supituki ulertu zuen, nagusia izanik, erraz gertatuko zitzaiola neska berriro bereganatzea. Baina, ez zitzaion axola; ez zen hori axola zitzaiona. Bere onetik ateratzen zuen Luigi babo horrek kendu ahal izango liokeela pentsatzeak. Eta ez jelosiaz (Aghiosi benetan esaten zion), baizik eta ezin zuelako onartu babo batek Anaren bizitzaren gainean eskubidea izaterik. Zer bihur zitekeen Ana samurra halako morroi baten eskuetan? Berak, orain, besoetan hartu eta bizitzan zehar eraman nahi izango zuen. Jada ez zen desira sentitzen zuena; maitasuna zen.

— Desira pilatzen denean, bere itxura galdu eta maitasun bihurtzen da. Mundu honetako gauza askok aldatzen dute beren itxura pilatzen direnean —esan zuen Aghios jaunak seguru antzean. Ez zuen berehalakoan adibiderik topatu eta ez zen pozik geratu topatu zuenean—. Begira, ardoak sortzen duen alaitasuna mozkorraldi bilakatzen da —gero, gogoetatsu—. Baina egia

da desirak bere pilaketatik sortzen den maitasunak baino sutsuagoa dirudiela.

— Nik zer dakit —esan zuen Bacisek sorbaldak goratuz—. Momentuz, eta Anarekin hitz egitea lortu nuen arte, maiteminez sutsuago sentitzen nintzen, desiraz inoiz izan nintzena baino. Orain ez dakit nola sentitzen naizen. Ohetik salto egin nuen, ezin nintzelako une bat gehiago doilorkeria-egoera hartan bizi. Anarekiko garbitu beharra nuen. Jantzi eta leihotik salto egin nuen. Zakurrek marmar egin zuten, ez zeudelako ohituta ni hain berandu ikusten. Baina ez zitzaidan axola ikusten ninduten ala ez eta neure ohiko ibilera lasaiez abiatu nintzen. Anaren ate aurrera iritsi eta jo nuen. Hark, bestaldetik, xuxurlatu zidan: «Zergatik etorri zara? Ondo dakizu ezin dudala». Neure bisitaren arrazoia adierazten saiatu nintzen. Mintzatu besterik ez nuen nahi. Baina ez zidan sinetsi eta esan zidan egunez ere bazegoela mintzatzerik. Ireki zidan azkenean, baina soilik, irekitzen ez bazidan, atea ostiko batez irekiko nuela ozenki esan nuenean. Ireki zidan, bai, baina luzaro, gure elkarrizketa latza gertatu zen; besarkada bat baino borroka bat

zirudien. Ariman pilatutan euzkan hitzik eztiyak
esan nizkion, baina ez zidan sinesten, izan ere
bazirudien —oharkabea— desiraren garaietan
antzekoak erabili nituela, ahalik eta azkarren
neureganatzeko baliabide guztiak erabiltzen
nituenen. Gero, niri sinestea galarazten zion
beste arrazoi bat ezagutu nuen. Giovannik bera-
rekin hitz egin zuen eta sinestarazi zion ez zego-
ela pentsatzerik ere ni bezalako nagusi batek
bere aberastasunari uko egingo zionik bera
bezalako neskametro batengatik. Sinetsi egin
zidan baina soilik ezer eskatu gabe alde egiteko
prest nengoela ikusi zuenean. Beraz, bakarrik
neure maitasunaren berri ematera etorria nin-
tzen. Nire maitasuna sinetsi zuen, nigan desira-
rik ez zegoela ikusi zuenean. Bitxia, ezta?

Bacisek berriro edan eta isilik geratu zen.
Aghiosek, ardoak temati bihurtzen baitzuen,
bereari eutsi nahi zion. Argi utzi nahi zuen Ana
haren maitasunaz ohartu zela soilik sentitu zue-
nean haren desira hainbeste pilatu zela ezen,
besarkadekin asetzea ezin espero baitzezakeen.
Baina ez zituen hitzak aurkitu. Bacisek ere asko
edan zuen. Masailak gorrituak zituen eta bere ile

ederra, horia eta leuna bekokian erortzen zitzaion buruari eragitearen poderioz, haren mugimenduak hitzei laguntzen baitzien haien erritmo berera egokitu nahi izan balu bezala. Errukia sortzen zion eta ez zuen ahorik ireki, Bacisek, lasai izaten ahalegintzen zen ahots batez, zera esan zion arte:

— Hemendik irten eta trenera igotzeko ordua dela iruditzen zait.

— Ez dago presarik —esan zion Aghiosek erlojuari begiratu ostean. Unetxo batez itxaron zuen, baina gero irrikaz galdetu—. Eta gero zer? Nola amaitu zen?

— Oraindik ez da bukatu —esan zuen—. Gau hartan Berta edo bere aita topatu izan banitu, Anari aitortutakoarekin lortua nuen lasaitasuna areagotzeko, harekin eta ez beste inorekin ezkontzeko neure asmoa adieraziko nien. Ordu-ra arteko lasaitasun eder hura ez zitzaidan aski. Baina ez nituen orduan topatu. Eguzkiaren argitan ikusi nituen eta zuhurtziaz jokatu nuen. Agian, halako jarrera-desberdintasuna uler daiteke denbora gehiegi neramalako gaua maitasunari eta eguna neure interesei emana. Udinera,

neure ama ikustera, joan nahi nuela besterik ez nien esan eta berehala Milanera joan nintzen.

— Zergatik Milan? —galdetu zuen Aghiosek erdi lo.

— Ezkontsariaren kontura Bertaren aitak utzi zizkidan hamabost mila lira haiek berreskuratze-ko —esan zion Bacisek, besteak gogoratzen ez zuelako harrituta. Nola egin nezakeen orain Bertarekin ez ezkontzeko, zor hura aurretik ordainduz ez bazen?

Ardoaren eraginez bere aldarreak traizionatzeko prest, Aghios barrez hasi zen. Gogoratu egin zen arratsalde hartan bertan bagoi berean hiru gizon zeudela eta hirurek sakela bete diru zeramatela: ikuskatzaileak ehun eta berrogeitamar mila (gutxixeago agian, harro samarra baitzirudien), berak, ez berrogeitamar, baina bai hogeitamar mila eta Bacisek hamabost mila (hamar mila bakarrik ez baziren bederen).

— Biletetan? —galdetu zion barrea pasa zitzaionean.

— Ez nuen dirua lortu —esan zuen Bacisek goibel—, eta batek daki noiz lortuko dudan. Neure anaia Hugok ezin dit zorra itzuli, ezkontze-

ko asmoa duelako. Tarte honetan berak ere nirea bezalako afera bat izan du.

— Bi andreekin? —galdetu zuen Aghiosek, dagoeneko arreta garrantzirik gabeko xehetasunetan baino ezin zuen jarri eta. Eta berehala pentsatu: «Familia-gaitza dirudi».

Bere oroimenak, bere pertzepzioak bezala, argi zirauen eta ez zitzaion ahaztu Bacisek erantzun ziola anaiarena andre bakarra zela, baina nahikoa anaiari bere zorra ordaintzea eragozteko. «Jakina» pentsatu zuen Aghiosek, bere esperimentziak oso gogoan baitzituen. «Andre bakar bat nahikoa da gauza asko eragozteko».

Aghiosek, azkenik, kontua ordaindu zuen. Eskupekoa barne, berrogeitamar lira haragi hotz pixka bat eta bi ogi zatiren truke! Tren luze-luze baten azken bagoian igo ziren, bidaztientzat egokitutako bagoi bakarrean. Aghiosek hain sendo sentitzen zituenez zangoak, bagoitik jaitsi zen kuxin baten bila. Ordaindu eta itzultzeko prest zegoenean, bere bidelagunarentzat ere beste bat hartzeko ideia bururatu zitzaion.

Garaile baten gisa igo zen berriro; bi konpartimentuetatik gustukoena aukeratu eta bere

azken oparia eskaini zion Bacisi. Hark ez zituen sekula gondola, afaria eta kuxin hura ahaztuko, guztiak lehendabizikoz ikusten zuen pertsona batek egindako opariak. Baina berak ere ez zituen ahaztuko ez Bacis, ez Berta lodia, ez Ana fina. Ezta Giovanni ere, morroi baliagarriaren senaz beteta nonahi hazten zen giza landare hura. Areago, Aghios jauna Giovannirengan eta bere bizitzan zehar ezagutu zituen Giovanni guztiengan pentsatzen etzan zen. Mundu honetan izan zitezkeen beste fortuna guztiei uko egiten zioten eta beste norbaitekin elkartzen ziren modurik apalenean beste harena partitzeko. Haienezat ez zegoen nagusi bihurtu ahal izango liekeen garapen zoroen itxaropenik, ez eta norberaren indar ausarten ondorioz lortutako aberastasunik. Haiek nagusiari itsatsita bizi ziren, huntza arbolari bezala. Bere gogo iluna lozorro erortzear zegoenean, Aghios jaunak pentsatu zuen Darwinek ez zuela dena ulertu. Gizonak eta andreak ez zituen animalia batek sortu, animalia bakoitzak pertsona mota jakin bat baizik. Mundu honetako Giovanni guztiak Niloren ertzetan krokodiloek hartzaginak garbitzen zizkieten txori

haien eboluzio geldoaren ondorio ziren. Agian, krokodilo haiek karieak jota zeuden eta txori haien jana, krokodiloarenarekin alderatuz, nagusiek Giovannitarrei uzten zieten baina ugaria goa zen.

Lo gelditzeko puntuan zegoenean, ontasun-pentsamendu sutsu batek begiak berriro irekiaz zizkion. Bidelagunari begiratu zion. Bagoiko argi mendrearen pean, bere eserlekuaren parekoan etzanda ikusi zuen, bera bezala, ile hori argia kuxinaren gainean jarrita. Hark, ordea, begiak eskuaz estaltzen zituen. Agian, esku haren azpitik negarrez ari zen. Eta Aghios jaunak pentsatu zuen: «Hona hemen bi gizon. Nik sake-lan gizon honi larritasunetik erauzteko behar dena baino bi (edo hiru) aldiz gehiago daukat. Baina ezin diot eman, zeren bestela, beste hiru hilabetez oso interes handia ordaintzen jarraitu beharko bainuke. Beraz, nik ez dut interesik ordaindu nahi eta, oster, nahiago dut Bertarekin ezkonduz sufri dezan, eta Bertari sufriaraz diezaion, eta batez ere, Ana gajo hari, zeina Luigi pizti malapartatu haren eskuetan erortzear bai-

tago naturako mamu bat den Giovanni, morroi idealaren laguntzaz».

— Entzun, Baxis! —deitu zion eta besteak eskua begietatik kendu eta begiratu egin zion—. Nik ez dut zure arazoekin zerikusirik, noski, batez ere ezin dizudalako haiek konpontzen lagundu. Baina, oraingoz, premiazko gauza bakar bat dago: Anak presazko erabaki bat hartzea galaraztea. Ez dago presarik. Umetxo oraindik urrun da. Zergatik ez diozu dena osabari kontatzen? Ordaindu ezin denean, ezin da eta ez da ordaintzen. Zentzugabea da hamar edo hamabost mila lira maileguan hartu izanagatik salduta sentitzea. Zordun geratzen da eta lehen bezain adiskide. Besteak interesak hartuko ditu eta egin dezake. Bizitzan, lehenago edo geroago, zortea iristen da. Ordaindu egiten da eta norberaren borondatez libre zenean baino libreago bizi da. Zortea zuri edo niri irits dakiguke. Eta zuretzat gauza handia izango litzateke niri iris-tea. Hala balitz, zin egiten dizut Torlanora korrika joango nintzatekeela zu zeure arazotik libratzeko. Triesten hogeitamar mila lira izango ditut, jakina (eta bularraldeko sakela ukitu zuen),

baina ezin dizut diruaren zati bat ere eman dena bihar bertan behar izango dudalako. Zu aurkitu ez bazintut hain aspergarria gertatuko zitzaidan bidaia hau, hain zuzen, dirua notario baten aurrean emateko egiten ari naiz .

Besteak eskerrak eman zizkion ahopean eta berriro ere begiak eskuaz estali zituen argitik babestu nahi balitu bezala. Aghios jauna atsekabetuta geratu zen. Egia zen ezin ziola besteak behar zuen hori eman; baina tamalgarria zen aldi berean, bidaia hura, zeina bere ontasuna Lombardia, Veneto eta Friulin zehar barreiatzeko hasi baitzuen, irakaspenezko edozein alegietan bezala, norberekeriazko ekintza batekin amaitzea (gaua lotarako zen eta ez zuen kontatzen). Bera gizon aberatsa zen, bestea pobrea; bera astakirtena, bestea (pobrea izanik) argia, mundua bere horretan ikusten duena, hor non babes beharrean diru zikina ez diren beste ondasun batzuk baitaude.

Eta bazegoen atsekabetzen zuen beste gauza bat ere. Emaztea berarekin ekarri izan balu, agian dena konpondu ahal izango zen. Bera zen eskupeko txikiak ematen zituen zikoi-

tza, baina emazteak behar zen beste ematen zuen... nahi izanez gero. Istorio guztia nola zegoen kontatuz gero, agian, hunkitu egingo zen. Gizajoari hamar mila lira eskaini ahal izango zizkioten (hamabost mila ez, inondik inora).

Lehertu zen azkenik. Altxa, sakelatik bere txartela atera eta Bacisi luzatu zion:

— Hobeagorik aurkitzen ez baduzu, zatoz nigana Triestera edo idatz iezadazu. Ez ezazu itxaropenik gal eta, bitartean, galarazi ezazu Ana gajoak astakeriaren bat egitea.

Bestea ere, altxa egin zen. Baina kortesia-keinu bat izan zen, sinetsiko ez balu bezala. Eta xuxurlatuz:

— Eskerrik asko. Triestera joango naiz.

Berriro etzan zen eta, Aghios jaunak etzateko keinua egin bezain laster, begiak eskuaz estali zituen.

6. VENEZIA-MARTE PLANETA

Aghios jauna lasaiago geratu zen. Bihotze-
rrea sentitzen zuen hainbeste ardoren ondorioz.
Dagoeneko kontzientzia lasaia zuen, dirua eman
izan balu bezala. Funtsean, berak emana zuen,
zeren emaztearen aurrean Bacisen alde egingo
baitzuen. Orain emazteari zegokion bera ere
ongi jokatzeari.

Baina ez zen berehalakoan lokartu. Pertsona
zuhur batentzat ia ezinezkoa da abiatzear dago-
en tren batean lo geratzeari. Segurago sentitzeko,
Aghios jaunak bere eserlekuari eutsi zion baina
horrela indar egin behar zuen eta ez da erraza
indar egiten ari zaren bitartean lokartzeari. Azke-
nik, trena mugitu zen. Hasieran, mantso eta
astun. Zaratarik handiena konboi luzearen
burualdetik buztaneraino mugimendua barreia-
tzean gertatzen zen, bagoiek modu kezkagarrian
elkarren kontra talka egiten zutelako. Aghios
jauna altxa egin zen entzuteko. Lasai zedin,
Bacisek, eta eskua aurpegitik kendu gabe, zera
xuxurlatu zion:

— Hori gertatzen da tren honek Westinghouse balaztarik ez duelako.

Ez zegoen hitz lasaigarriren beharrik, dagoe-neko trena abiatua baitzen eta abiadura normala. Oso normala. Aghios lasaitu eta bere eserlekuan etzan ahal izan zen. Ezbairik gabe, ondo lo egin zitekeen horrelako abiada zeraman tren batean. Mugimendu hark sortzen zuen musika oso erritmikoa zen eta ez, tren azkarretakoa bezala, zakarra: sehaska-kanta, zinez. Eta luza-ro, Aghios jaunak soinu hari jarraitu zion edo, hobeto esanda, soinu hark jarraitu zion berari loaren aurreko bakean. Maila guztietako ametsak daude eta mailarik baxuena zentzumenak oraindik errealitatetik askatu ez direnean gertatzen da. Aghios jaunak, betiletan zehar, bagoiaren argi mendrea somatzen zuen eta berak ere begiak eskuaz estaltzen zituen Bacisen gorputza, bere gorputzetik metro bat baino gutxiagora baitzegoen. Eta bere ametsa kanpoko musika hark esangura hartzeaz bat hasi zen. Esaten zuen: «Dena ondo dago, dena ondo dago». Eta Aghios jaunak ez zion errepikapen hari amaiera eman nahi. Hain ederra zen horren mezu eder

eta benetako baten soinuaz lokartzea. Dena ondo zegoen, bai horixe. Bacisek maite zuen, trenaren lehen abiatzeak sortutako zarata zakar haiek zirela eta lasaitu nahi izan baitzuen. Dena ondo zegoen eta kito.

Baina, berriz ere, loa galarazia izan zitzaion. Mestrera iristeak munduaren akaberaren antza izan zuen. Makina indartsu batek txatar pilo bat mugitu nahi izan balu bezala. Aghios, ikaratuta, zutitu egin zen. Bacis lasai eta geldi ikusi zuen, eskua aurpegian, kuxinaren gainean burua ego-kitzen zuela, eta xuxurlatuz:

— Westinghouse balazta falta zaio.

Noiz hasi zen Aghios jauna ametsetan? Ziur ez zela izan Mestre utzi eta berehala. Goriziatik gertu, goizeko laurak aldera esnatu zenean, distantzia luzea da eta ordurako ametsa ahaztua beharko luke, loaldi sakonena ere bizi arazten duen beste edozein amets bezala. Bestetik, pentsatzekoa da ametsa Gorizia baino geltoki batzuk lehenxeago gertatu izango zela, loa sako-negia ez zenean eta zelula beilariren batek ametsa zaindu eta gorde ahal izan zuenean.

Nork daki ametsa gero Aghios jaunak gogoratu zuen bera izan zen ala ez. Amets batetik esnatzean, berehala esku hartzen du buru analitikoak hura koherente bihurtu eta osatzeko. Telegrama batetik gutun bat atera nahi izatea bezala da. Ametsa bat-bateko argien segida bat bezala da eta istorio bat egon dadin bat-bateko argia iraunkor bihurtu eta osatua behar du izan, baita argirik ez zegoelako ezer ikusi ez zenekoa ere. Hitz batean, ametsaren oroitzapena ez da sekula ametsa bera. Disolbatzen den hautsa bezala da.

Nonbait, Aghios jauna Marte planetarantz abiatu zen gurditxo baten gainean etzanda eta gurdia, espazioan zehar, trenbidearen gainetik bezala mugitzen zen. Ahuspez etzanda zihoan eta gurditxoak, zoladura laua izan beharrean, bere gorputz oinazetuari eusten zioten ohol batzuk zituen. Oholetako bat bularrean sartzen zitzaion eta deserosoagoa bihurtzen zuen han zeukan sakela. Bere azpian, eta baita gainean ere, espazio mugagabea zegoen. Ordurako ez zen lurra ikusten eta artean Marte ere ez, ezta ikusiko ere.

Aghios jauna erabat libre sentitzen zen, San Markos piazzan baino askoz ere libreago, kasik gehiegi. Ingurura begiratu eta espazio argitsua baizik ez zuen ikusten. Nola usatu bere askatasun hura, esklabotasunik ez bazegoen inon? Eta nori mintzatu bere askatasunaz? Hura sentitze-ko, hartaz harrotzeko aukera izan behar zen. Ametsean ere Aghios jaunak bere gogoetekin jarraitzen zuen. Pentsatu zuen: «Ez nago bakarrik, askatasun hau neurekin baitaukat. Daukadan arazo bakarra bularrean sartzen zaidan sakela hori da».

Baina espazioan zenbat eta aurrerago egin, eta are bakartiago sentitzen zen Aghios jauna. Marterantz zihoanez pentsatu zuen, ameslariak izaten duen guztiahaltasun sentimendu hartaz baliatuz, planeta hura berak nahi zuen erara asma zezakeela. Aurretiaz irudikatu zuen. Bere hizkuntza ulertuko zuen jendez beteko zuen, eta berak, aitzitik, ez zuen haiena ulertuko. Horrela, berak bere askatasuna eta independentziari buruz hitz egingo zien, eta haiek ezingo zioten beren istorioekin kateatu, zeinak haiek ere izango baitzituzten.

Irteera-geltokitik, dagoeneko urrun, zetorren ahots batek galdetu zuen: «Zurekin eramango nauzu?». Emaztea izango zen. Baina Aghios jaunak askatasuna nahi zuen; ez entzunarena egin eta are gehiago estutu zen gurditxoaren lurrian ezkutatzearren. Horrela jarraitu zuen abiadura handian, gauzen eta airearen faltak hori gehiegi nabaritzen uzten ez bazuen ere eta, korrika zihola, pentsatu zuen: «Nahiago dut semea bakarrik ez gelditzea».

Gero Bacisen ahots pattal eta urrunak galdetu zion: «Zurekin eramango nauzu?».

Aghiosek pentsatu zuen Bacis berarekin eramateak askatasuna kenduko ziola erabat. Sutsua izanik, harekin haren gauzez besterik ezin zitekeen hitz egin. Gondolako ibilaldia ordaindu zion eta zentzugabea zen orain horrelako bidaia bat ere bere kontu egin nahi izatea. Marteraino joan Torlanori buruz hitz egiteko? Ez zuen merezi. Aghios are gehiago estutu zen gurdian ezkutatzeko jarraitzeko.

Ahots goxo, musikal eta oso hurbileko batek orduan: «Prest nago irteteko, zurekin eramana nahi banauzu».

Ametsean hitz batek eta bere oihartzunak goitik behera marrazten du hura esan duen pertsona. Ana zen, neska ilehoria eta garaia, ezia, lan gogorretara ohitutako eskuak salbu. Haragiaren zintzotasunak engainatu zuen Ana hura.

Aghiosen aitatasun-sena bere barrunberik intimoetaraino hunkitu zen. Berarekin eraman nahi zuen, umilarazten zuten Berta eta Giovanni-rengandik eta baita Bacisengandik ere urruntzeko, haragiaren zintzotasunarekin engainatu zuen traidore hura ere ez baitzen oso fidagarria.

Eta bat-batean berarekin zegoen, gurditxoan, bere azpian, apaindura gisa zarpail haiek jantzita, zeinak haurdunaldi hasiberriak oraindik itxuragabetu ez zuen gorputz lirain eta gaztearen edertasuna nabarmentzen baitzuten. Ile horia haien azpian zegoen airean hegaldatzen zen. Dagoeneko ez zukeen bularraldeko sakelean minik izan behar. Baina oraindik pisua sentitzen zuen. Litekeena zen Ana, segurago sentitzearen, eutsi izatea.

Eta horrela jarraitu zuten, hitzik esan gabe, Aghios jaunak zera pentsatzen zuen bitartean:

«Nire alabatxoa da. Inoren zintzotasunez ez fidatzen erakutsiko diot».

Halako batean, gurdiaren motorearen zarata malapartatu bat egiten hasi zen. Espazio guztia betetzen zuen. Eta Aghiosek galdetu zion bere buruari: «Baina zergatik egon behar du nire alabak nire azpian etzanda? Sexuagatik? Nik ez dut desiratzen». Eta oihukatu zuen: «Haren aita naiz, aita on bertutetsu bat».

Supituki, Ana beregandik urrun zegoen eserita, gurdiaren beste aldean, espazio izugarrian erortzeko arrisku bizioan eta Aghiosek oihukatu zion: «Itzuli, itzuli, dirudienez tramankulu honetan ezin da beste inola egon». Eta Ana, otzan, beregana itzuli zen lehen bezala, lehen baino hobeto. Eta espazioa mugagabea zen eta, horregatik, betiko gera zitezkeen horrela.

Talka hotsa! Planetara iritsiak ziren ala?

Izan ere, bazirudien trenak, gelditzean, txiki-txiki eginda bukatu nahi zuela. Aghios zutik jarri zen kolpetik. Itotzeko zorian zegoen baina konturatzeko zen nor zen. Gurdi haren eta tren horren artean argitu ezina zen nahasketa bat zegoen. Eta nahasketa bera zegoen arestian sentitutako

poza eta oraingo lotsaren artean. Baina Aghiosen ontasuna mugagabea zen, baita bere burua-
rekiko ere. Pentsatu zuen: «Ez da nire errua». Eta irribarre egin zuen.

Leiho bat ireki eta airea arnasgarri bihurtu zen. Soro- -zelai hutsak ikusi zituen: baserriren batean argi geldi baten distira ikusten zen. Logura handiak eta bidaia bikoitzaren nekeak jota zegoen baina, hala ere, Aghios jaunak Bacisen leku hutsa eta gero haren maleta txikia egon zen lekua ikusteko denbora izan zuen. Bacisek isilik alde egin zuen, bera esnatu gabe. Gorizia iraganda behar zuten.

Burua kuxinean jarrita, Aghiosek gehiegi sinetsi gabe zera pentsatu zuen: «Tamalez! Hemen egon balitz berehala emango nizkion hamar mila lira horiek (ez hamabost)». Irribarre egin zuen. Ederra zen ordaindu beharrik ez izatea. Ez zitzaion damu. Bere afera, bizitzan izan zuen handiena, ez zen bere pentsamendu bakar-tiaren eremutik aterako eta, beraz, ez zuen garrantzirik. Hala ere, Bacis Triestera etortzen bazitzaion, emaztearekin adostuta, zintzo lagun-tzen saiatuko zen.

Eta Bacisen kuxina bereari erantsi ondoren,
lozorro gelditu zen. Erabat ongi sentitzen zen.
Ardoa espazio sideralean zehar egindako ibilal-
dian lurrindua zen eta ez zion jada enbarazurik
egiten.

7. GORIZIA

Egunsentiarekin esnatu zen, trenaren beste gelditze haietako batek astinduta. Kolpetik zutitu zen. Geltoki nahikoa handi bat zen hura. Gorizia!

Baina, orduan non jaitsi zen Bacis? Eta Aghios-ek erraz osatu zuen abandono hari buruzko bere teoria. Ziurrenik Bacisek uko egin zion Goriziako senide harengandik dirua lortzeko itxaropenari eta Udinen jaitsi zen. Nork daki zer egingo zuen. Agian, Bertarekin ezkontzea erabaki zuen azkenik, horrela, nagusi izanik, Ana hobeto babestuko zuelakoan. Hain urruna ikusten zuen istorio hura orain ezen, edozein konponketa posible gertatzen baitzitzaion. Funtsean, Ana maitasunaren gaia zen eta horrela izaten jarraitu behar zuen. Maitea! Maitea! Ez zituen hain ederki janzten zuten zarpail haiek alde batera utzi behar.

Zazpiak aldera, trena, etxeratzen den gautxoriaren ibilera motelaz, Carson gora egiten hasi zenean, Aghios jaunak, aspertuta, sakelatik

kartera atera eta bileteak ukitu zituen. Irribarre egin zuen, inozentziaz paketea txikitu zela iruditu zitzaiolako. Zer gauza den gehiegi arduratzea! Ziurtatzeko, konpartimentua itxi, errezela bota eta kontu handiz bileteak kontatzeari ekin zion. Hamabost besterik ez zeuden! Bacisek hamabost ostu zizkion. Gizatxarra halakoa!

Aghiosen lehen mugimendua alarma-txirrina jotzekoa izan zen. Eskua ere jarri zuen, baina gero, herabetia izanik, jazarpen penalaren mehatxuak zalantzan jarri zuen. Eta horrela ongi pentsatzeko astia izan zuen. Zertarako gelditu berez mantso zihoan tren hura, zeina dagoeneko Barcola, Triesteko auzoa, baino harantzago trikitraka baitzihoan? Zer eta lapur bat harrapatzeko? Gorizia baino lehenago zegoen geltoki zehaztezinen batean jaitsi eta handik bere harripakina hartuta Torlanorantz abiatua zen dagoeneko. Eta han ez zegoen trenbiderik. Ez zuen inongo zentzurik, zeren eta tren-gidariak ez zuen ibilbidea aldatu nahi izango, bera eta bagoi korrokoildu haiek guztiak Karniarantz eramateko.

Aghios jaunak hatzak marraskatu zituen. Haserreak eta lotsak jota zegoen. Lotsa, horrela-ko iruzur batean erori izanagatik. Agur bidaiaren askatasun-sentimenduari, agur ontasuna. Laino beltz eta mehatxarietan hain garbi marrazten den irudi horietako bat zirudien, baina dagoene-ko ez zituen ez lainoak, ez zakurrak ez eta andre ederrak ere, bidelagun atsegin haiek guztiak buruan.